

Toribio Alzaga

Neskazar, Amantxi,  
Aterako gera,  
Biozberak





Toribio Alzaga

Toribio Alzaga Anabitarte (1861-1941), Donostian jaioa eta bertan illa, bertako euskal idazle zaarren gizaldian edo taldean sartu bearreko egillea degu.

Euskal antzerkiari eman zion bere bizitza. Ortan Martzelino Soroaren jarraitzaile izan zan. Ogei ta amar bat idazlanen egillea da: komeriak, dramak, bakarrizketak eta abar. Zenbat antzerki jaialdi prestatu zituan, berriz, ez dago esaterik.

*Auspoa* Liburutegi onek aspaldi argitaratuak ditu Alzagaren idazlan batzuk: *Ramuntxo*, *Burruntziya*, *Bernaiño'ren larriyak*, *Txibiribiri* eta *San Tomas'eko ferija*.

Aldi ontan, berriz, beste lau kaleratzen ditu: *Neskazar*, *Amantxi*, *Aterako gera* eta *Biozberak*.

Leen aitaturako Donostiako euskal idazle zaar oiek bildu eta aztertu gabe dauzkagu. Gizaldi arekin zorretan gaude. Oraingo ale au izan dedilla zor ori kitatzeko beste pauso bat.



Donostiako Euskararen  
Udal Patronatuaren  
laguntzarekin argitaratua



EUSKARAZ BIZI

ISSN 84-80080-13-5



9 788489 080133

Neskazar, Amantxi,  
Aterako gera,  
Biozberak

---

SENDOA ARGITALDARIA

UgaIdetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Toribio Alzaga

---

Neskazar, Amantxi,  
Aterako gera,  
Biozberak

---

Auspoa Liburutegia  
(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080- 13-5

Legezko Gordailu: S.S. 1.157/94

## **TORIBIO ALZAGA ANABITARTE (1861-1941)**

Toribio Alzaga Anabitarte Donostian jaio zan, Trinidadere kalean, 30-garren zenbakian, 1861 urteko apirilaren 16-an.

Bere denbora guzian Toribio esan zioten; bañan berez Jose Maria Toribio omen zan. Orregatik, Errriko Etxeko paper-agirietan onela idazten omen zioten: "*José María Toribio. conocido por Toribio...*"

Karlisten bigarren gerra-denboran, mugaz beste aldean izan zan; Ziburun. Batxillerato guzia an egin zuan. Martzelino Soroa ere an zan; eta, onek idatzitako *Idiyarena* komeria antzeztu zanean, Alzaga ere antzelarietako bat izan zan, artean amairu urteko mutilla bazan ere.

Iru anai-arreba izan ziran: Toribio, Baleriano eta Soledad.

Aitak -Pedro Juan- aroztegia zeukan Trinidadere kalean. 15-garren zenbakian. Bañan ez Toribio eta ez onen anai Baleriano etziran langintza orren zale. Naiago zuten antzerki-paper bat buruz ikasten eta komerietako jantziak prestatzen. Aitak, asarretu eta onela esaten zuan:

- Mutil auek komikoak izango dira!

Ala gertatu ere. Baleriano gazterik il zan; bañan Toribiok aitaren langintza utzi eta etzuan antzerkia beste ogibiderik izan il arte.

Soroarekin asi zan komeriak prestatzen eta aietan parte artzen. Lenengo, Santa Mariko luistarrak antolatutako Santa Marta aretoan: urrena, berriz, kale nagusian, 7-garren zenbakiko bigarren bizitzan. Baita *Centro Católico*-an ere, Barriola, Lapazaran, *Praile Motz* eta abar lagun zituala.

1888-an, ogei ta zazpi urterekin bere lenengo komeria argitaratu zuan: *Aterako gera*, urte berean Donostiko Euskal Itz-jostaldietan saritua eta gaur liburu ontan berriro plazaratzen deguna.

Bigarrena. *San Tomas*-eko feriya izan zuan, 1982-an idatzia, lenengoz 1894-an argitaratua, eta 1963-an Auspoa Liburutegia-k berriro kaleratua.

Urrena, iru operaren letra: *Txanton Piperri* (1899), *Anboto* (1906) eta *Gli kornamenti*, azkeneko au parre eragitekoa, Buenabentura Zapirain jaunak (1874- 1937) musika idatzirik.

Ondoren, onako antzerki auek etorri ziran: *Axentxi ta Kontxexi* (1914), *Bernaiño'ren lariyak* (1915), *Oleskari berriya* (1916), *Txibiribiri* (1918), *Ramuntxo* (1920), *Andre Joxepa Tronpeta* (1921), *Eleizatxoko ardazlea*, Gorostidirena berez, baiñan Alzagak berriztatua; *Arpuxa kalian* bakarrizketa (1922), *Bosturtian* (1922), *Etxietan* (1923), *Zalaparta* (1923), *Amantxi* (1923), *Tantarrantan* (1923), *Zanpantzar* (1923), *Neskazar* (1924), *Irritza (Macbeth)* (1924), *Babalora*, *Urdallekoa*, *Burruntziya*, *Ezer ez ta festa*, Soroarena berez, baiñan Alzagak berriztatua, *Gizonona*, *Osaba* eta *Mutil zarra*. (1)

Oiek guk dakizkigunak. Guztira, ogei ta amar bat.

*Irritza*, Macbeth euskeratua alegia. Londrestik eskatu zioten, *Departement of Printed Books, British Museum* deritzaionetik. Lau ale bialdu zituan, eta Inglaterrako liburutegi nagusienetan banatu omen zituzten.



Batean, komeri oietan onenak zein juzkatzen zituan galdetu omen zioten. Onena *Bosturtian* jotzen zuala erantzun zuan; urrena, *Amantxi*, eta gero *Irritza*.

San Juan kalean bizi zan, eta etxeko seigarren bizitza utsik zeukan. An saloi aundi bat antolatu zuan. Baita ere gela bat antzezgilleak jantziak aldatzeko, eta zapi aundi bat goitik bera. Gañontzeko tokia alki arlotez beterik omen zegoan, eta jendeak bai omen zekian zein alki zein familirena zan. An aritzen ziran antzerki-lanetan Manolo ta Inazio Baroja, Galatas, Fernando Zubiri ta beste asko. Negu-partean, ia jaiero.

Donostiko Erriko Etxeak *Academia de Lengua y Declamación Vasca* sortu zuanean, Alzaga jarri zuten ango zuzendari.

Egunero an aritzen omen zan paperak kopiatzen, antzezlarietara erakusten, *decoradoak* ta bear zan guztia prestatzen... Bazkaldu bezin laster, bere lan-gelara. Askotan, besoak mugitzen eta bere kasa izketan jarduten zan; bakoitzak nola egin bear zuan bere buruarekin aurretik saiatzen, alegia. Emaztea ta alabak soñekoak josten eukitzen zituan.

Maixu ona ote zan jakiteko, naikoa izango da Beorlegi, Egileor, Ugartetxea, Etxeberria, Mujika, Pepita Aramendi, Irigoien, Goikoetxea ta beste antzezlari trebe asko aren ikasle izan zirala esatea.

Zenbat antzerki-jaialdi prestatu zituan, berriz, Jaungoikoak bakarrik daki.

Akademia ortan euskera ere erakusten zuan. Zoritzarrez, ikaskizun aiek etzituan idatzi. Bañan, aren orde, bere ikasle izandako batek, Raimundo Herrero Tornadijo jaunak, egin zuan lan ori: *Estudio elemental de la gramática vasca, según las lecciones explicadas por el Profesor de Lengua y Declamación Vasca, D. Toribio de Alzaga (q. e. g. e), por un su discípulo.*

Toribio Alzaga zein idazle talde edo gizalditan sartu ditoken galdetuko du bearbada norbaitek. Erantzun erreza du orrek.

Donostian, fueroak galdu ondoren baiña Sabino Aranak Bilbotik bere politikari asiera eman aurretik, euskeraren aldeko piztuera bat izan zan. Izen batzuk eman ditzagun: Martzelino Soroa, Ramon Artola, Pepe Artola, Biktoriano Iraola, Antonio Arzak, Frantzisko Lopez-Alen. Kasal Otegi, Sanchez Irure, Alejandro Berroa, Klaudio Otaegi, Migel Antonio Iñarra, Juan Inazio Uranga, Jose Marino Arrieta. Jose Ganboa, Karmelo Etxegarai, Alfontso Maria Zabala eta abar eta abar. Baita Pedro Maria Otaño ere, Ameriketatik etorri eta atzera joan zan artean Gipuzkoako iriburuan egin zituan urteetan.

Etziran danak Donostian jaiok, baiña bai emen bizi ziranak edo emengo aldizkari eta egunkarietan beren lanak agertzen zituztenak.

Alzaga ere talde ontakoa izan zan, bere alegiña antzerkiaren alde egiñik! Bide ortan Martzelino Soroaren jarraitzalle izan zan. Orregatik, bere leenengo antzerkia argitaratu zuanean, *Aterako gera* izenekoa bera, gaur emen berriro kaleratzen deguna alegia, ari eskeiñi zion; edo-ta, garai artan esaten zutenez, *donkitu*.

*Auspoa* liburutegi au Donosti zaarreko euskal Piztuera orren emaitzak biltzen eta berriro argitara ematen aspaldian asi zan. Egille oietako batzuen idazlanekin zenbait liburu ere osatu eta atera zituan: Ramon Artola, Martzelino Soroa, Pepe Artola, Toribio Alzaga, Biktoriano Iraola, Alfontso Maria Zabala eta abarrenak alegia. Baiña iñundik laguntzarik ez eta alor ori utzi egin bear izan zuan.

Gaur, berriz, Donostiko Udalaren Euskal Patronatuak gizon oiekin zorretan dagoala ikusi du, eta laguntzeko borondatea agertu. Bai guk ere pozik

eldu gure leengo lanari. Arazo guzietan alkar artzea indarra baita.

Bere jatzera auxe izaten omen zuan Alzagak: zamarra aundi bat (chaquetón), galtza beltzak eta visera buruan. Ikasleren bat eskolan sartzean, *visera* kendu ta onela esaten zion:

- Gabon Jainkoak deigula.

Bere lan auek etzioten txolarterik uzten, eta Donostian etzuan antzerki berririk idazteko astirik izaten. Langintza ortan Aizarnan saiutzen zan geien-bat. Urtero erri ortara joaten baitzan udara igarotzera. Antzerki batzuen gaia ere bertan arkitu omen zuan.

Batean, Aizarnatik Santa Engraziko ermitara omen zijoa, seme-alabekin batera, eguna gain artan igarotzera. Bidean, ura ere betik gora, base-rritar neskatilla bat egokitu omen zan, bere asto ta guzi. Pardelak eramateko aukera oberik ezin izan zitekeala pentsatuz, Alzaga onela esaten asi omen zitzaion:

- Entzun, neskatxa: Santa Engrazira zuzen al goaz?

Bañan neskatillak zer nai zuan igerri nunbait eta onela erantzun zion:

- *No entender, no entender castellano.*

1930-eko abenduan, omenaldi bat egin zitzaion Alzagari: antzerkiak, dantzak, itzaldiak, txistulariak, bertsolariak... Baita lagunarteko bazkari bat ere. Garai artan, *Academia de Lengua y Declamación Vasca* dalako ori Garibay kalean zegoan, gaur Aurrezki Kutxa dagoan ortan, goiko bizitzan, tellatuean esate baterako. Jaialdi ori zala-ta, periodista bat goi ortara joan zitzaion, alkarrizketa bat egitera.

Zamarra lodi bat jantzita arkitu omen zuan. Oñak berotzeko, berriz, noizean bein zutitu eta pauso batzuk ara ta onera eman bear. Egunkarian

onela idatzi zuan gero periodista orrek: "Egun bateko bazkari goxoa baño, obeko luke negu guziko estufa on bat".

San Tomasetan, Joxe Bernardo Otaño, Udarregi, Pello Errota, Gaztelu, Txirrita ta abar, orduko bertsolaririk onenak alegia, kantu-lanera etortzen ziranean, Alzaga beti edo geienetan jartzen zuten epai-maian.

1901 urteko apirillaren 16-an ezkondu zan, berrogei urte betetzen zituan egunean. Andregai, Maria Pilar Fernandez Mujika andereñoa zan.

Bi seme ta iru alaba izan zituzten, bañan etzuten aiekin suerte onik izan. Beste guztiak aita bañolen il baitziran, gazteenaren aotik -Maria Luisa beraren izena- bildu genituan guk argibide auek, 1961 urte inguruan. (2)

Zarrena, Luis, jaio ta berealaxe il zan.

Bigarren mutilla, Jose Jabier, aita ber-bera omen zetorren. Oso antzerki-zalea. Pozik agertzen zan antzektokian. Ura ezagutu zuan batek, Manolo Baroja jaunak, onela zion:

-Beorlegi baño ohea zetorren.

Bañan emezortzi urterekin tifus arrapatuta il zan. Urte askoren ondoren, periodista batek onela galdetu zion aitari:

-Zein izan dezu zure denbora guziko aigaberik aundiena?

Ta Alzagak Segituan:

-Nere semearen eriotza.

Alaba bat, Maria Paz, 1918-an il zan, amasei urterekin.

1940-ko otsaillaren 14-ean, beste alaba bat il zitzaion, Maria del Coro, ogei ta amairu urterekin.

Alzaga oso zartuta zegoan ta biotzetik gaizki zebilen. Orregatik, alaba iltzera zijoanean, debekatu

nai izan zioten gaixoaren gelan sartzea. Bañan onela esan omen zuan:

- Gaurdaño etxeko eriotz guziak ikusi ditut, eta oraingo au ere ikusi egin bear det.

Oiaren ertzean jarri zan. Beste danak negarrez, eta bere alabari esaten:

-Orain zerura, Korito, orain zerura...

Urrengo egunetan, ildakoaren ama ta aizpa maiz ekiten zioten negarrari. Aitak, berriz, onela esaten zien:

- Ez dezute ondo egiten. Jaunaren borondatea alaxe izan da, ta ez dezute ondo egiten.

Bañan apalondo batean, jangelan aita bakarrik gelditu zan. Alaba bat-batean sartu ta belauniko ta negarrez arkitu zuan. Aita negarrez ikusten zuan lenengo aldia.

Urte artako martxoaren 14-ean, amagiarreba il zitzaion.

Urrengo urtean, 1941-ean, beraren txanda izan zan. Larogei urte zituan. *Asma cardiaca* zuan. Maiatzaren azken aldera zan.

Bere illoba bat, Jabier Billar, medikua izan ta uraxe zan kontu egiten ziona. Alabari onela esan zion:

- Onezkero komeniko litzake gauza guziak egitea. Alabak apaiza deitu zuan: Eusebio Astigarraga jauna. Au gaixoaren gelatik ateratzean, alabak gal-detu ta apaizak esan zion:

- Oraindik ez omen du presarik; oso ondo dagoala. Ta alabak:

-Momentu ontan bai bañan noiz nai izan deza-ke ito-aldiren bat.

Goizaldea zan eta arratsaldean beste bisita bat egingo ziola.

Illoba medikua etorri zan. Oso gaizki arkitu zuan. Alzaga oso tabako-zalea izana bazan ere, erretzea galerazita zeukan. Bañan ain gaizki ikusi zuanean, onela esan zion:

-Osaba Toribio, zigarro bat egin bear diot.

Artu ta oso gustora erre zuan. Azkenekoa izan zan. Apaiza ostera etorri zan eta gaixoarekin denbora puska bat egin zuan.

Urrengo goizean, elizakoak. Ramon Inzagarai apaiz jaunak ekarri zizkion. Onela esan zion:

-Etzitzaidan neri tokatzen: bañan, zu zeralako, neronek ekartzea nai izan det.

Eguerdi aldean lo zegoan. Bazkalondoan, gaixoak ere zerbait artu bearko zuala ta alaba aitaren gaina joan zan. Esmatu ta esan zion:

- Aita, marrubirik nai al du?

Oso zalea baitzan. Bañan orduantxe ito-aldi batek artu zuan. Apaiza ta medikua deitzeko. Etorri zirane-rako, zentzua galduta zegoan. Andik laster il zan. 1941-eko maiatzaren 27-garrena zan, eta arratsaldeko laurak. Larogei urte zituan.

(1) Antzerki auetako batzuk argitaratuak ditu *Auspoa Liburute-gia-k*: *Ramuntxo*, 1961-ean; eta *Burruntziya*, *Bernaiño'ren larriyak*. *Txibiribiri* eta *San Tomas'eko feriya*, 1963-an.

(2) Idazlan ontaz ere baliatu gera: Gabriel Zapiain: *Toribio Alza - ga y el teatro vasco (San Sebastián, año XXI, 1955.)*

**ALZAGA'TAR TORIBI JAUNAK**

IDATZITAKO

# NE SKAZAR

**IRU EKITALDI DUN  
ANTZERKIA**

EUSKO ARGITARALDARIA  
ZELAIA TA LAGUNAK  
ZARAUTZ  
1932

1923'ko Lotazillaren 21'an

Donosti'ko Antzoki Zarrean

lenengoz antzeztua



**Banaketa:**

|                                |                      |
|--------------------------------|----------------------|
| <i>Xaturdiña</i> .....         | Aramendi andereñoa   |
| <i>Andre Mikela Karmen</i> ... | Arzelus andereñoa    |
| <i>Felipatxo</i> .....         | Irigoyen andereñoa   |
| <i>Andre Pillomena</i> .....   | Usandizaga andereñoa |
| <i>Patxiku Iñixio</i> .....    | Arizmendi jauna      |
| <i>Kitolix</i> .....           | Beorlegi andereñoa   |
| <i>Pello</i> .....             | Agote andereñoa      |
| <i>Miel Anton</i> .....        | Ugartetxea andereñoa |
| <i>Morroia</i> .....           | Egilegor andereñoa   |



## LENENGO EGINTZA

*Iruditeyia, baserri bateko sukaldia; eskuitan, lenbizi. barrurako atia: urrena, baserri antzeko sukaldia; ezkerretan, lenbizi, leioa bere leiatillarekin; urrena, barrurako atia. Atzian, ate aundi bat, andik soro ta arto-sallak agiri dirala. Barruan, maia ta alkiyak. Alasa (armarioa) bere gañeko apalakin.*

### LENENGO IRUDIA

*Xaturdiña, Kanpuan, Felipatxo ta morroia.*

*(Xaturdiña mai ondoan perratxikoak txikitzen ari da. Kanpuan morroiak abestutzen du; ta Xaturdiñak entzuten asarre arpegia jartzen du.)*

*Morroia.- (Barrenen abestuaz.)*

Enpliatzen ez bada  
gazterikan neska,  
pasa bearko ditu  
makiña bat kezka.  
Burutik txoraturik  
nobiyorik ez ta,  
orra azkenerako  
neskazarren festa.

*(Atzeko atean batetik bestera, saskia bizkarrian duela, morroia igarotzen ikusten da.)*

*Xaturdiña .- (Bere artean.)* Eta mutilzar galbai orren festa zer izango dek? Arlote, maltzur, lastaida. Abestutzen duen bakoitzian, nere onetatik ateratzen nau...Ta beti abesti bera. Ni maxiatziagatik. Baña alakoren batian ez dakit zer egingo ote diyodan.

*Morroia.- (Barrenen)* Bai; or egon biar du.

*Xaturdiña.-* Nor ote da?

*Morroia.- (Barrenen)* Soroan baño, or barrenen itzalian naiago izaten du.

*Xaturdiña.-* Neregatik ari da.

*Morroia.- (Barrenen)* Bai; baña dantzan obeto daki arto-jorran baño.

*Xaturdiña.-* Petrala!

*Felipatxo.- (Barrenen)* Etzaude zu xaxi-tanbolin txarra.

*Xaturdiña.-* Felipatxo da.

## BIGARREN IRUDIA

### *Xaturdiña ta Felipatxo*

*(Felipatxo atzeko atian azaltzen da ta alkarri eltzen diote.)*

*Felipatxo.-* Xaturdiña!

*Xaturdiña.-* Felipatxo!

*Feli.-* Zure billa netorren.

*Xatur.*- Atoz aurrera, atoz. (*Biyak aurreratzen dira.*)  
 Emakumia, nola liteke zu etxe ontan ikustia?

*Feli.*- Ikusten dezun bezela.

*Xatur.*- Oso arroturik egon bear dezu.

*Feli.*- Ni? Ez ta batere.

*Xatur.*- Beriala ezkontzen zerala ta...

*Feli.*- Bai; datorren igandean det lenbiziko deia.

*Xatur.*- Ederki.

*Feli.*- Orrengatik etorri naiz zuri gauza bat galdetze-  
 ra. (1)

*Xatur.*- Nai dezun guziya. Exeri zaitte.

*Feli.*- Zutik ondo gaude.

*Xatur.*- Luzatu egin bear al dezu?

*Feli.*- Emendik aurrera azkazalak besterik ez.

*Xatur.*- Ia, bada. Zer dakartzu?

*Feli.*- Esan dizudan bezela, datorren igandian det  
 lenbiziko deia, ta egun orretan egin biar  
 det lagunen agurketa.

*Xatur.*- Oitura dan bezela.

*Feli.*- Nik gauza aben berririk ez det, gaztia bainaiz;  
 eta zuregana etorri naitzazu, gauza abetan  
 adituagua zeralako.

*Xatur.*- Gaztia zerala? Eta zer uste dezu: ni atso  
 zarren bat naizela?

*Feli.*- Ez dizut orrelakorik esan.

*Xatur.*- Gaztia bazera, nik ez diot gaztetasunari  
 agurrik egin.

*Feli.*- Ez noski.

*Xatur.*- Nere sasoia bat baño geiagok artuko luteke.

---

(1) 1932-ko argitalpenean galdetzea irakurtzen da.

*Feli.* - Artuko luteken bezela.

*Xatur.* - Ez, bada, neri orrelako zipladakin etorri.

*Feli.* - Nik ez dizut inolako zipladik egin. Esan dizudana da gauza abetan ni baño adituagoa zerala.

*Xatur.* - Ori besterik da.

*Feli.* - Gauza aben berri obeto dakizula.

*Xatur.* - Izan liteke.

*Feli.* - Eta nola iganderako lagun-agurketa eratu biar dedan, ia esaten didazun oitura nola dan eta zer egin nezaken.

*Xatur.* - Orrela dala, gogo biziz esango dizut.

*Feli.* - Zer jan-edan jarri biar diran, zeñi deitu biar zaioten...

*Xatur.* - Guziya jakingo dezu. Baña exeri gaitian.

*Feli.* - Nai dezun bezela. (*Biyak exertzen dira.*)

*Xatur.* - Zuk lagunai eman bear diezun mai-jaiari, *errepreskua* deitzen zaio. Orretarako, maia gela nagusian jarri bear dezu; ta maia, ta gela bera, oso txukun, oso apaindurik egon bear dute, eztaurreari dagokion eran.

*Feli.* - Asmua alaxe nuben.

*Xatur.* - Gero, jan-edan gayian, badira nabarmenkeri itxusiak egiten dituztenak; baña zu bezelako neskatxa panpoxa batek gauzak begirapen geiagorekin eratu bear ditu.

*Feli.* - Ala nai nuke beintzat.

*Xatur.* - Bai; asierako jarri bear dituzu okelerrak, txuletak piper morruakin.

*Feli.* - Esan didate, bai.

*Xatur.* - Orixe da jende aundikiak, jende dakitenak jartzen dutena. Ez, askok bezela, estofau ta saltsa koipetsu, lirdinga jarioak. Oiek, jende barbantzu ez dakitenean gauzak dira.

*Feli.* - Zuk esan bezela egingo det.

*Xatur.* - Edaria, bonbilla aundi xamar bat ardoz betia jarri biar dezu. Badezutela ikusi dezaten. Ez ardo asko biar dalako. Bada, dakizun bezela, ardua zanga-zanga eratia gauza itxusiya da; ta zerbait ikasitako neskatxak ez dute egiten, ez bada ezpañak onela extu egin eta ardoari muñ eman baizik. Neskatxa ondo aziyak orretan ezagutzen dira.

*Feli.* - Ondo diozu.

*Xatur.* - Urrena. gozua, dultzia. Ontatik mota asko-takuak izaten dituzu, bañan geienetan jartzen dana gerezizkoa da. Bada beste bat ere, erdaldunak aingeru-zaldia deitzen diotena, zera: *kaballo del ángel* (2)

*Feli.* - A bai!

*Xatur.* - Ortatik ere askotan jartzen da.

*Feli.* - Bai, bai; jan izan det.

*Xatur.* - Oso gozua da.

*Feli.* - Orretatik jarriko det.

*Xatur.* - Azkenik, badakizu: txokolatia. Ori gabe ez dago *errepreskorik*.

*Feli.* - Ez, bada.

*Xatur.* - Orretarako, dakizun bezela, ogi-xerrak me-miak egin bear dituzu, ta gero sutan kiskal-aldi bat eman, urre-antzian jarri arte.

*Feli.* - Badakit, bai.

*Xatur.* - Ta gero, baso ura eskonfakin.

*Feli.* - Jakiña.

*Xatur.* - Gogoan euki asieratik bakoitzari bere plater eta gañerakoak jarri bear zaizkiola. Ez, toki

---

(2) Cabello de ángel esan bearko luke.

batzuetan ikusten dan bezela, erratillo edo kaxuela bat mai gañian jarri, ta guziyak andik artu, besuak kana t'erdi luzatzen dituztela.

*Feli.*- Eta txakurra oñetan, muturra zabalduta, zerbait erortzen ote zan zai.

*Xatur.*- Oiek ez dakitenen gauzak dira. Jende bas-tuenak.

*Feli.*- Traketsenak.

*Xatur.*- Nik esan bezela egiten badezu, iñongo lotsik ez daukazu.

*Feli.*- Eta zeñi deitzen zaiote?

*Xatur.*- Lagun ezkongaiari bakarrik.

*Feli.*- Ezkondurik ez?

*Xatur.*- Ai, ez! Ezkonduak eta *kaballo del ángel* ez lirake ondo etorriko.

*Feli.*- Orduan ezkongaiari bakarrik esango diyotet.

*Xatur.*- Bai; eta, biltzen diranean, lagun guztiak beren emaitzak, beren erregaluak, azalduko dituzte.

*Feli.*- Orra...

*Xatur.*- Geienak, guztiyak ez bada ere, eskuzapiak ekarriko dizkizute.

*Feli.*- Ori betikua da.

*Xatur.*- Baña eskuzapietan ere onak eta obiak izaten dira.

*Feli.*- Noski.

*Xatur.*- Ezagutzeko, ez zaio zapiari berari begiratu biar, zintzilik daukan pleko ugariari baizik.

*Feli.*- Orra, bez...

*Xatur.*- Orretantxe dago eskuzapiaren izate guziya. Flekua izan dedilla mardula, txirikordatua, apaña... Baña batibat luzia izan dedilla. Luze izate orrek gañerako okerrak zuzentzen ditu.

*Feli.* - Entzun izan det.

*Xatur.* - Urrutiko-etxeko Domiñika ezkondu zanian,  
bera baño luziagoko plekuakin ekarri zio-  
ten eskuzapi bat.

## IRUGARREN IRUDIA

### Lenguak eta Kitolix

*(Atzeko atian azalduaz)*

*Kitolix.* - Ara or bi karnaba, kabitxoan mokoka.

*Xatur.* - Eta zapelaitza atietan.

*Feli.* - Oi! Kitolix!

*Kitolix.* - *(Aurreratuaz)* Zer zabilta, Felipatxo?

*Feli.* - Zure andregaia ikusten.

*Xatur.* - Senargaia nola etortzen ez baidan.

*Kitolix.* - Emen ez al nago, bada?

*Feli.* - Ori esan.

*Kitolix.* - Al detan guziyan emen naiz gero ta...

*Feli.* - Txinisten dizut, bai.

*Kitolix.* - Lengan ere, onera itzul egin nuelako, lau  
libra txokolate alperrik galdu zitzaizkidan.

*Xatur.* - Eta atzo arratsaldean?

*Kitolix.* - Atzo arratsaldean badakizu zergatik zan.

*Xatur.* - Beti aitzakiyak badi tuzu.

*Kitolix.* - Ez, andria. Atzo arratsaldian Santa Ixabele-  
tako meza berriya ikasten izan nitzan.

*Feli.* - Meza berriya al degu?

*Kitolix.* - Ikaragarriya. Errementerieneko Xanti  
mutur xikiñek Bitori'tik biali digu.

*Xatur.*- Orduan gauza garbiren bat izango da.

*Kitolix.*- Beñere berdiñik entzun ez dan bezelakoa.  
Orren Kyrie, orren Gloriya... gloriya bat da.  
Badu zati bat (*zalapartaka abestuaz*): *Qui tollis peccata mundi, miserere nobis.*

*Xatur.*- Zu beti Kitolix.

*Kitolix.*- *Qui tollis peccata mundi, xuxupe, xuxupe.*

*Feli.*- Zer? Len Kitolix eta orain Xuxupe?

*Xatur.*- Xuxupe ez; xoxo pe.

*Kitolix.*- Izan ere, nik abestutzeko lei bizia det. Egun guzuyan abestutzen ariko nitzake.

*Xatur.*- Kaiola batian sartu biarko zaitugu.

*Feli.*- Letxu preskuarekin.

*Kitolix.*- Organistakin ikasi ondoren, gero lanian ari naizenian, nere gisa ekiten diot, eta orrela ain egoki abestutzen det.

*Feli.*- Ezagun da, bai.

*Kitolix.*- Azkeneko San Juanetan ere, eskonfak egiten ari nitzan bitartian ikasi nuen, eta gero guztiyak ziyoten oso goxo abestu nuela.

*Feli.*- Bai noski.

*Kitolix.*- Axukriak egiten zidana.

*Xatur.*- Nola ez?

*Kitolix.*- Gogoratzen al zerate arako... (*zalapartaka abestuaz*) *Propter amorracionem tuam?*

*Feli.*- Zure andregaiari amorraritzen ez badiozu...

*Xatur.*- Bai; neri uts aundiak egiten dizkit, pekatu aundiak.

*Kitolix.*- Ori ez; ni izango naiz Kitolix, baña *peccata mundi ez.*

*Xatur.*- Zure andregaiak ez zera biar bezela gogoratzen.

*Kitolix.*- Buruan besterik ez darabilkit. Beti nere andregaiak irrikitzen.



*Xatur.*- Zu?

*Kitolix.*- Urtzen.

*Xatur.*- Urtu'?

*Kitolix.*- Urtu. bai, argizaia bezela. A! Argizaia sutan utzita etorri naiz eta onezkero kiskalduko zitzaidan.

*(Atzeko atera laisterka joaten da.)*

*Xatur.*- Orra: orain ere bazuaz itzuli.

*Kitolix.*- Argizaia gal-gal egongo da ta.

*Xatur.*- Beti ori egiten dezu.

*Kitolix.*- Kixkalduko zaidala!

*Feli.*- Zuaz, bai; ta ia lenbailen biak zorioneko bakuntzan biltzen zeraten.

*Xatur.*- *(Atzeko atetik zalapartaka.)* Amen!... [Norbaiten barrendik deitu balio bezela.] E! Argizaia kixkaltzen! *(Atzetik laisterka joaten da.)*

## LAUGARREN IRUDIA

### *Xaturdiña ta Felipatxo*

*Feli.*- Gizarajua!

*Xatur.*- Au biziera! Senargaia izateko pozez, eta senargaia galtzeko; bildurrez

*Feli.*- Ez dezu orrelako kezkek izan bear.

*Xatur.*- Ai! Ezagun da ez dezula nik aña ikusi. Zu lenbiziko senargaiarekin ezkontzen zera...

*Feli.*- Lenbizikoarekin.

*Xatur.*- Ni lenbizikoarekin ezkondu izan banitz, onezkero amonatu nitzan.

*Feli.*- Emakumia!

*Xatur.*- Lenbiziko jaunartzerako banuben nere lagun-kiria, ezkontzeko itza eman zirana.

*Feli.*- E!

*Xatur.*- Zorrontza'ko Patxi Mordollo.

*Feli.*- Gazterik asi ziñan.

*Xatur.*- Umetandik sortu zan nere buruan neskazar izateko bildurra. Ta gure Jaunari gauza bat bakarra eskatu izan diot, eta eskatzen jarraitzen diot: senar bat! Ez nazala senar bat gabe iltzen utzi!

*Feli.*- Te gure Jaun errukitsuak senarra izateko aukera eman dizula uste det. Senargaiaz, beintzat, ongi ornitua izana omen zera.

*Xatur.*- Ez da inguru abetan galtzak jazten dituen gizasemerik, nere senargai izan ez danik.

*Feli.*- Orduan...

*Xatur.*- A! Bañan, ainbesteren artian, bat bakarra da oraindik ere nere gogo ta izate guzia betetzen dituenena...

*Feli.*- Kitolix...

*Xatur.*- Bai zera! Etxezarreko Tomax.

*Feli.*- A!

*Xatur.*- Arrek bai egiaz maite ninduela! Arren niganako gogo biziya! Nere asmo guziyak asmatzen zizkidan. Nere nai guziyak betetzen zituen. Gañera, ain zan maitekorra... Etortzen zan bakoitzean, xudur muturretik eldu ta "Xa-xa" esaten zidan... Geroztik, sudurrari eltzen diodan bakoitzian, Tomax'tzaz gogoratzen naiz, eta nere burura dator "Xa-xa" maitetasunez betetako susmur pozgarri ura.

*Feli.*- Xa-xa..., xapi egin bear diezu kardaba oiei.

*Xatur.*- Tomax gizarajua Amerika'ra jua zan; eta geroztik bata bestien ondoren erriko mutil

gazte guztiyak senargai izan ditut.

Batzuek, berak utzi; bestiak, nik biali...

*Feli.*- Bai, baña azkenian ere biar bezelako senargai bat arkitu dezu. Orra non daukazun Kitolix.

*Xatur.*- Ez da Tomaz bezelakua.

*Feli.*- Zuk ala nai izan ezkeru, orrek ere xudur muturretik elduko dizu.

*Xatur.*- Bildumena bezela luzatuko lidake.

*Feli.*- Esan ere egingo lizuke "Xa-xa".

*Xatur.*- Xa-xa? Orrek ez daki esaten "xu-xupe" besterik.

*Feli.*- Nolanai ere, senargai jatorra dezu.

*Xatur.*- Orrek ere utziko ote nauen beti aidian nago.

*Feli.*- Zer utzi bear zaitu? Orretarakoxe dago bera.

*Xatur.*- Alde egiten duen bakoitzian, betiko alde egingo ote didan kezketan nago.

*Feli.*- Zer alde egin biar du? Osaba amerikano aberatsa etxian dezun bitartian ez bildurrik izan.

*Xatur.*- Zerbait nasketa sortu ote liteken: ustegabe-koren bat azaldu, berri txarren bat sortu...

*Feli.*- Ez zazula uste. Besterik ez bada, zure osabagatik ez zaitu utziko.

*Xatur.*- Ez det, ordia, nai nere osabagatik maitatzia, neregatik baizik.

*Feli.*- Ori gizonetan ezin eskatu liteke.

*Xatur.*- Orrela maite nindun Tomaxek.

*Feli.*- Tomaxek...

## BOSTGARREN IRUDIA

*Lenguak eta andre Mikela Karmen*

*(Eskuiko atetik sartuaz)*

*M. Karmen.*- Oi! Felipatxo, emen al ziñan?

*Feli.*- Bai, andria. Xaturdiñari galdera bat egitera etorri naiz.

*Xatur.*- Ezkondu bear duen onetan...

*M. Karmen.*- Neskatxa zintzoa izan zera.

*Feli.*- Eskerrik asko.

*M. Karmen.*- Gaur goizian ere, goiz asko elizan ikusi zaitut.

*Feli.*- Zazpietako mezan izan naiz.

*Xatur.*- Au beti goiztar.

*Feli.*- Ez, ba...

*M. Karmen.*- Eta adi zazu: meza eman duen apaiza berria iduritu zait.

*Feli.*- Bai, andria. Kanpotarra da.

*M. Karmen.*- Bai neri iduritu.

*Feli.*- Sorozabalen dago. Aidietakoa izan biar dute. On Jose deitzen diote.

*Xatur.*- Ez dezu berri gutxi jakin.

*Feli.*- Esan didatena.

*M. Karmen.*- Bai, bai. Bertakua ez dala ezagutu det.

*Feli.*- Ez, andria. Ta... Andre Mikela Karmen, besterik agintzen ez badu, banua.

*M. Karmen.*- Orrenbesterekin bai al zuaz?

*Feli.*- Bai, andria, Xaturdiñak jakin nai nuen guziya esan dit eta...

*Xatur.*- Eztai kontuak zituen.

*M. Karmen.*- Izan ere, orain buruauste aundiak ibi-  
lliko dituzu.

*Xatur.*- Ai! Buruauste aundiena senargaia ziur  
eukitzea da.

*M. Karmen.*- Zuretzat, beintzat, bai.

*Xatur.*- Baita beste edozeiñentzat ere Senargaiena  
egin ezkerro, gañerakoak errex antolatzen  
dira.

*Feli.*- Gañerakuak ere beren lanak ematen dituzte.

*M. Karmen.*- Bai, noski; onek uste duben baño  
geiago.

*Xatur.*- Neri senargaiak itzul egiten ez badit, beste  
egitekoak errex menperatuko ditut.

*M. Karmen.*- Birigarroren bat al da igasi juateko?

*Xatur.*- Beste buruausterik ez darabilkit: nere  
senargaiak alde egingo ote didan.

*M. Karmen.*- Txorakeriyak!

*Feli.*- Bai, noski. Ez dio alde egingo... Alde egingo  
duena, oraintxe ni izango naiz.

*Xatur.*- Lagunduko dizut.

*Feli.*- Agur, bada, andre Mikela Karmen.

*M. Karmen.*- Agur, Felipatxo, ta biziera berriyan  
zorionekoa izan zaitiala.

*Feli.*- Eskerrik asko.

*Xatur.*- Onena ikusiya dago.

*Feli.*- Zuria ere bai.

*Xatur.*- Neria oraindik aidian dabil.

*M. Karmen.*- Zure buru txorua, beintzat, bai.

*(Felipatxo ta Xaturdiña atzeko atetik juaten dira.)*

## SEIGARREN IRUDIA

Andre Mikelala Karmen ta Patxiku Iñixio

*M. Karmen.*- Gure neska, beti bezela. Ainbeste senargai izan eta bere buru txarragatik orain arte ezkondu gabe gelditu da. Ta orain ere bildur izan biar. Itxura gabeko kezka oiek burutik botatzen ez dituen bitartian, senargaia galtzeko bildurrak senargaia galdu azitzen dio. (*Ezkerreko atetik sartuaz*)

*Patxiku I.*- Emen al zera?

*M. Karmen.*- Gizona, gaur oso goiztar zabilta.

*Patxiku I.*- Bai: zazpietako meza ezkillatzen entzun nuen, eta nere buruari egin nion: ba, oraintxe izango du meza On Baldunberok...

*M. Karmen.*- Ez; zazpietako meza apaiz kanpotar batek eman du.

*Patxiku I.*- Ba On Baldunberokin egon biarra badet, eta neregan egin det: zazpietako meza eman ondoren, gosaldutako dezala lasai, eta gero ikustera juango natzaio.

*M. Karmen.*- Bañan zazpietako meza ez du On Baldunberok eman. Felipatxo emen izan da, ta berak esan dit zazpietako meza eman duena, apaiz kanpotarra, On Jose deitzen dana ta Sorozabal'en dagona, dala.

*Patxiku I.*- Iturburu'ko Txomin txotxolo orrek...

*M. Karmen.*- Aidietakua omen dute.

*Patxiku I.*- Iturburu'koak?

*M. Karmen.*- Ez: Sorozabal'goak.

*Patxiku I.*- Ba atzo Sagastiberri'n giñan. Sagardo bat asi dute... Ori bai begiyai dris-dris egi-

ten diyoten alakua. Ogeina baxo edan genituen eta bapo jarri giñan.

*M. Karmen.*- Bart arratsian ezagun zenuen. bai.

*Patxiku I.*- Eta Iturburu'ko Txomin txotxolo ori itza eta pitsa zeriyoala asi zan, orrelako sagardorik ez dala emen ezagutu. Inguma orrek ez noski; zer ezagutu biar zuen? Eta ziyo ta ziyo, neri nere iritziya atera biar.

*M. Karmen.*- Zuri? Lan ederra artu zuen.

*Patxiku I.*- Ez al naiz, ba, ni gogoratzen, gu gaztiak giñala, emen Tolaretxipi'n egin zuten sagardo batez... Ura mama! Illa pixtuko zuben. Sagastiberri'n asi dutena, bai, ederra da... Baña Tolaretxipi'ko arren antzik ere ez du, ordia. Ta Iturburu'ko Txomin txotxolo ori karraxika ta deadarka, neri bira emango ziralakoan.

*M. Karmen.*- Zer eman biar zizun!

*Patxiku I.*- Baña orain zuzenduko det. On Baldunbero ixturianta zan orduan eta alkarrekin izan giñan Tolaretxipi'ko sagardo ura edaten. Ori oso buru azkarra da ta gogoratuko da, gaur balitz bezela. Orrek dituen ixturiyuakin nola ez ba?

*M. Karmen.*- Ez du beste ezertan oldoztu biarrik izango.

*Patxiku I.*- On Baldunberok badakit zazpitan meza eman duela...

*M. Karmen.*- Bañan zazpitan...

*Patxiku I.*- Zazpitan, bai. Ez al det, ba, nik meza ezkillu entzun?

*M. Karmen.*- Ala izan biarko du, bada.

*Patxiku I.*- Bai, noski: zazpitan. Eta orain juango naiz beregana; ta Iturburu'ko Txomin txotxolo orri, belarri ertzera, bi egi esango dizkiogu.

- M. Karmen.*- Ez dabilzkizu buruauste txarrak.  
Obeto egingo zenuke zure besoetako illoba -  
ri zerbait lagunduko bazenio.
- Patxiku I.*- Xaturdiñari?
- M. Karmen.*- Xaturdiñari, bai.
- Patxiku I.*- Zer du, gero?
- M. Karmen.*- Zer izango du? Orain ere senargai bat  
baduela, ta ia onekin ezkontzen ote dan  
zerbait lagundu egin biar zenioela.
- Patxiku I.*- Begira zazu. Mikela Karmen: neskak  
ezkondu biar du, ta orretarako lanak berak  
egin ditzala. Ni, lan oietan ez sartziagatik,  
mutilzar gelditu nitzan.
- M. Karmen.*- Berak ezkondu biar du, baña...
- Patxiku I.*- Gai orretan gauza bat bakarra esango  
dizut: orain darabilkien senargai punta  
ori, dalako Kitolix ori, ez dala nere gogo-  
gogokua.
- M. Karmen.* - Begira zazu, Patxiku Iñixio neskak  
ezkondu biar du, ta bere gogua egin deza-  
la. Bere gogokua izan ezkerro, ez daukazu  
zer esanik.
- Patxiku I.*- Oraintxe ogei ta amaika eskutik egin  
didazu.
- M. Karmen.*- Bai, noski. Zuk aukeratu biar al diozu.  
ba, senargaia?
- Patxiku I.*- Aukeratu ez; baña zeorrek ere ezagutuko  
dezu, orain darabilkin senargai mataxeko  
ori ez dala egokia.
- M. Karmen.*- Mataxeko?
- Patxiku I.*- Mataxeko, bai. Salbo-ta konfiterua!  
Axukre, kaamelo ta txokolate tartian bizi  
dan gizona, zer izatia nai dezu?
- M. Karmen.*- Ori, beintzat, mutil zintzoa dala badakigu.



- Patxiku I.*- Zintzoa... Begira zazu: tripakiyai ere  
piper pixka bat ondo etortzen zaiote.
- M. Karmen.*- Eta urari eskonfa puxka bat obetoago.
- Patxiku I.*- Guzitarako maratillak badituzu.
- M. Karmen.*- Zurekin itz egingo bada, biar ere bai.
- Patxiku I.*- Gizon gizona danak, arpegi latzagua biar  
du; gizarte geiago; ogei edo ogei ta bost  
baso sagardo edaten dakiyena; biar  
danian, mozkor-aldi bat arrapatzen duena.
- M. Karmen.*- Orrelakua zu bezela mutil zar egoteko  
obia da, ezkontzeko baño.
- Patxiku I.*- Ez; axukre kozkorakin egingo dezu gizo-  
na. Ori txotxolo bat besterik ez da. Ara  
beste Iturburu'ko Txomin txotxolo arrekin  
uztarri batian jartzeko erakua.
- M. Karmen.*- Aditzia detanez, Txomin orrek ez du,  
ba, oso ur zalia izan biar; mokollo ederrak  
arrapatzen dituen susmurra da beintzat.
- Patxiku I.*- Mokollua!... Mokoliua zer dan zer daki-  
zute emakumiak?... Arrek esateko neri  
Sagastiberri'ko sagardua, nik gaztetan  
Tolaretxipi'n edan nuena baño obia dala.
- M. Karmen.*- Orra, ba: Kitolix'ek ez zizun orrelakorik  
esango.
- Patxiku I.*- Orrek al daki, ba, axukrez edo txokolatez  
bestez itz egiten?
- M. Karmen.*- Bere andregaiari noski beste zer edo  
zer esango diyo.
- Patxiku I.*- Andregaiari izan biarko du; gañerakoan,  
beintzat, txotxolokeriyak esaten eta abes-  
tutzen besterik ez daki. Abestutze orretan  
izan biar ditu bere bikaintasun guziyak.  
Juan dan igandean, bezperetan ere, a zer  
marruak atera zituen!

*M. Karmen*- Juan dan igandean, ez.

*Patxiku I.*- Juan dan igandean, bai. Ez al nintzan,  
ba. ni an bezperetan?

*M. Karmen.*- Zu izango ziñan, baña Kitolix'ik ez.

*Patxiku I.*- Bere arrantzak ondo entzun nituen, ba,  
nik.

*M. Karmen.*- Ezetz; Kitolix eta Xaturdiña alkarrekin  
joan ziran Santa Engrazi'ko erromerira.

*Patxiku I.*- Juan dan igandean al zan?

*M. Karmen.*- Juan dan igandean.

*Patxiku I.*- Zanik ere ez giñan, ba, gogoratu. Oitu  
bezela, bezperetara jua giñan, eta Kitolix  
dalako orrek bere karraxi ta marruakin iya  
gorturik utzi ginduen.

*M. Karmen.*- Oni ezetz esatia alperrik da.

*Patxiku I.*- Arrantza batzuek ateratzen zituen, bazi-  
rudien txikiratzen ari zutela.

## ZAZPIGARREN IRUDIA

### *Lenguak eta Xaturdiña*

*[Xaturdiña atzeko atetik sartzen da.]*

*Xaturdiña*- Osaba, bai al dijua?

*Patxiku I.*- On Baldumero'k zazpitan meza eman  
duela nabaitu diñat eta...

*Xatur.*- Ez, osaba: zazpitan meza eman duena,  
On Jose, apaiz kanpotar bat, da.

*M. Karmen.*- Alperrik ari zera, alaba.

*Xatur.*- Felipatxo'k ez al digu, ba, orrela esan?

*M. Karmen.*- Bai; baña zure osabari ez diozu  
buruan sartuko, ordia.

*Patxiku I.*- Iturburu'ko Txomin txotxolo orren seta  
gaxtua zapaldu biar diñat gaur.

*M. Karmen.*- Ez dago toki txarrian.

*Patxiku I.*- Gizona orren setatsua izatia!

*M. Karmen.*- Ez du zure antz aundirik.

*Patxiku I.*- On Baldunbero'k zazpitan meza eman  
du...

*Xatur.*- Ez, osaba.

*M. Karmen.*- Utzi zaiozu.

*Xatur.*- Bañan...

*Patxiku I.*- Zazpitan, bai. Ez al diñat, ba, nik meza  
ezkilla entzun!

*M. Karmen.*- Ez ezer esan, alperrik da ta.

*Patxiku I.*- Ta orain On Baldunbero'kin egon biar  
diñat eta banian, banian. Or gelditzen  
zerate biyak.

*(Atzeko ate aldera egiñaz.)*

*Xatur.*- Bijua ondo, osaba.

*(Bat-batetan atzeko atian geldituaz.)*

*Patxiku I.*- A! Eta ire senargai Kitolix dalako orri  
esan akiyon, urrengo batian juan dan  
igandian bezperetan atera zituen bezelako  
marruak ez ateratzeko.

*Xatur.*- Ez, osaba; juan dan igandian Santa Engra-  
zi'n giñan biyak.

*M. Karmen.*- Nik ere esan diyot, baña alperrik, ordia.

*Patxiku I.*- Juan dan igandian, bai.

*Xatur.*- Juan dan igandian Kitolix ez zan bezperetan.

*M. Karmen.*- Alperrik ari zera; ez dezu ezer aterako.

*Patxiku I.*- Orrek egin zituben arrantzakin, geroztik  
gorreriya zerabilkiñat belarriyetan.

*(Patxiku Iñixio atzeko aldetik juaten da.)*

*Xatur.-* Baña etzala Kitolix!

*M. Karmen.-* Orri esan edo atariko aiziari esan berdin dezu. Ez diozu orri burutik aterako.

*Xatur.-* Ori da setatsua izatea.

*M. Karmen.-* Ori da zure osaba izatia. Orrelakua izan da, ta orrelakua izan biarko du. Nuan, nuan nere egitekora.

## ZORTZIGARREN IRUDIA

*Xaturdiña; gero Pello*

*(Xaturdiña exertzen da.)*

*Xaturdiña.-* Felipatxo ezkonduko da; ta *ni* ezkonduko ote naiz? Bildurrez aidian nago. Iduritzen zait uste gabeko zerbait sortu biar ote zaidan. Kitolix ez da Tomax; ez du arren sudur muturreko teinkada xamurra; ez du arren “Xa-xa” zoragarri ura: bañan, gañerakoan, gizarajoa ondo mutil zintzoa ta txotilla da. Nik biar bezelakoa. Ezkonduta ere, orrelako senarrarekin galtzak nik izango nituke... Ezkonduta... Ezkonduko ote naiz, ordia? Zerbait gertatuko ote zaidan bildurrez aidian nago.

*(Pello atzeko atian azaltzen da. Uri-zai ta idazkizaia da. Lepotik zintzilik zorro bat dakar, eta eskuetan eskutitz bat. Artola'k dauka txistuz joaz agertzen da, ta gero ere ixil-aldi guzietan abesti bera txistua joaz jarraitzen du.)*

*Xaturdiña.*- Zer dakarzu, Pello?

*Pello.*- Ez al da emen Kitolix?

*Xatur.*- Aistiyan izan da. Zerbait al dezu?

*Pello.*- Bai; eskutitz bat. Jose Gurrutxaga? Kitolix izango da noski.

*Xatur.*- Beintzat, bere izena orixe da.

*Pello.*- Emen egongo zalakoan...

*Xatur.*- Ez dago, bada. Baña laxter etorriko da noski.

*Pello.*- Bai, e?

*Xatur.*- Ala uste det, beintzat... Eta utzi nai badezu...

*Pello.*- Obe izango det.

*Xatur.*- Etortzen danian emango diyot.

*Pello.*- Atzera ta aurrera nere onekin ibilli gabe, emen utzi biarko det. Ar zazu. (*Eskutitza Xaturdiñari ematen dio.*)

*Xatur.*- Ondo da; datorrenian emango diot. (*Alasarmarioa gañean eskutitza uzten du, ta sakeletik atera ta txakur txiki bat Pellori ematen dio.*) Tori txakur txikiya.

*Pello.*- Eskerrik asko.

*Xatur.*- Baxo erdi bat ere artuko dezu noski? (*Alasatik bonbilla bat atera, ta baso bat ardoz bete ta Pello'ri ematen dio.*)

*Pello.*- Artu egin biarko, ostiko bat baño obia izango da ta.

*Xatur.*- Ez dakit, ba; esaten dute batzuetan ostikuak baxo erdiyak baño kalte txikiyagua egiten duela.

*Pello.*- Esaerak dira oiek. (*Pellok edaten du.*) Onlako balsamorik ez da saltzen botikan. Agur, Xaturdiña. Urren arte. (*Pello, txistua juaz, atzeko atetik lasterka juaten da.*)

*Xatur.*- Nai dezun arte. (*Ixil-aldi baten ondoren.*) Kitolix'entzat eskutitza? Norena ote du?

(Alasa gañetik eskutitza artuta.) Izki, letra, gizonaekoena da: ez da emakumiena. (Eskutitza berriro alasa gañean uzten du.) Gizarajoa, badakit nik beste emakumerekin zer ikusirik ez duela. Baña, ni beste asko bezelakua banitz, orra nola senargaiaren ixillekoak jakin nezazkiken. Baña nik ez, ez... Ezkondu ezkerro, bai. Bada senar-emazteen artian ez da ixillikakorik izan biar. Baña bitartian, ez, ez... Norena ote du? Eskubetan euki ta jakin gabe gelditzia alako zer-bait iduritzen zait, ba... (Eskutitza eskuetan artuaz) Kanpotik ez da ezer igartzen... Mutur bat kenduko banio... Guk degun adiskidetasunarekin, zergatik ez? Laister ezkondu biar ta... Orrenbeste, beintzat, egin nezakela uste det... (Eskutitzari mutur bat kentzen dio.) Ez da ezer nabaitzen. Orra muturra kendu, ta alperrik. Onta ezkerro, irikitzen asi ezkerro, guziya irikitzia berdinizango da. Onenbesterekin geldituko al naiz, bada? Ez, ez. Asi ezkerro, bukatu dezagun. (Eskutitza iriki ta bi paper ateratzen ditu.) Bi paper. Bata, beintzat, galanta. Zer da au? (Irakurriaz) Jose Gurrutxaga. (Karraxi zarata bat egiñaz) E! Banekiyen! Ibañarrietako bikariyo egiten dutela! Nere senargaia bikariyo! Ainbeste Kitolix ta xuxupe erabilli, ta orra azkenian: *Dominus vobiscum!* (Alki gañera erortzen da.)

*Ezkutazapia jexten da.*

## BIGARREN EGINTZA

*(Iruditegia lenengo egintzan bezela)*

### LENENGO IRUDIA

*Andre Mikela Karmen; bereala Felipatxo*

*M. Karmen.*- Gure Jainkoak atzokoa baño egun obia eman dezaigula. Atzokoa, beintzat, txarrik bada, benetako txarra zan.

*Felipatxo.*- *(Atzetik oso larritua sartuaz.)* Andre Mikela Karmen, okerren bat al dute?

*M. Karmen.*- Bai, enetxua; orrengatik deitu dizut.

*Feli.*- Xaturdiñakin?

*M. Karmen.*- Xaturdiñarekin.

*Feli.*- Noiztik, ordia?

*M. Karmen.*- Noiztik dan ere al dakigu? Eguardiyan etzan maiera etorri; bañan nola askotan, ezer esan gabe, gure lengusuetara juan eta bertan bazkaltzen gelditzen dan, egiya esan, ez genuen aintzakotzat artu; baña gaba etorri ta apaltzeko agertu ez zanian, susmo txarrak eman zidan eta billa asi nitzan. Bere gelan arkitu nuen negarrez antsika eta malkotan urtzeko zoriyan.

*Feli.* - Kitolix'ekin zerbait izango zuen.

*M. Karmen.* - Zerbait baño geixiago ere bai.

*Feli.* - Bildur orixe zebilkien beti buruan, eta orra azkenian ere.

*M. Karmen.* - A! Baña Kitolix'ek egin diona berdiñik entzun ez dan bezelakoa da.

*Feli.* - Orrenbesteraño?

*M. Karmen.* - Egun guziyan somaketan ari ta ez zenuke asmatuko.

*Feli.* - Ez?

*M. Karmen.* - Ez da urreratu ere.

*Feli.* - Zer izan liteke, bada?

*M. Karmen.* - Esan dizut: orrelakorik ez da oraindik entzun.

*Feli.* - Arriturik uzten nau, andre Mikela Karmen.

*M. Karmen.* - Eta gu? Ez dakizu nolako gaba igaro degun.

*Feli.* - Jakiña da.

*M. Karmen.* - Izan ere, gizona esateko era batian ezkontzeko egunetara etorri ta orrek egin duena egitia, ezin txinistu litekena da.

*Feli.* - Zer gero?

*M. Karmen.* - Kitolix, entzun zazu ondo, Kitolix Iba-ñarrietako bikariyo egin dute.

*Feli.* - E? Ori ezin liteke!

*M. Karmen.* - Begira: gaurko egunian "ezin liteke" ezin esan; ta, gauza abek ikusita, gutxiyago.

*Feli.* - Ez daki, ordia, bikariyo izateko, lenbizi apaiz izan biar duela?

*M. Karmen.* - Ala esan liteke. Lenago orrela zala ondo dakit nik ere. Baña gaurko egunian ez dago lengo konturik. Guziya goikuaz bera jiratua dabil, eta orain guziya izan liteke.



*Feli.*- Ez, andre Mikela Karmen; tartian okerren bat badute.

*M. Karmen.*- Zer izan biar du? Antxen dauka Xaturdiñak agiriya garbi asko diona: Jose Gurrutxaga... Jose Gurrutxaga, e? Kitolix Ibañarrietako bikario egin dutela. Ta, gañera, beriala juateko agintzen diyote.

*Feli.*- Bañan agiri ori, nolatan Xaturdiña'ren eskuetara iritxi da?

*M. Karmen.*- Pello'k ekarri, emakumia.

*Feli.*- Pello'k?

*M. Karmen.*- Bestela, Kitolix Ibañarrietan meza ematen eta Xaturdiña berarekin ezkontzeko asmuetan jarraituko zuten. Pello'ri eskerrak.

*Feli.*- Nola, ordia?

*M. Karmen.*- Ara: Kitolix'i emateko. Xaturdiña'ri eskutitz bat utzi zion: onek jakin nai, ba, barrenen zer zegon, eta orra nondik guziya azaldu dan.

*Feli.*- Onek ez du, bada, egiyaren antz izpirik ere.

*M. Karmen.*- Ezetz? Agiriya ikusiko bazenu, ez zenuke orrelakorik esango. Ango izenpe, firma, ango sillu!... Uf! Ez da txantxetako gauza, ez!

*Feli.*- Nai dituben guziyak izango ditu, bañan emen okerren bat dutela ziur egon liteke.

*M. Karmen.*- Gure zoritxarrez, ez da ori gertatuko, ez. Bañan, baezpada ere, orrengatik deitu dizut.

*Feli.*- Eta azkenerako agertuko da.

*M. Karmen.*- Obe genuke, bada. Gu Kitolix'en aurrera ezin azaldu gintezke. Nola, ba? Nere anaiak ikusiko balu, txirtxillatuko luke. Ta orrengatik nai nuke zu beregana

juatia; ez guk agindu bagenizu bezela, zu  
zeorrez bazenijoa bezela. Kanpoan zerbait  
aitu dezula ta zer ote dan jakitera zuazela.  
Ta ia zer esaten ote dizun.

*Feli.* - Beriala juango naiz, bada.

*M. Karmen.* - Asko eskertuko dizugu.

*Feli.* - Ta ikusiko du nola naspil au argituko dan.

*M. Karmen.* - Zorigaitzez, ez zait iduritzen.

## BIGARREN IRUDIA

### *Lenguak eta Xaturdiña*

*(Xaturdiña, negar egindako itxuran eta oso asarre,  
eskuitik sartzen da.)*

*Xaturdiña.* - Esaten nizun, Felipatxo, Kitolix'ekin  
bildur nitzala; bada, azkenerako, ez dakizu  
zer egin didan.

*M. Karmen.* - Oraintxe esan diyot guziya.

*Feli.* - Bai, baña okerren bat badezute.

*Xatur.* - Okerra? Kitolix bera oker askua. Atzaparre-  
tan arrapatuko banu, ez dakit zer egingo  
niyoken.

*Feli.* - Ez dakizu, ordia, bikariyo izateko apaiz izan  
biar duela?

*Xatur.* - Begira, begira: agiriyak ez du orrelakorik  
esaten, Agiriyak garbi asko diyona da Jose  
Gurrutxaga, Kitolix, Ibañarrietako bikariyo  
egin dutela.

*Feli.* - Ori ezin liteke.

*Xatur.*- Alperrik ari zera. Zerbait bazebilkiela aspal-ditik igarria negon. Etorri ordurako, itzul egiteko aitzaki billa. Beti, eliz-abesti eta mezak gora ta bera; emengo Kitolix, ango xuxupe, besterik ez zerabilkien. Atzo're entzun zenion Santa Ixabeletarako meza berriya ikasten ari zala... Ez, Felipatxo, ez: ori meza ematen ikasten zebillen.

*M. Karmen.*- Zerbait esan liteke.

*Feli.*- Ez bezate uste.

*Xatur.*- Eta esan biar ez; gordian euki biar, ixillikan. Gu, ezer jakin gabe, ezkontzeko asmuetan; eta maltzur ori, bitartian, bikariyotarako gertutzen. Pello'ri eskerrak. Bizi guzian ez diyot ordainduko egin didan ona.

*M. Karmen.*- Bai, gizarajoa; ez daki berak zenbaterañoko laguntza eman dizun aldi ontan.

*Xatur.*- Ai! Gizon guztiak ez dira berdiñak. Etxezarrereko Tomax'i Amerikara juaan biarra etorri zitzaionian, lenbizi-lenbizi neregana neri esatera etorri zan. Amaika negar egin genuen biyok. Esaten nuen nik Kitolix ez zala Tomax bezelakua.

*Feli.*- Oiek guziaz alperrikako itzak dira, bai; ni, len esan bezela, Kitolix'ekin egotera nua.

*Xatur.*- Kitolix'engana? Ez zera juango. Ez det nai.

*M. Karmen.*- Gauza nola dan ziur jakin dezagun.

*Xatur.*- Ez, ez, ez zera juango. Bere kuxkuxian gabiltzala esan dezan? Bere ondotik gabiltzala uste dezan? Ez orixe! Ez daukagu arlote orren kutizirik.

*M. Karmen.*- Ez noski. Baña Felipatxo ez dijua gure izenian.

*Feli.*- Ni neronez nua. Zerbait jakin detala. ta gañerakoa ikasten ote detan.

*Xatur.*- Ez ta orrela ere; etzera juango; zarpail orrekin ez degu geiago naspillik nai.

*M. Karmen.*- Baña, emakumia,...

*Xatur.*- Gu juan? Ez orixe! Berak etorri biar du oraindik, buruba makur-makur eginda; bañan alperrik.

*M. Karmen.*- Bai; zera etorriko da.

*Xatur.*- Bikariyo egingo bada, nik daukadan agiriya biar du, baña ez diot emango. Orren bikariyotza nere eskuetan dago orain. Aurrian jarriko zait. baña alperrik; ez du izango.

*Feli.*- Gauza bat gogoratzen zait orain.

*M. Karmen.*- Ia, ba...

*Feli.*- Ez naiz Kitolix'engana juango.

*Xatur.*- Zer juan biar dezu! Ez genuke besterik biar.

*Feli.*- Bikariyo jaunarengana juango naiz.

*Xatur.*- Zertara, ordia?

*M. Karmen.*- Felipatxo'k diona ondo derizkiot.

*Feli.*- Iñork baño obeto bikariyo jaunak esango digu.

*Xatur.*- Bañan agiriyak beraz ez digu, ba, esaten, guk jakin nai baño're geiago?

*M. Karmen.*- Ez, ez; Felipatxo'ren asmoa oso ondo arkitzen det; eta orixe egin biar dezu.

*Feli.*- Nik uste det argiya ortik azalduko dala.

*Xatur.*- Zer azaldu biar du?...

*M. Karmen.*- Naikoa itzegin degu; ta, Felipatxo, bikariyo jaunarengana juan biar dezu.

*Xatur.*- Alperrik juango zera.

*M. Karmen.*- Ez da alperrik. (*Felipatxo'ri ate aldera bultzatuaz.*) Zuaz, zuaz, Felipatxo.

*Feli.*- Beriala emen naiz. (*Felipatxo atzeko atetik jauten da.*)

*M. Karmen.*- Eta zu zuaz zure gelara, ta barren ori lasaitu zazu.

*Xatur.*- Lasaitu? Lertu nai nuke!

*M. Karmen.*- Osasun guziya galdu biar dezu. Ez dizkiozu zure buruari orrelako tupatekuak eman biar.

*Xatur.*- Ez dakit zer egingo niyoken lotsik gabeko eskallu orri.

*M. Karmen.*- Utzi itzazu gauza oiek alde batera, ta zuaz, zuaz zure gelara.

*Xatur.*- Atzaparretan baneuka, bikariyo izateko goguak aterako nizkioke.

*M. Karmen.*- Baña, emakumia, etzaitiala orrelakua izan. Tira, tira, zuaz.

*Xatur.*- *Ai!* Ordu txarrian orrekin asi nitzan.

*(Xaiurdiña eskuiko atzetik juaten da.)*

## IRUGARREN IRUDIA

*Andre Mikela Karmen; bereala Patxiku Iñixio*

*M. Karmen.*- Gure neskak zoratu biar du, zoratu. Izan ere, beste edozer gauza izan bazan, nola edo ala antolatuko genuen. Bañan bikariyo batekin nola ezkonduko degu, bada?

*P. Iñixio.*- (1).- *(Ezkerreko atetik sartuaz.)* Au gaba! Au gaba! Ez du atzoko arratsaldearen antz aundirik izan.

*M. Karmen.*- Ez; guztiyentzat ere illun askua izan da.

---

(1) Orain arte Patxiku I. orain. berriz, P. Iñixio.

- P. Iñixio.*- Gaba illuna izatiaz ez naiz ni asko arri-  
tzen; baña emen izan diran ixkanbillak...
- M. Karmen.*- Guri gertatu zaigunarekin zerbaiteta-  
rako bazan.
- P. Iñixio.*- Txoriya baño alaiago etxera etorri ta zeñek  
esan *proste* orrekin arkitu biar nubela?
- M. Karmen.*- Guk ere ez genuen askorik uste.
- P. Iñixio.*- Sagastiberri'n giñan. Ango sagardua egu-  
netik egunera obia jartzen ari dala iduri-  
tzen zait. Alako sainetia arkitzen diot. An  
zan zera ere: Iturburuko Txomin txotxolo  
ori ere. Oitu bezela, an ari zan esaten orre-  
lako sagardorik ez dala emen ezagutu. Nik  
gaztetan Toloretzipikoa edan ez banun  
bezela.
- M. Karmen.*- On Baldonbero'k ez al zion, ba, ezer  
esan?
- P. Iñixio.*- Ez nazazula aitatu. Gizon gexak dira oiek.  
Gexak.
- M. Karmen.* Zer ba?
- P. Iñixio.*- Badakizu nola zazpietan meza eman zuen...
- M. Karmen.*- (Ezetz esatia alperrik da, ta baietz esan  
biarko.)
- P. Iñixio.*- Ba, gosaldu ta Urrutikoetxera jua omen  
zan. Ango Manuela Antoni'k egon biar du  
gaizki. Zerbait ere esan zidaten: ankian  
plemoia atera zitzaiola edo...
- M. Karmen.*- Gajua.
- P. Iñixio.*- Gure On Baldunbero arratsalde arte ez  
nuen ikusi. Esan niyon zer nai nuen, eta  
leun-leun esan zidan etzala gogoratzen. Ori  
ez gogoratzeko, ez dakit nik zertarako  
diran oien ixturiyuak eta oien jakitiak.  
Etzala gogoratzen. Xeru-xeru oietatik ez  
dezu ur garbirik aterako.

- M. Karmen.*- Ura ez, baña sagardua atera nai zenuen zuk.
- P. Iñixio.*- Utzi zagun ori alde batera. Andre Kaxilda'k bostetako bat jarri zigun... Berdiñik ez du izango erregek ere: legatz gixatua illarrakin.
- M. Karmen.*- Ez da jaki txarra.
- P. Iñixio.*- Baña nola maniatua? Ura ez legatza; eztiya zan!
- M. Karmen.*- Txinisten dizut.
- P. Iñixio.*- Alako sagardo ta alako legatzarekin neroni ere eztiya baño goxuagoa jarri nitzan, eta orrela etxian sarrera egin nuen; bañan gero, guztiyen artian, goxua jarri ninduzuten.
- M. Karmen.*- Alaxen geunden geroni ere.
- P. Iñixio.*- A zer arrikada eman zidaten!
- M. Karmen.*- Zuri?
- P. Iñixio.*- Illar aliak.
- M. Karmen.*- Nondik, ordia?
- P. Iñixio.*- Barrenen, barrenen. Zuek ikusita, nunbait barrena irakiten jarri zitzaidan, eta an zeuden illar ale guziak, di-da!, alde guziyak purrukatu biar zituztela, burruka biziyan asi zitzaizkidan. Ez dezu alako kazkabarrrik ikusi!
- M. Karmen.*- Ez ikusteko obia da.
- P. Iñixio.*- Bat bazan... Gutxienez nere ukabilla añakua izan biar zuen. Emen, bular azpi ontan, kli-kla!, kaxkateko batzuek ematen zizkidan kordia galtzeko bezelakuak.
- M. Karmen.*- Bañan nundik orren illar ale aundiak eman zizkizuten?
- P. Iñixio.*- Ez; illarra etzan alako ale aundikua; barrenen azi, aunditu ziran, sagardotan

puztuta nonbait: baña, batere gezurrik esan gabe, bat arrek nere ukabilla añakoa izan biar zuen; ta, kla-kla!, kinkiñazo batzuek ematen zizkidan.

*M. Karmen.*- Ez zeneukan danboliñ txarra dantzatzeko.

*P. Iñi xio.*- Ederki dantzatu azi ninduten. bai. Beste bat bazan... Arrek tatarra izan biar zuen, txikiya baña amorratua: klik!, eta eztarri zulo-tik itzuli egin biar. Ez dakizu zer lanak eman zizkidan. Beti ere klik-klik!, zoratzeroño.

*M. Karmen.*- Zoratu askuak geunden, bai, guztiyok ere.

*P. Iñixio.*- Gau guziya orrelaxe igaro det. Beti ere klik-klik!

*M. Karmen.*- Kli-klak? A! Zuk xapuak entzungo zenituen.

*P. Iñixio.*- Etzeuden xapo txarrak nere barrunian.

## LAUGARREN IRUDIA

### *Lenguak eta Felipatxo. Bereala Xaturdiña*

*(Felipatxo atzeko atetik sartzen da.)*

*Felipatxo.*- Emen naiz ni.

*M. Karmen.*- Ta... zer berri dakartzu?

*Feli.*- Bikariyo jaunak egin dituan algarak!

*M. Karmen.*- Alajaña! Ez dio guri aña buruauste eman.

*Feli.*- Parrez, lertzeko zoriyan, utzi det.

*M. Karmen.*- Guk baño parregure geiago dauka.

*(Xaturdiña eskuitik sartzen da.)*



*Xatur.*- Zer esan dizu?

*Feli.*- Ibañarrietako bikariyo izendatu dutena ez dala Kitolix.

*Xatur.*- Agiriak garbi asko esaten du, bada, dala: Jose Gurrutxaga.

*Feli.*- Ez du, ordia, Kitolix danik esaten.

*Xatur.*- Eta Kitolix ez al da Jose Gurrutxaga?

*Feli.*- Bai noski. Bada, ordia, Jose Gurrutxaga Kitolix ez dana.

*Xatur.*- Nik dakitenik ez.

*Feli.*- (*M. Karmen*'i) Nola atzo zazpitan meza eman zuen apaiz kanpotar batek?

*M. Karmen.*- (*P. Iñixio*'ri begiratu ondoren) Bai.

*Feli.*- Esan nioten Sorozabalen zegola, ta On Jose deitzen zala.

*M. Karmen.*- Bai, bai.

*Feli.*- Ba, On Jose ori da: On Jose Gurrutxaga.

*M. Karmen.*- Emakumia!

*Feli.*- Ta ori da Ibañarrietako bikariyo izendatua dana ta bere Bitoriko lagun bat, On Ramon Mendiburu, esana zeukan agiriya bialtzeko.

*Xatur.*- Eskutitzak izenpe ori bera dauka: Ramon Mendiburu.

*Feli.*- Bai noski.

*M. Karmen.*- Eta Pello txoro ori nora begira zegoen paper oiek onera ekartzeko?

*Xatur.*- Orretzek naspilla guziyak sortu ditu.

*P. Iñixio.*- Esaten nizuten nik.

*M. Karmen.*- Pello kirten ori izan ez bazan, ez genuen igaro degun bezelako gaba igaroko. Arrapatzen detan tokian arrotu biar det.

*Xatur.*- Ori da etxe guziya nastutu diguna. Txiki--txiki egingo nuke.

*P. Iñixio.*- Esaten nizuten nik...

*M. Karmen.*- Zer esan biar zenuen?... Zure illar alia-kin bazeneukan lana naikoa.

*P. Iñixio.*- Bañan ez dezute ikusten, ordia, ori bika-riyo egin ezkerero, ni aita santu egingo nin-dutekela?

*M. Karmen.*- Gauza oiek lenago, lenago esan biar ziran.

*Feli.*- Emen izan dan oker au ez da asko arritzekua. Ainbeste Gurrutxaga da!

*M. Karmen.*- Ta ainbeste Jose!

*P. Iñixio.*- Ortatik bai, ortatik. Nik agindu biar banu, Tiburtxio, Erromaldo, Ploentino ta orrelakoak jarri aziko nituke. Ez litzake orain bezelako nasketik izango.

*Xatur.*- Baña, nasketa izanda ere, apaiz jaun ori Kitolix'ekin nastu bazuen ere, zergatik Pello'k, Kitolix berari eraman ez zion, eta ez onera ekarri?

*P. Iñixio.*- Bazekiñan Pello'k zer egiten zuen. Ik ardua emango iñonan?

*Xatur.*- Ez niyon eman biar; baña ala eman niyon, bai.

*P. Iñixio.*- Bai, noski. Emen ardua: ta Kitolix'engana juan balitz, eskonfa ta ura. Txorua den Pello ori egiteko.

*M. Karmen.*- Bai, ta ortik etorri dira emengo katra-milla guziyak.

*Xatur.*- Nasketa guziyak orregatitxe izan dira.

*P. Iñixio.*- Bai; baña azkeneko nasketak, azkeneko katramillak, oiek izango dira; ez degu geia-go ixkanbillik biar; ez nago ni berriz illar aliakin burrukan asitzeko. Ta orretarako, beriala, ona bere-beriala ezkondu egin bear dezute. Beriala gero!

*M. Karmen.*- Ederki esana. Iritzi berekoa naiz. Ezin beti kezketan biziko gera. Ta ala, geiago itxogon gabe, datorren illian ezkondu egin biar dezute.

*P. Iñixio.*- Zer datorren illian? Biar bertan!

*(Iru emakumeak ezin txanda arturik itzegiten dute.)*

*M. Karmen.*- Ori ezin liteke, ordia.

*Xatur.*- Nola nai du, bada?

*Feli.*- Ezin da orren azkar.

*M. Karmen.*- Biyarko ezin gertu giñezke

*Xatur.*- Guziya egiteko ta nola bada?

*Feli.*- Ez dago astirik.

*P. Iñixio.*- Biyar, bada; biyar bertan ezkondu biar dezute.

*M. Karmen.*- Ezin litekela. Ez dezu ezagutzen?

*Xatur.*- Ezertarako betik ez dagola.

*M. Karmen.*- Tira, tira, nik au erabakiko det. Ezkonduko zerate datorren astian.

*P. Iñixio.*- Datorren astian? Ez, ez; biyar bertan.

*Feli.*- Biyar ezin izango da.

*Xatur.*- Ezer egiñik ez ta nola?

*M. Karmen.*- Gauza abek abotik ortzera egiten dirala uste al dezu?

*Xatur.*- Bikariyo jaunak ere ez du naiko.

*P. Iñixio.*- A! Bikariyorena zuk egingo dezu. Felipa -txo, len ere izan zera ta...

*Feli.*- Ostera juateko gelditu naiz. Agiri ori eramango detala agindu diot.

*Xatur.*- Beriala ekarriko dizut. Ez det geiago nere eskuetan ikusi nai. *(Xaturdiña eskuitatik juaten da.)*

*P. Iñixio.*- Bikarioari esaiozu bigar ezkondu biar dutela.

- Feli.*- Zail xamarra iduritzen zait.
- M. Karmen.*- Gaurtik bigarrera nola, bada?
- P. Iñixio.*- Biyar.
- Feli.*- Ez dakit egin ote liteken ere.
- M. Karmen.*- Nola, bada? Ta, ala izanda ere, gañerakuak gañerako dirala, nola antolatu biar degu etxia? Nola bazkariya jarri?
- P. Iñixio.*- Orretaz etzaitez kardabatu. Sagastiberri'n bazkalduko degu.
- M. Karmen.*- Guzitarako badezu antolapena.
- P. Iñixio.*- Ikusiko dezute zer sagardotxo. Ori bainik gaztetan Tolaretxipin edan nuena, ori ez bezelakua zan. Bañan edan liteke, edan liteke. Badu alako sainete bat, zoragarriya.
- M. Karmen.*- Sainetez lenago ere ondo gaude.
- P. Iñixio.*- Andre Kaxilda'ri esango diogu jartzeko... legatz gixatua illarrakin. Ikusiko dezute zer mauka.
- M. Karmen.*- Bai; ta zu bezela gabiltzan gero illar aliakin burrukan.
- P. Iñixio.*- Ez; andre Kaxilda'ri esango diot aukeratzeko illar ale txotillenak, txepelenak. Bart arratsian nik nituenak oso arroxkuak ziran. Eztarri zulotik itzul egin nairik zebillen ura... beti klik eta klik. Arek xaldibitarra izan biar zuben!
- M. Karmen.*- Bañan bigar ezkontza izateko, ori ezin dan gauza dala, zeorrek ere ezagutu biar dezu.
- P. Iñixio.*- Bigar izango da, bada; bigar.
- M. Karmen.*- Nola nai dezu, ordia?
- Feli.*- Ez dakit izan ote liteken.
- M. Karmen.*- Nola, ba? Kitolix'ek ere ez daki oraindik ezer; eta, Jaungoikoaren izenian, nola biyarko gertu jarri?

*P. Iñixio.*- Kitolix'ena utzi zazute nere gain; orrekikua nik egingo det. (*Alde guzietam begiratuaz*) Morroia non ote da?

*M. Karmen.*- Beko sorora juana da.

*P. Iñixio.*- Zuazkio, ba, dijuala Kitolix'engana, ta arrekin egon biar detala, ta datorrela bere-ala. Bereala gero!

*M. Karmen.*- Dijuala ta datorrela, ta orrekin antolatzen dezu zuk guziya.

*P. Iñixio.*- Zu zuaz, bai; datorrela ura azkar, ta gañerakoa nere gain utzi.

*M. Karmen.*- Au, ezin litezken gauzakin baztarrak nastutzia da.

*P. Iñixio.*- Zuaz zu, bai...

*M. Karmen.*- Juango naiz, baña alperrik.

*P. Iñixio.*- Zuaz, beintzat.

*M. Karmen.*- Au gizona! (*M. Karmen atzetik juaten da*)

*P. Iñixio.*- Eta bikariyo jaunari esaiozu nik esan detala, ta ezkontza bigar bertan biar degula.

*Feli.*- Ez dakit egin ote liteken...

(*Xaturdiña eskuitatik sartzten da, ta agiri ta eskutitza Felipatxori ematen dizkio.*)

*Xatur.*- Torizu zoritxarreko agiria. Beñere nere begien aurrian agertu ez balitz, obe izango zan.

*Feli.*- Beriala eramango diot.

*Xatur.*- Eta beorrek ezagutuko zuen noski bigar ezkontze ori ezin liteken gauza dala. Ezer gerturik ez daukagu. Guziya egiteko dago.

*P. Iñixio.*- Bai, bai...

*Xatur.*- Elizara juango banaiz ere, soñekorik ez daukat. Ez du noski usteko, nagon bezela, sukaldeko mantalarekin ezkontzera juango naizenik?

- P. Iñixio.*- Ori... nai den bezela; bañan bigar izango den ezkontza.
- Xatur.*- Bañan, besterik ez bada're, ezkontzera jua-teko soñekua nondik sortu biar det?
- P. Iñixio.*- Ori ire egitekoa den.
- Xatur.*- Soñekoa nork emango didala uste du?
- P. Iñixio.*- Neria nai baden, galtza berriyak, bein bakarrik ibiliyak, or zeukazkiñat.
- Xatur.*- Baita zera ere.
- Feli.*- Soñekuena besterik ez balitz, antolatu litekela uste det.
- P. Iñixio.*- Bai noski.
- Feli.*- Nik, nere ezkontzarako, soñeko ta gañera-kuak eratuak daukazkit, eta biyarkua egi-teko emango nizkizuke.
- Xatur.*- Txikiegi izango ditut, ordia.
- Feli.*- Ez dio ajolik. Nere amak erropa guziak kana laurdeneko alortzakin egin azi dizkit; eta, ala nai izan ezkerro, gaur arratsaldean bertan luzatu genitzazke.
- P. Iñixio.*- Ori nolanai're antolatuko dezute. Orain egin biar dana bikariokikua da. Zuaz, Feli-patxo, ta esaiozu bigar bertan biar degula ezkontza.
- Feli.*- Nik ori esango diyot, baña ez dakit...
- P. Iñixio.*- Bai, bai: esaiozu, Nai ta nai ez, bigar bertan biar degula. Nik esan detela.
- Feli.*- Banua, ba. Gero arte. (*Felipatxo atzeko atetik juaten da.*)
- P. Iñixio.*- Zuaz, bai. (*Xaturdiña'ri*) Eta i, gerora begira egon gabe, egin biar dana egiten asi adi.
- Xatur.*- Gaurtik bigarrera ez dakit zer egin nezaken ere. (*Xaturdiña eskuitatik juaten da.*)

*P. Iñixio.*- Gerorako ez utzi, beintzat.

*(M. Karmen atzeko atian azaltzen da.)*

*M. Karmen.*- Emen dator Kitolix.

*P. Iñixio.*- Orrekikoa nik egingo det; eta, azkeneko ordura itxagon gabe, lanak aurreratzen juan.

*M. Karmen.*- Azkeneko ordua ta aurrenekoa urrian izango ditugula iduritzen zait.

*P. Iñixio.*- Ta, geldirik bagaude, urreago.

*M. Karmen.*- Nondik asi ere ez dakit. *(Eskuiko atetik juaten da.)*

*P. Iñixio.*- Asieratik.

## BOSTGARREN IRUDIA

### *Patxiku Iñixio ta Kitolix*

*(Kitolix atzeko atean azaltzen da.)*

*Kitolix.*- Gabon... eo... egun on.

*P. Iñixio.*- Ator aurrera. Irekin itzegin biar diat.

*Kitolix.*- Bai, jauna. Oraintxe esan didate; ta kame-luak egiten ari nitzan, ta guziya utzi ta etorri naiz.

*P. Iñixio.*- (Orain ere goxotan, euliyak bezela.) Exeri adi. *(Alki bat eskeintzen dio, ta bera beste baten exertzen da.)*

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai.

*P. Iñixio.*- Gauza bat esan biar diat... *(Kitolix'ek alkiya ez du ondo artzen eta lurrera erortzen da.)*

*Kitolix.*- Ai!

*P. Iñixio.*- Makil gexoxko gixon abek exerita ere ezin egon dira.

*Kitolix.*- Alkiari okerreko tokitik eldu diot eta...

*P. Iñixio.*- Mataxa izan bazan, elduko iyokan obeto.

*Kitolix.*- Bai, jauna, oitua nago ta.

*P. Iñixio.*- Entzun zak, ba: etxe ontan berriketa aundiyak ibilli dizkitek.

*Kitolix.*- Nigaz?

*P. Iñixio.*- Igaz, bai.

*Kitolix.*- Oi! Ez nekien ezer ere.

*P. Iñixio.*- Baña ik noski ez dek esan naiko: *Dominus bobiskun.*

*Kitolix.*- Nik ez. Nik bakarrik: *et kun expirito tuo.*

*P. Iñixio.*- (*Ixildu aziaz*) Ooo! Ez zakala orrelako arrantzik egin. Juan dan igandian, bezperetan, atera itukan marruakin, gorreriya zeukat belarri batian.

*Kitolix.*- Juan dan igandian, ez.

*P. Iñixio.*- Juan dan igandian, bai.

*Kitolix.*- Santa Engrazi'n giñan...

*P. Iñixio.*- Zer Santa Engrazi'n! Ez al nindukan, ba, ni an!

*Kitolix.*- (Ematen, egin biarko,)

*P. Iñixio.*- Entzun zak, ba. Ik noski Xaturdiña'kin ezkontzeko asmoa izango dek?

*Kitolix.*- Beste ametsik ez dabilkit: noiz izango naitzen Xaturdiña'ren senar zorientzua!

*P. Iñixio.*- Beriala.

*Kitolix.*- Baña, badaki, orretarako ez det oraindik ezer egin. Esaten didate gauzak bildumena bezela luzatzen ditudala; ta ala, oraindik ezer egin ez det.

*P. Iñixio.*- Dana egiña zio.

*Kitolix.*- Dana?

*P. Iñixio.*- Dana, bai.

*Kitolix.*- Oi! Nork egin du, bada?



*P. Iñixio.* - Nik.

*Kitolix.* - Ez nekien ezer ere: asko eskertzen diot.

*P. Iñixio.* - Dana egiña ziok. Ezkondu besterik ez daukazute

*Kitolix.* - Bai, bai.

*P. Iñixio.* - Eta ezkonduko zerate... bigar.

*Kitolix.* - E! (*Kitolix larriyakín alkitik erortzen da.*)

*P. Iñixio.* - Ara beste txepela berriz. Ezkontzeko're alkitik erori biar.

*Kitolix.* - Baña bigar...

*P. Iñixio.* - Bigar, bai; bigar bertan.

*Kitolix.* - Orra, ba: bigar libran bikuak eta libran irukuak eta iru laurdeneko kandelak egin biar nituen.

*P. Iñixio.* - Zer kandel...

*Kitolix.* - Bost errialeko txokolatia ere aitu zaigu, ta bigar libra batzuek egiteko asmoa nuen.

*P. Iñixio.* - Bigar ez ziok ez kandelik, ez txokolaterik ta ez axukre koxkorrik.

*Kitolix.* - Kandela oietzek biar-biarrekuak nituen, bada.

*P. Iñixio.* - Ez ta batere.

*Kitolix.* - Gañera, jantzirik ere ez daukat.

*P. Iñixio.* - Larru gorriyan ibiltzen al aiz?

*Kitolix.* - Jantzi apain bat egiteko asmua banuen, baña oraindik ez det agindu.

*P. Iñixio.* - Ez ta biar ere.

*Kitolix.* - A! Ta, ain xuxen, oñetakuak ere atzo eram nituen biboterak jartzera.

*P. Iñixio.* - Bibotiak edo biboterak etziak neri ajolik.

*Kitolix.* - Eta bigarko ez dizkidate jarriko.

*P. Iñixio.* - Utzi itzik alde batera oñetakuak eta burukuak, txokolatiak eta axukre koxkorrak.

Bigar ik lan bat bakar-bakarra egin biar dek: ezkondu.

*Kitolix.* - Ezkondu?

*P. Iñixio.* - Ezkondu, bai. Gañerako guziya egiña zio.

*Kitolix.* - Guziya?

*P. Iñixio.* - Guziya, bai. Bazkariya Sagastiberri'n izango diagu. Andre Kaxilda'k jarriko ziu legatz gixatua illarrakin. Ura jatian esango nak zer diran zuen kaamelo, matax eta zikinkeri oiek guziyak.

*Kitolix.* - Barrena goxatzeko..

*P. Iñixio.* - Barrena loitzeko. Gero edango dek sagardo bat... ura mama! Ori bai: nik gaztetan Tolaretxipi'n edan nuena ori ez bezelakua ukan. Gure gaztetan bezelako sagardorik ez ditek orain egiten.

*Kitolix.* - Orra, beaz..

*P. Iñixio.* - Bañan Sagastiberri'n daukatena ere, aspaldiyan izan ez dan bezelakua dek. Ta ik ere gizon antza artzen asi biar dek. Ezin egongo aiz beti eskonfa tartian sartuta. Ezkondu ezkeru, batek gizon itxura artu biar dik. Sagarduak egiten dik gizona.

*Kitolix.* - Sagarduak?

*P. Iñixio.* - Bai; ta ik, gizon itxura artuko badek, ogei ta bost, ogei ta amar baxo ziplatu biar dituk.

*Kitolix.* - (Aguaruba naizela baleki!) Bai, jauna, bai.

Buru guziya nastuko zait, ordia.

*P. Iñixio.* - Ta zer? Mokollo bat arrapatuta're, ez zio ajolik. Mokolloak ere gizonentzako sortuak dituk. Eskonfa ta urakin ez dek noski arrapatuko; baña sagarduakin bai, gizonak bezela edan ezkeru. Ta ik gizonak bezela edan biar dek.

*Kitolix.* - Bai, jauna, bai. Gizonak bezela edan eta umiak bezela mozkortu.

*P. Iñixio.*- Eta orrelakuan, pixka bat berdoztuta etxeratzen aizenian, zalaparta batzuek ateratzia; alki edo tresna batzuek purrukatzia; plater batzuek txirtxillatzia... Oiek ere gizonen egitekuak dituk.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai. Ta emaztiaren egitekoa, berriz, karraxi egitea.

*P. Iñixio.*- Karraxi asko egiten badu, sudurra zanpatu.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai. (Zer gauzak erakusten diz-kidan! Ameriketara izana dala ezagun du.)

*P. Iñixio.*- Amagiarrebak ere, badakik, oso gaxiuek izaten dituk.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai.

*P. Iñixio.*- Ik izango dekana ere, ez nere arreba dala-ko, baña zipotza dek.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai.

*P. Iñixio.*- Oso zipotza.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai.

*P. Iñixio.*- Ta orri ere, tartian sartzen bada, begion-doko bat eman biar diok.

*Kitolix.*- Bai, jauna, bai.

*(P. Iñixio, oso erneatua, bat-batean, asarre bizian zutik jartzen da. Kitolix ere altxalzen da.)*

*P. Iñixio.*- Iri bai nik begi ondua ta begiya bera zanpatuko dizkiatela, txatxu, txepel, ñañu, ergel, inguma!

*Kitolix.*- Baña...

*P. Iñixio.*- Erneatu azi nak oraintxe, ire *bai, jauna* ta *bai, jauna*'kin.

*Kitolix.*- Baña...

*P. Iñixio.*- Gizonak ez dik beti *bai, jauna* ta *bai, jauna esan biar*.

*Kifolix.*- Nik, ordia...

*P. Iñixio.*- Gizona dan gizonak, noizbait ere ezetz esan biar dik.

*Kitolix.*- Nik uste nuen.. .

*P. Iñixio.*- Ume madarikatua!... Amorrazi nau bere *bai, jauna ta bai, jauna*'rekin. (*P. Iñixio ezkerreko ate aldera juaten da.*)

*Kitolix.*- Nola beorrek.. .

*P. Iñixio.*- Gizonak noizbait ere ezetz esan biar dik.

*Kitolix.*- Nik, ordia...

## SEIGARREN IRUDIA

*Lengoak, andre Mikela eta Xaturdiña.  
Gero Felipatxo.*

*P. Iñixio.*- Entzun dek: ezetz, ezetz. (*Ezkerreko atetik*)

*M. Karmen.*- Ezetz? (*Eskuiko atean azalduaz*)

*P. Iñixio.*- Ezetz, bai, ezetz. (*P. Iñixio ezkerreko atetik juaten da.*)

*Xaturdiña.*- (*Xaturdiña eskuiko atean azaltzen da.*)  
Ezetz?

*Kitolix.*- Ezetz!

*M. Karmen.*- E?

*Xaturdiña.*- E?

*Kitolix.*- Baietz. Ezetz-baietz. Baietz-ezetz. Zer esaten dedan ere ez dakit oraintxe.

*M. Karmen.*- Zer dizkiozu, gizona?

*Xatur.*- Zer nasketak dira abek?

*Kitolix.*- Ara: orain beste gauza batez ari giñan izketan: bañan, galdetu didanian bigar Xaturdiña'kin ezkonduko naizen, erantzun diot garbi ta jator...

*Feli.* - (Atzeko atetik sartuaz) Ezetz.

*Kitolix.* Baietz.

*Feli.* - Ezetz.

*Kitolix.* - Baietz.

*Feli.* - Bigar ezin dala.

*Kitolix.* - E?

*M. Karmen.* - A!

*Xatur.* - A!

*Feli.* - Bikariyo jaunak esan du, lasterrena dala, etzi izan biarko duela.

*Kitolix.* - Ederki. Orrela dala, bigar libran bikuak, libran irukuak eta iru laurdeneko kandelak egin nezazkike.

*M. Karmen.* - Bai; zure kandelai begira egongo gera.

*Kitolix.* - Bost errialeko txokolatiak ere bai.

*Xatur.* - Baita arditeko mataxak ere.

*Kitolix:* A! Ta, gañera, etzirako biboterak jarriko dizkidate.

*Xatur.* - Bai; sudur muturrian jarriko dizkizute.

*M. Karmen.* - Ez da ori, gizona. Atzeratze ori guztiyentzat ere obe izango litzake; bañan, nere anaiari bein gauza bat buruan jarri ezker, beriarekin atera naiko du.

*Xatur.* - Ori, ba. Bigar izan biar dala kaskuan sartu zaio, ta bigar izan biarko degu.

*Feli.* - Ezin bada, ordia...

*M. Karmen.* - Ori ez da orrenbesterekin geldituko.

*Xatur.* - Ez orixe.

*M. Karmen.* - Orrek beria biarko du.

*Xatur.* - Ez du besterik naiko.

*M. Karmen.* - Ta bikariyo jaunarengana berriz janz biarko dezu.

*Feli.* - Nola, ordia?

*Xatur.* - Felipatxo, nai ta nai ez jua biarko dezu.

*Feli.* - Bañan len ezetz esanta, nola nai dezute?

*Kitolix.* - Neroni juango naiz.

*Xatur.* - Izan ere, bikariyo jaunarekin, adiskidetasun aundiyak dituzu zuk.

*M. Karmen.* - Iñork baño obeto, zeorrek egin zenezake ori.

*Kitolix.* - Banua, ba; ta ikusiko dute nola baietza ateratzen diyodan.

*M. Karmen.* - Azkar ibilli gero.

*Kitolix.* - Juan ta etorri. (*Atzeko atetik lasterka jua-ten da.*)

## ZAZPIGARREN IRUDIA

*Andre Mikela Karmen, Xaturdiña ta Felipatxo*

*Felipatxo.* - Bikariyo jaunak oso ondo artu nau.

*M. Karmen.* - Orra, beaz.

*Feli.* - Ezin obeto.

*Xatur.* - Beti da orrelako atsegiña.

*M. Karmen.* - Eta guri digun begirapen eta onginaia?

*Xatur.* - Ori bai; beñere ez diogu biar bezela eskertuko.

*M. Karmen.* - Berez dezu orrelakua.

*Xatur.* - On utsa.

*Feli.* - Esan dit, alegiya, Patxiku Iñixio ondo ezagutzen duela.

*Xatur.* - Ezagutuko ez du, bada?

*M. Karmen.* - Bai aspalditxotik ere.

*Feli.* - Zeñen setatsua dan badakiela...

*M. Karmen.*- Erri guzian ere bai.

*Xatur.*- Nork ez daki, ba, ori?

*Feli.*- Eta bigar ezkontze ori buruan sartu bazaio,  
beriarekin atera naiko duela badakiela.

*M. Karmen.*- Orixe dizu nere anaiak: kaskatsua.

*Xatur.*- Setatsua.

*M. Karmen.*- Buru gogorra.

*Xatur.*- Gañerakoan ez da orrela.

*M. Karmen.*- Gañerakoan ogi puska bat da.

*Xatur.*- On utsa.

*M. Karmen.*- Belarritik eldu ta noranai eraman lite-  
kena.

*Xatur.*- Sagardotegi aldera bada, beintzat, belarritik  
eldu gabe're bai.

*M. Karmen.*- Ori bai: bere txurruta eta lagun artia  
ez ditu ezerengatik utziko.

*Feli.*- Bada, esan dit bere aldetik al duen guziya  
egingo duela.

*Xatur.*- Gizarajoa.

*M. Karmen.*- Ikusten zer nai ona.

*Xatur.*- Ori bai dala ezin ta obia izatia.

*M. Karmen.*- Onez ori? Beste bat ez bezelakua.

*Feli.*- Nola ezkondu biar duten biyak errikuak  
diran, eta ondo ezagutzen dituenak. pape-  
rena errez zuzenduko dala esan dit.

*M. Karmen.*- Ikusten danez, al diran errextasun  
guziak eman nai dizkigu.

*Feli.*- Bere aldetik, bai.

*Xatur.*- Zer geiago egingo du, bada?

*M. Karmen.*- Bai, bai. Ez da emen Pruentxi gajoari  
gertatu zitzaionik gertatuko.

*Feli.*- Zer, ba?

- M. Karmen.*- Amerikano batekin ezkontzeko, pape-  
rak zuzentzen asi zan eta bera iltako zor-  
tzigarren egunian eramán zizkioten.
- Xatur.*- Beste norbaitentzat ondo etorriko al ziran.
- M. Karmen.*- Pruentxi gajuak, beintzat, alperrik izan  
zituen.
- Feli.*- Bada, esan bezela, paperena errex egingo omen  
da: ta deiena're antolatuko dala esan du.
- Xatur.*- Zuk esan dezuna: orren aldetik, guziya.
- M. Karmen.*- Bai, bai: alegiñak egiten dituela eza-  
gun da.
- Xaturdiña.*- Berak nai lukeala ere bai.
- M. Karmen.*- Bere naia ondo ikusiya dago.
- Feli.*- Neroni aurrian nagola, Bitori'ra partia jo du.
- M. Karmen.*- Ikusten zer azkar ibilli dan.
- Xatur.*- Ez du, beintzat, askok bezela, gerorako utzi.
- Feli.*- Bañan, ziyon, alegiya, Bitoriyan ez dirala  
parte orren zai egongo, abotik ortzera  
erantzupena bialtzeko.
- Xatur.*- Orren laster ezin.
- M. Karmen.*- Eta guk orren laster biar.
- Feli.*- Erantzupenak luzatu lezakela; partia Bitori'tik  
etortziak gauza atzeratuko duela: ta, bere  
iritzian, ezkontza, lasterrena ere, etzi izan  
biarko dala.
- M. Karmen.*- Eta partien zai egoteko ordez Illuntegiko  
Ximon baimenaren billa Bitori'ra bialduko  
bagenu, ez al litzake lasterrago etorriko?
- Xatur.*- Partia baño azkarrago?
- Felipatxo.*- Ez, andre Mikela Karmen: ez.
- M. Karmen.*- Ez dakit, ba. Zuek nai dezutena esan-  
go dezute; baña mutil ori, aditzia detanez,  
ikaragarritzko lasterkalaria omen da. Txi-



mista baño azkarrago ibiltzen dala aditu izan det.

*Xaturdiña.*- Esanak dira oiek.

*Felipatxa.*- Partia baño azkarrago ezin iñola ere.

*M. Karmen.*- Ta orrek uts egiten badigu?

*Feli.*- Badaki... gutxienaz etzi arte itxogon biar.

*M. Karmen.*- Nere anaiak ez du, ordia, naiko.

*Xaturdiña.*- Ori ba; osaba ez da beretik aterako.

*Felipatxo.*- Ta zer egingo da?

*M. Karmen.*- Ikusi dezagun, beintzat, Kitolix'ek zer berri dakarren.

*Feli.*- Kitolix'ek ekarriko duen berriya, jakiña: ezetz.

*M. Karmen.*- Ezetz?

*Xaturdiña.*- Ezetz?

## ZORTZIGARREN IRUDIA

### *Lenguak eta Kitolix; gero Patxiku Iñixio*

*Kitolix.*- Baietz! (*Atzeko atetik lasterka sartuaz.*)

*Irurak.*- E!

*Felipatxo.*- Arritzen naiz.

*Kitolix.*- Bikariyo jaunari esan diyot: "Ni bigar ezkontzen ez banau, Santa Ixabeletan

*Agnus Dei* Kitolix gabe biarko du". "Ta, ain xuxen, ordubantxe ekarri diote Bitori'ko partia baiezkoakin.

*Feli.*- Azkar ibilli dira.

*Xatur.*- Illuntegi'ko Ximon baño azkarrago.

*M. Karmen.*- Esan badet, esan det, bada.

*Kitolix.*- Eta, ala, bikariyo jaunak esan du ezkontza izango degula bigar zazpian.

*Feli.*- Zazpieran, e?

*Kitolix.*- Bai; zazpieran.

*Xatur.*- Orratx: orain ere osaba beriarekin atera da.

*M. Karmen.*- Ori beti.

*Kitolix.*- Bidez, bikariyo jaunari oñetakoak eskatu dizkiot. Eta agindu dizkit zapata batzuek. politaguak... berri-berriak. beltz-beltzak eta kirrin-kirrin-kirrin soñua egiten dutenak.

*Xatur.*- E? Ez naiz ni bikariyoaren zapatakin ezkonduko.

*Kitolix.*- Bikariyoaren zapatakin ez; bañan nerekin bai, ordia.

*Xatur.*- Bikarioaren zapatak badaramazkizu, ez. Zer? Len bikariyo egin biar zindutela, ta orain bikario zapatak jarri biar dituzula? Ez! Ez!

*Kitolix.*- Nola nai dezu, ba, neriak biboterak jartzen ditut eta?

*Feli.*- Beste norbaiti eskatu.

*Kitolix.*- Errian diran gizaseme guztien, oñetakuak buruan darabilzkit.

*M. Karmen.*- Oñetakuak buruan'? Toki onian!

*Kitolix.*- Eta ondo etorriko litzaizkidakenak iltze aundi dunak dira. Emengo gizasemen artian ez da neretzako bezelako oñetakorik.

*Feli.*- Gizasemetan arkitzen ez badezu. emakumee-tan billatu...

*M. Karmen.*- Bai noski.

*Kitolix.*- Bañan nola nai dute ni emakume oñetako-akin ezkontzera joatia?

*M. Karmen.*- Zergatik ez? Aritzazpi'ko izeba zarraren zapatakin, zerbait zutenian, etxeko guzti-yak ibiltzen ziran.

*Kitolix.*- Bai? Neretzako bezelako emakume zapatak non arkituko ote nituke?

*P. Iñixio.*- (Ezkerreko atetik sartuaz) Zer egin dezute?  
*Kitolix.*- Dana egiña dago.  
*P. Iñixio.*- Dana?  
*Kitolix.*- Dana, bai. Ezkontza izango degu bigar zazpietan.  
*P. Iñizio.*- Ederki zio. Bazkal onduan Sagastiberri'ra juango naiz; eta, txurrut bat egiñaz, bigar-ko bazkariya aginduko det.  
*M. Karmen.*- Ba-ezpada're, txurrutik ez utzi beintzat.  
*P. Iñixio.*- Gero, nola Xaturdiña nere besoetakoa dan, ni izango naiz apaidin.  
*M. Karmen.*- Baldin baitere!  
*Kitolix.*- Eta amaidintzarako andre Pillomenari esango diot.  
*P. Iñizio.*- Orduan, zereko zeraren zera naikua izango diagu.  
*Kitolix.*- Nola bere besoetakua naizen...  
*P. Iñixio.*- Ederki zio. Bigar bear guztiyok garaiz ibilli gaitezen, eleizara orduz irixteko eran. Badakizute ezkontza izango degula... zortzietan.  
*Feli.*- Zazpietan!  
*Xatur.*- Zazpietan!  
*M. Karmen.*- Bikariyo jaunak zazpietan esan du.  
*Kitolix.*- Zazpietan esan dit.  
*P. Iñixio.*- Ezkontza izango degu... zortzietan.  
*Kitolix.*- (*P. Iñixio*'rengana *juan eta ojuka*) Ezetz!  
*P. Iñixio.*- (*P. Iñixio*'k *jotzera egiten dio, ta Kitolix beste alderaño igesi juaten da. Emakumeak P. Iñixio geldi azitzen dute.*) Txatxu, eska-llu, txepel alena! Ematen diaten begiondo-koarekin ezetz esateko gogoak kenduko dizkiat.

*Kitolix.*- Ezetz esateko esan ez du, ba?

*P. Iñixio.*- Esan diat... zortzietan izango dala, ta zortzietan izango dek... Eta badakizute zer egin biar dan. (*P. Iñixio ezkerreko atetik juaten da.*)

*M. Karmen.*- Beriarekin ateratziagatik.

*Xatur.*- Zurrunga batzuek geiago egitiagatik.

*Feli.*- Bikario jaunak ez al du gaizki artuko!

*M. Karmen.*- Baldin baitere.

*Feli.*- Eta ezertarako betik ez daukagu; soñekoaren billa nua, lenbailen luzatu dezagun.

*Xatur.*- A, bai, Felipatxo! Azkar ibilli biarko degu.

*Feli.*- Beriala emen naiz.

*M. Karmen.*- Gero arte, bada.

(*Felipatxo atzeko atetik juaten da.*)

*Kitolix.*- (Oñetakoak non billatuko ote ditut?)

*M. Karmen.*- Eta zer edo zer egiten asi biarko det nik ere. Abek estualdiyak sortzen dizkigute! (*M. Karmen eskuiko atetik juaten da*)

*Kitolix.*- (A! Andre Ilari'ri eskatuko dizkiot! Iñork izatekotan, orretzek izango ditu.) Xaturdiña, oñetako billa andre Ilari'rengana juango naiz.

*Xatur.*- Ia zure gogokuak ematen dizkizun.

*Kitolix.*- Ikusiko det. Banua, beintzat. (*Lasterka atzeko atera juaten da, ta batetan biurtu ta diyo.*) Eta bigar, nere emazte maitagarria egiten zeranian, gogoz eta pozez abestuko dizut: (*gogor abestuaz*) Rejina, zelai landare, aleluia, aleluia!

(*Azkenekoan eztarria ixten zaio ta lasterka juaten da.*)

## BEDERATZIGARREN IRUDIA

*Xaturdiña: bereala Pello*

*Xaturdiña.*- Noizbait ere! Bigar senar baten jabe egingo naiz. Felipaxori aurria artuko diot. Nere betiko ametsa beteko det. Noizbait ere! (*Pello, eskuetan eskutitz bat duela ta txistua joaz, atzeko atian azaltzen da.*) Zer? Berriz ere emen al zera? Atzo egin zenuena ez al dezu aski?

*Pello.*- Izan ere! Ximon'en ardandegian orain ari ziran izketan: "Kitolix bikariyo!" Ederra izango zan gero!

*Xatur.*- Guzia zuk jarri dezun nasketa bat izan da. Ia orain ere beste naspillen bat ote dakarkizun...

*Pello.*- Beste naspillik ez; beste eskutitz bat bai.

*Xatur.*- Apaizen batentzat ez bada orain ere...

*Pello.*- Ez zait iduritzen. (*Eskutitz azala irakurriaz*) Xaturdiña Lizaso. Izen ontako apaizik ez dala uste det.

*Xatur.*- Neretzat! Norena izan liteke?

*Pello.*- Bertan jarriko dizu.

*Xatur.*- Ez det somatzen... Eta orain, nik txakur txikiya eman ezkerok, lots gutxirekin artu egingo zenuke?

*Pello.*- Eman ezkerok, zergatik ez ba?

*Xatur.*- Ez nizuke eman biar, baña... (*Sakeletik atera ta txakur txiki bat ematen dio.*) Tori, tori, gero marmarizoka ari ez zaitian.

*Pello.*- Eskerrik asko.

*Xatur.*- Txurrut bat ere biarko dezu...

*Pello.*- Zergatik ez, ba?

*Xatur.*- Atzo etxe ontan egin zenuenarekin, ez nizun eman biar; baña... (*Alasatik bonbilla bat atera ta baso bat ardoz bete ta Pello'ri ematen dio.*) Tori, tori...

*Pello.*- Pekatu benialen barkaziyorako.

*Xatur.*- Atzokua ez nizun barkatu biar.

*(Pello'k edaten du ta, txixtua juaz, atzeko atetik lasterka juaten da.)*

*Pello.*- Agur, Xaturdiña; berriz ere etorriko naiz.

*Xatur.*- Baña nik berriz ez dizut txurritik emango, ordia. (*Eskutitzari begiratuaz*) Norena izan liteken ezin asmatu det. (*Eskutitz iriki ta izenpea irakurriaz*) E! "Tomax Ezeizabarrena". Etxezar'eko Tomax! Nundik, ordia?... (*Irakurriaz*) "Amerikan oso ondo juan zait. Uste baño len, diru mordoxka ederraren jabe egin naiz, eta orain nereetara biurtu nai det..." Orra! "Santander'en nago..." E! Santander'en? "Ta bigar...", Bigar! "Bigar erri orretara Iritxiko naiz". E! "Zuri sudur muturretik teinkada maitati bat egiteko..." (*Sudur muturrari elduaz*) Etzaio oraindik aztu! "Ta nere Xa-xa..." Xa-xa! "Nere Xa-xa zoragarriakin ezkontzeko..." Orratx: eskutitz au ordu batzuek beranduago artu izan banu, alperrik izango zan... Baña... oraindik... ezkongai arkituko nau. (*Eskutitzari muñ ematen dio.*)

*Ezkutazapia jexten da.*

*Bigarren egintzaren amaia.*

# IRUGARREN EGINTTZA

## LENENGO IRUDIA

*Andre Mikela Karmen; bereala Patxiku Iñixio*

*M. Karmen.*- Ez dakit gaur zer zorakeri ikusi bear ditugun etxe ontan.

*(Patxiku Iñixio, oñetako batzuek eskuan dituela, ezkerretik sartzen da, ta oñetakuak Txoko batean uzten ditu.)*

*P. Iñixio.*- Oñetako abei ikutaldi bat eman biarko diezute.

*M. Karmen.*- Gañerako guziyak egiñak daude ta oietxek geldituko ziran bakar-bakarrik.

*P. Iñixio.*- Gañerako guziyak, bai. Atzo arratsaldian agindu nuen bazkariya Sagastiberri'n.

*M. Karmen.*- Ori izan ezker, ondo gera.

*P. Iñixio.*- Orrelako bazkariyarekin ondo izango ez gera, ba? Esango nuke! Gau guziyan nere orrekin ametsetan ibilli naiz.

*M. Karmen.*- Alajaña! Ez zenekaizkien buruauste txarrak.

*P. Iñixio.*- A zer betekada egin nuen! Ametsetan, e?

*M. Karmen.*- Esnatuta're egingo zenukela uste det.

- P. Iñixio.*- Esango dizut zer bazkari jarriko diguten.
- M. Karmen.*- Ez daukagu zertan oldoztu ta...
- P. Iñixio.*- Esango dizut: oitura dan bezela, bi zuku (bi zopa); bi eltzeko: babarrun eta azak. lukainka, odolki, mondongo ta beste orrelako zikinkeriyakin nastutuak; aragi ego-sia, piper morruakin; estofaua; legatz gixatua illarrakin... A! Ta andre Kaxilda'ri esan nion illar alietan begiratu zezala ondo, tartian xaldibitarrik sartu ez zedin.
- M. Karmen.*- Gaurko illar aliak ez det uste gaitzik egingo digutenik.
- P. Iñixio.*- Ta azkenian ollaxkuak, ler egin arte. Zer bazkaritxoa, e? Ta an izango degun sagardoarekin!.
- M. Karmen.*- A bai! Gain gañeko sagardua. Baña zuk gaztetan Tolaretxipi'n edan zenuena, ori ez bezelakua.
- P. Iñixio.*- Zan bezela. Berriz eta berriz ere esango det nik ori. Gure gaztetan bezelako sagardorik ez dakite orain egiten ere.
- M. Karmen.*- Zer jakin biar dute!...
- P. Iñixio.*- A! Ta Iturburu'ko Txomin txotxolo orri ere, txoro bat da, bai, baña bazkaltzera etortzeko esan nion.
- M. Karmen.*- Ori da: beti gizon orrekin mokoka, ta gixon ori gabe ezin bizi.
- P. Iñixio.*- Zer egingo dezu, ba?...
- M. Karmen.*- Zer egin? Egiteko dagona. Zuk bazkariya ta bazkaldarrak antolatu dituzu; baña ezkontza oraindik antolatzeke dago.
- P. Iñixio.*- Nik neria egin det, e? Ta gañerakua bestiak egin dezatela.
- M. Karmen.*- Xaturdiña'k atzo ezkonduko etzala esan zizun.



- P. Iñixio.*- Bazkariya aginduba dago; ta, bazkalduko badu, ezkonduta jua biarko du.
- M. Karmen.*- Ez du ezkondu nai, ordia. Garbi asko atzo esan zizun.
- P. Iñixio.*- Begira, begira: ez neri orain katramil oiekin etorri. Bazkariyak on egingo badit. barrena lasai euki biar det, eta ez neri estualdirik eman.
- M. Karmen.*- Orixe da, ba; bañan ezkontza izango dan edo ez dan ez badakigu...
- P. Iñixio.*- Ezkontza izango degu; ta gaur bertan izango da. Nik esan det, eta aski da.
- M. Karmen.*- Zuk esan dezu; baña ezkondu biar duenak ezetz dio, ordia.
- P. Iñixio.*- Esan dezala, nai badu.
- M. Karmen.*- Auxen da lana! Zer egin biar det nik orain?
- P. Iñixio.*- Zer egin biar dezun orain? Oñetako oiei ikutaldi bat eman. (*P. Iñixio.*- ezkerreko atetik juaten da.)
- M. Karmen.*- Onelakorik ez da ikusi. Batek, ezkontza gaur izango degula; bestiak, ez dala ezkonduko. Ez gaude ez baietzetarako, ez ezetzerako. Laster eztaiz-lagunak etortzen asiko dira, ta ez dakit zer arpegi jarri biar degun. Onelakorik ez da beñere entzun ere.

## BIGARREN IRUDIA

*Andre Mikela Karmen eta andre Pillomena*

*(Andre Pillomena atzeko atean azaltzen da. Eztaietako bezela jantzia dago, antziñako mantoi ta buru estalkiarekin.)*

- A. Pillomena.*- Andre Mikela Karmen...
- M. Karmen.*- (Amaidiya emen degu.) Aurrera, aurre-  
ra. (Xexenak ditugu oraintxe.)  
(*A. Pillomena aurreratzen da.*)
- A. Pillomena.*- Zera, berandu ote netorren, orra,  
zera, bildur nitzan.
- M. Karmen.*- Ez, ez. Lenengo da. Ongi etorri.
- A. Pillomena.*- Orra ba. Emengo zerak eta zereko zerak  
zertu biar zutenen berririk ez nuen. Nere zer  
ura zertu zanetik ez nago ezertarako.
- M. Karmen.*- Jakiña da.
- A. Pillomena.*- Nere zeraren zerarako, gabeko erro-  
sariyo santua zertzen det...
- M. Karmen.*- Ederki egiña.
- A. Pillomena.*- Ta bart ere, nere zeraren zerarekin  
barren guziya zerturik, ari nintzan: Arroxa  
muxika, oa por nox; Turrix darabildika, oa  
por nox... Eta ontan Kitolix sartu zala  
nabaitu nuen; baña, nere zera ez zertziaga-  
tik, nere zerari jarraitu nion...
- M. Karmen.*- (Nola bialduko ote nuke nik au?)
- A. Pillomena.*- Turrix taloburnea, oa por nox; Mutu-  
rrez aurea, oa por nox; Beti ziarka oa por  
nox... Eta Kitolix'ek zerbait zertzen zidala  
zertzen nuen, baña ez ordia nik zertu nai;  
ta, nere zereko zerarekin oso zertua, zerari  
zertu nion.
- M. Karmen.*- (Ta ez da ixilduko.)
- A. Pillomena.*- Yana axeri, oa por nox; Estella man-  
turdiña, oa por nox; Salus konprimorum,  
oa por nox... Eta Kitolix zertzen eta zertzen  
ari zan: eta nik ere, azkenian, zertu biar  
izan nuen.
- M. Karmen.*- Bai noski. (Nik ere au nola zertu bane-  
kin...)

- A. *Pillomena*.- Orduan esan zidan emengo zerarekin gaur zertzen zala.
- M. *Karmen*.- Bai; atzo asmo oiek ziran.
- A. *Pillomena*.- Batetako zera zala.
- M. *Karmen*.- Bai; batetakoa. (Batetan sortu ta bate-tan amaitu.)
- A. *Pillomena*.- Eta nola nere besoetako zera dan, zertu zidan, alegiya, gaur zertzaz zertuko ote niyon.
- M. *Karmen*.- (Atso au nola bialiko ote det?)
- A. *Pillomena*.- Ez nago, ba, ni zer abetan zertzeko; nere zer ura zertu zanetik, oso zertua nago; baña gauzai zeretik eta zerera begiratu biar zaie; ta ni ere, mutil gizarajoari zertuta, oso zertu nitzan eta baiezkoa eman nion.
- M. *Karmen*.- (Ia orain ezezkoa nork ematen dion.)
- A. *Pillomena*.- A! Baña oso zertua nago... (*Alki batian exertzen da.*)
- M. *Karmen*.- (Ta exeri egiten da. Ex det nik emendik bialiko.)
- A. *Pillomena*.- Nere zereko zeraren zera ez da nere zeretik zertzen. Ai! Ordu guzietan nere zeraz zertzen.
- M. *Karmen*.- Bai, bai; bañan emen barrenen ondo ez badago, sorora atera liteke, ta itxogon an, guk deitu arte. (Pixka batian egon biar-ko zenuke.)
- A. *Pillomena*.- Ai, ez; bein baietza eman ezkerro, gauzak biar bezela zertzia nai izaten det.
- M. *Karmen*.- Bai; baña emen egoteko orde zoroan obeto egon al baledi, zergatik ez juan?
- A. *Pillomena*.- Ez, ez. Nere zer ontatik ez naiz ni zertuko.
- M. *Karmen*.- (Ez da au bialiko duenik.)

- A. *Pillomena*.- Ni juan? Ez orixe.  
M. *Karmen*.- (Ikusten det, bai.)  
A. *Pillomena*.- Goizero, nere zeraren zerarako, zazpietako mezetara zertzen naiz.  
M. *Karmen*.- Ederki egiña.  
A. *Pillomena*.- Baña gaur, nola onera zertu biar nuen, ondo zertuta, baña ez naiz mezetan izan.  
M. *Karmen*.- Gaizki egiña.  
A. *Pillomena*.- Ai, ez!  
M. *Karmen*.- Gaur ere mezetarajuan biar zuen.  
A. *Pillomena*.- Onera zertu niar nuen, ordea.  
M. *Karmen*.- Ala ere. meza entzuteko astia bazuen.  
A. *Pillomena*.- Ez, ez...  
M. *Karmen*.- Bai, bai...  
A. *Pillomena*.- Kitolix'ek esan zidan zortziretan zertuko zala.  
M. *Karmen*.- Asmo ori zan, baña azkenerako ezkontza uste det... zertuko dala.  
A. *Pillomena*.- Ordua zertze ori beti zertzen da.  
M. *Karmen*.- Bai, ba; ta oraindik meza atxitu lezake.  
A. *Pillomena*.- Onezkero zertuko zan, ordia.  
M. *Karmen*.- Zer zertu biar zuen! Zazpietako meza On Baldunbero'k izango du.  
A. *Pillomena*.- On Baldunbero'k?  
M. *Karmen*.- On Baldunbero'k, bai. (Ni ere nere anaia bezela asi naiz.) Ta gizarajoa, ain astuna dago, meza luzatzen du kana bete.  
A. *Pillomena*.- Zertuko nukela baneki, zertuko nitzake.  
M. *Karmen*.- Zertuko ez du, ba? Bai orixe.  
A. *Pillomena*.- (*Altxiaz*) Orduan zertu egin biarko det.  
M. *Karmen*.- Bai, bai.

- A. *Pillomena*.- (*Atzeko ate aldera juanaz*) Eta zereko zeraren zerbait (1) balitz, zertu neri.
- M. *Karmen*.- Beriala zertuko diogu.
- A. *Pillomena*.- Ia, ba, zerbait zertzen ote dedan. (*A. Pillomena atzeko atetik joaten da.*)
- M. *Karmen*.- Zertuko du. bai, zertuko du. A! Noiz-bait ere zertu degu.

## IRUGARREN IRUDIA

*Andre Mikela Karmen; bereala Xaturdiña ta P. Iñixio.*

- M. *Karmen*.- Bañan ez nezake nik onela jarraitu. Guztiyak beren zokoetan sartu ta ni emen, danen parragarri. Ez, ez. Etorri biarko dute azkar, azkar gero! (*Eskuiko atian deituaz*) Xaturdiña, atoz onera beriala (berez). Ni emen saldua bezela... (*Ezkerreko atian deituaz*) P. Iñixio etorri zaitte bere-beriala. (*Eskuiko atian deituaz*) Xaturdiña, zabilta azkar. (*Ezkerreko atian deituaz*) Baña, Patxiku Iñixio, azkar etortzeko. (*A. M. Karmen eskuiko ate aldera dioa ta une onetan Xaturdiña eskuiko atetik sartzten da.*)
- Xatur*.- Zer du, ama, oju oiekin?
- P. *Iñixio*.- (*Ezkerreko atetik sartuaz*) Zer dezute orrenbeste deadar, karraxi ta ixkanbillekin?
- M. *Karmen*.- Zer izango degu? Zuek zuen zulueta sartu ta emen naukazute bakarrik, guzti-

---

(1) 1932'ko argitalpenean: *zer zerbait*. Moldiztegi-okarren bat izango da.

yen parragarri; ta onela ezin jarraituko degula. Andre Pillomena emen izan da...

*P. Iñixio.*- Emen izan al da? Orduan zereko zeraz ondo zertuko ziñaten.

*M. Karmen.*- Buruko tximetaraño zertu gera.

*P. Iñixio.*- Baietz esango nuke.

*M. Karmen.*- Nola edo ala biali det; baña beriala emen da ostera; bestiak ere etorriko dira; ta emen, baztarretara iges egin gabe, ezkontzarekin zer egingo dan erabaki biar da.

*P. Iñixio.*- Ezkontza gaur izango dala len ere esan dizut.

*M. Karmen.*- Zuk esan dezu, baña ezkondu biar duenak ez dio ori, ordia.

*Xatur.*- Ni ez naiz Kitolix'ekin ezkonduko.

*P. Iñixio.*- Xaturdiña, orretarako berandu den.

*Xatur.*- Ez da berandurik; oraindik ez naiz ezkondu, ta Kitolix'ekin ez naiz ezkonduko.

*P. Iñixio.*- Ezkondu baintz bezela. Gauza atzo erabakia gelditu unan...

*Xatur.*- Ta atzo bertan autsi nuen. Kitolix'ekin ezkonduko ez nitzala atzo bertan esan nion.

*P. Iñixio.*- Bañan ez den ikusten bazkariya agindua dagola ta ezin atzera biurtu gintezkela?

*Xatur.*- Bazkariyarekin nai duena egin lezake; nere ezkontzarekin nik nai detana egingo da.

*P. Iñixio.*- (Ume setatsua, ondo guretarra aiz, bai.)

*M. Karmen.*- Goxuak gaude, iñori arpegi emateko.

*P. Iñixio.*- Baña zer dala-ta oraingo seta ori?

*Xatur.*- Atzo're esan nion. Nik ludi ontan gizon bat bakarren maitasuna izan det, xudur muturretik asi ta biotz barrenaraño sartu zaidana: Etxezarreko Tomax.

*P. Iñixio.* - Bañan ori Amerika'ra juan unan.

*Xatur.* - Bañan ori Amerika'tik etorri da...

*P. Iñixio.* - E?

*Xatur.* - Atzo bere eskutitz bat artu nuen.

*P. Iñixio.* - Ordu onian asi den ori ere eskutitzak  
baltzen.

*M. Karmen.* - Gizarajoak al izan duenean.

*Xatur.* - Esaten zidan nerekin ezkontzeko zetorrela;  
ta ni besterekin ez naiz ezkonduko.

*P. Iñixio.* - Ta etortze ori noiz izango den, ba?

*Xatur.* - Zion Santander'en zegola, ta gaur eguardi  
aldera onera iritxiko zala.

*P. Iñixio.* - Orrela dala, zer edo zer egin genezaken.

*M. Karmen.* - Ez dakit zer.

*P. Iñixio.* - Begira zan: neri, batekin ezkondu edo  
bestiakin ezkondu ez zian ajolik.

*Xatur.* - Neri bai, ordia.

*P. Iñixio.* - Neri ez, baña biar dana den ezkontzia.

*Xatur.* - Etxezarreko Tomaxekin.

*P. Iñixio.* - Etxezarreko Tomaxekin. Guziya izango  
den pixka bat atzeatzia.

*M. Karmen.* - Ori da: illabete bat edo bi...

*P. Iñixio.* - Zer illabete! Ez dakizute, ba, bazkariya  
agindua dala?

*M. Karmen.* - Bazkariya agindua egongo da: baña  
ezkontza ez, ordia.

*P. Iñixio.* - Noizko etorriko dala diyo Tomax'ek?

*Xatur.* - Eguardi alderako.

*P. Iñixio.* - Orra, ba: bazkariya pixka bat atzeratu  
biarko. Guziya izango den amaiketako on  
xamar bat egitia.

*M. Karmen.* - Ez ta beste ezertxo're.

*P. Iñixio.*- Ez noski.

*M. Karmen.*- Gizona, irixten bada, iritxi; dana gertu dauka noski, ta ezkondu... ta bazkaitara!

*P. Iñixio.*- Bai, bai; batakin edo bestiarekin, Xatur-diña gaur ezkonduko da.

*Xatur.*- Batakin edo bestiarekin ez: ni Tomax'ekin bakarrik ezkonduko naiz.

*P. Iñixio.*- Tomax'ekin bada. Neri ez zidan ajolik.

*Xatur.*- Neri bai, ordia.

*M. Karmen.*- Tomax'ekin, bai. Ta bestiak emen dira laxter, eta ia oiei zeñek esaten dihoten.

*P. Iñixio.*- Neronek esango dihotet.

*M. Karmen.*- Bai; arrunka aundiyak orain. Beste oiek etortzen diranian, ikusiko degu zure kemenak norañoakoak diran.

*P. Iñixio.*- Nere kemenak biar añaokoak izango dira. Ori nere gain utzi zazu.

*M. Karmen.*- Bai, noski. Andre Pillomena emendik bialtzen lana naikoa izan det, eta gañera-koa zuk egin biarko dezu.

*P. Iñixio.*- Nik egingo det.

*M. Karmen.*- Ez naiz ni beintzat azalduko.

*P. Iñixio.*- Ez ta biar ere.

*M. Karmen.*- Or gelditzen zera, ba. Nai dezuna egin zazu. (*A. M. Karmen eskuitik juaten da.*)

*P. Iñixio.*- Bai noski; nik nai dedana egingo da.

*Xatur.*- Ni, Tomax'ekin ezkontze ezkeru, nai duen eran gertu nago.

*P. Iñixio.*- Tomax'ekin ezkonduko aiz, ba; baña gaur bertan, bazkariya agindua zion ta!

*Xatur.*- Nai duen bezela. Baña Kitolix'ekin ez det ezer ere nai.



*P. Iñixio.*- Orrekikua nik egingo diñat. Juan dan igandian bezperetan bezela, marruaka asiko den, baña alperrik; aidian jua biarko din.

*Xatur.*- Ederki. Beaz, beorren gain uzten det guziya.

*P. Iñixio.*- Bai; nik au antolatuko diñat.

*Xatur.*- Orduan banua.

*P. Iñixio.*- Ua lasai. Guziya nere gain gelditzen den, (*Xaturdiña eskuitik juaten da.*)

## LAUGARREN IRUDIA

*Patxiku Iñixio; bereala Kitolix eta Mikel Anton.*

*P. Iñixio.*- Bai noski. Nik egiten ez badet, bestek ez du egingo, ta ez dira, ba, abetxek mutilzar baten egitekuak. Baña etxe ontan beriala txepelduta jartzen dira ta norbait tek egin biar.

*(Kitolix eta Mikel Anton atzeko atia.n azaltzen dira.*

*Biyak oso apañak, eztaietako bezela jantziyak.)*

*M. Anton.*- Kaxo, Patxiku Iñixio!

*P. Iñixio.*- A! Ta Kitolix bere aitarekin dator. Aita-semiak a zer burruna eraman biar duten!

*Kitolix.*- (*P. Iñixio'rengana aurreratuz*) Emen gera. Zapatagilleak, gabaz lana eginda, baña biboterak jarri dizkit. Andre ilari'k eman nai zizkidan zapatak, onenbeste zurrumakin, takoiekin ziran; eta aiekin oso oker nebillen.

*P. Iñixio.*- Bai, bai; orain dakarzkikan oiekin ere, oker etorri aiz, ba.

*M. Anton.*- (*Algara aundi bat egiñaz*) Ja! Ja! Onen ateraldiyak!

- P. Iñixio.* - Oker, bai. Biyak oker etorri zerate.
- M. Anton.* - (*Len baño algara aundiagoa egiñaz, Kitolix'í*) Ikusten dek! Betiko badizkik! (*P. Iñixio'ri marruskatuaz*) I beti lengoa! Zartuta're, beti bezela!
- P. Iñixio.* - Utzi nazak. (Au euli mandua!) Esan diat alperrik etorri zeratela.
- (*M. Anton eta Kitolix'ek algara aundiak egiten dituzte.*)
- Kitolix.* - Ip!
- M. Anton.* - Betiko badik. Eskola mutil zala ere orrelakoxia ukan. (*P. Iñixio.* - *marruskatuaz*) Bejondeikela, Patxiku Iñixio! Ire umore ona beste guziyak baño geiago dek!
- P. Iñixio.* - (Asto abekin burutuko ote degu?) Berriz ere esaten dizutet alperrik etorri zeratela. Kitolix ez dek Xaturdiñakin ezkonduko.
- Kitolix.* - Ori da gizonen sasoia!
- M. Anton.* - Orrelakua dek ori. Gabarte bere orrekin ariko uke.
- P. Iñixio.* - Bañan nola esan bear det nik?...
- M. Anton.* - Iaiua aiz, Patxiku Iñixio. Iaiua aiz.
- Kitolix.* - Ori da umoria, ori.
- M. Anton.* - Ez dek au nik bezela ezagutzen. Gogorra dek!
- P. Iñixio.* - Gogorra! Onian entzun nai ez badezute, gogor ere jarriko nak.
- M. Anton.* - Ja! Ja! Ori dek gizonen etorriya.
- P. Iñixio.* - Etorriya zuei damutu biar zaizute.
- Kitolix.* - Etorriya!
- M. Anton.* - Orrelakoxia dek au!
- P. Iñixio.* - (Matur-joka asi biar ote det?)

*M. Anton.*- Bein batian ere a zer arratsaldia eman zigun! (*P. Iñixiori*) I ez aiz gogoratuko noski. Emen, gu gaztiak giñala, Tolaretxipi'n saldu ziteken sagardo bat, berdiñik ezagutuko ez dana.

*P. Iñixio.*- Ta i nerekin al itzan?

*M. Anton.*- Izango ez nindukan ba? (1) Ta gurekin ukan On Baldunbero ere.

*P. Iñixio.*- Bai, bai.

*M. Anton.*- Orduan oraindik ixturianta ziokan.

*P. Iñixio.*- Ori bazekiat: itzaz ez nindukan gogoratzen.

*M. Anton.*- Alkarrekin gindukan, ba. Amaika algara goxo egin genikan.

*P. Iñixio.*- Eta ura bezelako sagardorik ezagutu al da beñere baztar abetan?

*M. Anton.*- Zer ezagutu biar dik!...

*Kitolix.*- Ez ta aldeatze korik ere.

*P. Iñixio.*- Ez noski; ta On Baldunbero xeru-xeru ori ez omen dek gogoratzen.

*M. Anton.*- Ni ederki gogoratzen nak, ba. Sagardo arren arpegi alaia! Sagardo arren leuntasun pozgarriya! Sagardo arren bizitasun atsegiña!...

*P. Iñixio.*- (*Batetan gogoratuaz*) Ez, ez! Ez dek ori!

*Kitolix.*- Ezetz? Beorrek baietz esan zidan.

*M. Anton.*- Bai noski.

*P. Iñixio.*- Ez dala ori! Sagarduarekin etzekau zer ikusirik.

*M. Anton.*- Ura bezelako sagardua!

*Kitolix.*- Berak esan zidan neri ta...

---

(1) 1932'ko argitalpenean: *da*.

*P. Iñixio.* - Tolaretxipi'ko sagarduarekin ez nazute ni txurikatuko. Ta biar danaz itzegin zagan.  
Len ere esan diat...

*M. Anton.* - Au berera (1) ziak.

*Kitolix.* - Beti bat.

*P. Iñixio.* - Ta berriz esango dizutet alperrik etorri zeratela...

*Kitolix.* - Ori badakigu.

*M. Anton.* - Len ere esan dek.

*P. Iñixio.* - Xaturdiña ez dek ezkonduko Kitolix'ekin.

*Kitolix.* - Zer ezkondu biar du!

*M. Anton.* - Orrengatik etorri gaituk, ba: ezkondu biar ez dutelako.

*P. Iñixio.* - Ta etorri zeraten tokitik juan zindezteke.

*M. Anton.* - Egun on bat igaro ta gero, bai, juango gaituk.

*Kitolix.* - Bai, orixe, gaur egun eder bat izan biar degu.

*P. Iñixio.* - Bañan emendik alde egiteko nola esan biar zaizute zuei?

*Kitolix.* - Abestuaz, abestuaz poliki.

*M. Anton.* - Ori dek.

*P. Iñixio.* - I bezela arrantzaka asiko naizela uste al dek?

*Kitolix.* - Nik baño leunago.

*P. Iñixio.* (Oso asarre) Alde emendik! Onian nai ez badezute, txarrian.

*Kitolix.* - Dexendit, dexendit... (*Abestuaz*)

*P. Iñixio.* - (*Oso erneatua, besotik eltzen dio, atzeko atera bultza naiz.*) (Oraintxe ler egin diat.)  
Utikan! Zakarrak kanpora!

---

(1) 1932'ko argitalpenean: *berera*

- M. Anton.* - (*P. Iñixio.* - *egiyetan ari dala ezagutuaz*)  
Aizak, i. Patxiku Iñixio: zer da au?
- P. Iñixio.* - Zer izango dek? Esan ta esan ta ez dezute  
juan nai ta...
- M. Anton.* - Baña... egitan al da?
- P. Iñixio.* - Izango ez dek, ba? Milla aldiz juateko  
esan dizutet, eta alperrik.
- M. Anton.* - Jakin zak, ba, gu ez gaudela iñondik  
ostikoka bialtzeko. Etorri bagaituk, ik  
agindu ukalako izan dek.
- Kitolix.* - Beorrek orrek esan zidan gaur ezkondu biar  
genuela.
- P. Iñixio.* - Nik esan nikan gaur ezkondu biar zuela  
Xaturdiñak; baña norekin ez.
- Kitolix.* - Eta Xaturdiña ez al da, ba, nere andregai?
- P. Iñixio.* - Zer izan biar dik! Orretarako zioz bera.
- Kitolix.* - Berak neri aitortuba.
- P. Iñixio.* - Orrek ez dik nai mataxezko senargairik.
- M. Anton.* - Ori ez. Mutillak ez zeukak iñongo aitza-  
kirik, ta etziok ire itzetik entzuteko. Orre-  
tan ez diat lagako.
- P. Iñixio.* - Zuazte, ba, bein; eta pakia eman zazute.
- M. Anton.* - Juango gaituk...
- Kitolix.* - Juango gera, bai.
- M. Anton.* - Baña ez lenbizi iri esan gabe, ta ondoren  
erri guziyan zabaldu gabe, ik gaur egiten  
dekana dala dollorkeri bat...
- Kitolix.* - Zapokeri bat...
- M. Anton.* - Zatarkeri bat...
- Kitolix.* - Zikinkeri bat...
- P. Iñixio.* - Ez al dezute naikoa esan?
- M. Anton.* - Naikua? Oraindik aundiyaguak entzun  
bear dituk.

## BOSTGARREN IRUDIA

### *Lengoak eta andre Pillomena*

*(A. Pillomena atzeko atetik sartu ta beriala exertzen da.)*

A. *Pillomena*.- Ai, orratx! Alperrik zertu naiz; zera, zereko zera, oso zertua zan.

P. *Iñixio*.- (Atso au berriz emen. Onek bai lanak eman bear dizkidala.)

*Kitolix*.- Andre Pillomena, altxa liteke, emen zer egiñik ez degu ta.

A. *Pillomena*.- Zer? Zertu al zerate, ba?

*Kitolix*.- Ez, andria. Ez omen dute nai Xaturdiña ezkontzerik... mataxezko gizon batekin.

A. *Pillomena*.- Mataxezko gizona zuri? Nork zertu du ori?

M. *Anton*.- Or ondoan daukazun mozorro orrek.

*(A. Pillomena altza, P. Iñixio'rengana juan eta arpegi-  
ra esaten dio. Bereala exertzen da. Ori bera egiten  
du ondorengo izketa aldietan.)*

A. *Pillomena*.- Zer? Nere besoetako umiari ori zertu? Nork eta zuk, alper ontzi orrek?

P. *Iñixio*.- Nik bai. (Zer da, berriz, atso sorgin au?)

A. *Pillomena*.- Zu ez bezelako zera ori: langillia, zintzua, pizkorra; ta zu, berriz, alproja mal-tzurra.

M. *Anton*.- Galde akियok orri naikua dan.

A. *Pillomena*.- Zein zera zu orri ezer zertzeko? Zu, upelian sudurra sartuta egoten besterik ez dakizuna; txurrutgille, sagardo-zulo mozkorrondo.

P. *Iñixio*.- Begira gero itz oiekin!

*M. Anton.*- Ik egin dekanarekin, geiago esan biar likek.

*Kitolix.*- Ori ez da egiten!

*A. Pillomena.*- (*Orain ez da altxatzen.*) Baña nor da zertu duena, ezkonduko ez dirala?

*Kitolix.*- Ori ba.

*M. Anton.*- Zoro ori.

*P. Iñixio.*- Ni, bai.

*A. Pillomena.*- Mutilzar galtza jariyo ori? Alajaña, zertzeko zer guziyak ez ditugu zertu oraindikan. Zer daki orrek ezkontza, gayian, zurrutan besterik ez badaki?

*P. Iñixio.*- Nik esan det, ba; nik agindu det; eta nere agindua egingo da.

*A. Pillomena.*- Ez dezu gutxi uste. (*Anton eta Kitolix'i*) Agure galbai onek zertu duelako al zinjoazten? Ez ni beintzat. (*Altza ta berriro exeriaz*) Ara: alki ontan zertzen naiz, ta ez naiz zertuko zertu biar duenak zertu arte.

*P. Iñixio.*- Ta nork zertu biar du, ba?

*A. Pillomena.*- Ezkondu biar duena.

*M. Anton.*- Izan ere, au ez dek ire egitekoa. Xaturdiñak esan biar dik esan biar duena.

*Kitolix.*- Xaturdiñak esan zidan nerekin ezkonduko zala gaur.

*P. Iñixio.*- Xaturdiñak esaten dik nik esaten detana.

*A. Pillomena.*- Gezurra!

*P. Iñixio.*- Egiya!

*A. Pillomena.*- Datorrela, ba, bera. Zuri ez dizugu ezer zertzen.

*M. Anton.*- Xaturdiñak etorri biar dik onera, ta Xaturdiñak esan biar dik.

*Kitolix.*- Xaturdiña'kin egon biar degu.

*P. Iñixio.*- Baña... nik esatia ez al da aski?

*Guztiyak.* - Ez! Ez!

*Kitolix.* - Ez oixe!

*A. Pillomena.* - Zure zera ez degu guk zertzen.

*P. Iñixio.* - Xaturdiñak etorri biar al du onera?

*Guztiyak.* - Bai! Bai!

*Kitolix.* - Xaturdiñak, bai.

*A. Pillomena.* - Bai noski.

*P. Iñixio.* - Beriala etorriko dek, ba. (*Eskuiko atetik deituaz*) Xaturdiña, ator onera azkar.

*A. Pillomena.* - Zertu biarko du, bai.

*Kitolix.* - Atzo bertan esan zidan gaur ezkonduko giñala biyok.

*M. Anton.* - Onen saltsak dituk guziyak.

## SEIGARREN IRUDIA

### *Lengoak eta Xaturdiña*

*Xatur.* - (*Eskuitik sartuaz*) Zer nai zuen, osaba?

*P. Iñixio.* - Ia oiei zer erantzuten diotenen.

*A. Pillomena.* - Bai; zertu zaite onera, ta zertu zazu: zuk ezkondu nai al dezu?

*Xatur.* - Bai, andria.

*A. Pillomena.* - Ikusten!...

*Kitolix.* - Banekien! Berak esan zidan ta...

*Xaturdiña.* - Baña Kitolix'ekin ez.

*Kitolix.* - E!

*A. Pillomena.* - (*Oso asarre altxiaz*) Zer! Zer orrekin zertzen zera orain.

*Xatur.* - Ni ezkontzen naiz Etxezarreko Tomax'ekin.



*M. Anton.*- Ori Ameriketara juan zan.

*Xatur.*- Ori Amerika'tik etorri da: ta nerekin ezkontzeko dator.

*Kitolix.*- Ta orrenbesterekin uzten nazu? Gaur ezkonduko giñala aginduta gero?

*A. Pillomena.*- Atzo, zuregatik, errosario santua zertu gabe zertu, gaur meza santua zertu're ez, zer guziak zertu, ta orain, zereko zera-zen zera, zer onekin zertzen zera.

*Kitolix.*- Zugatik, libran bikuak, irukuak eta iru laurdeneko kandelak egin gabe utzi ditut; bost errialeko txokolatia're bai; biboterak jarri; janzkia billatu; ta orain orrela uzten nazu?

*A. Pillomena.*- Ai, ez, ez! Orrela zertzen dan emakumearekin ez det nai ezkontzia. Ez zera ezkonduko Xaturdiña'rekin.

*Kitolix.*- Ez ta nai ere.

*M. Anton.*- Zer ezkondu biar du?

*P. Iñixio.*- Ez dago bildurrik.

*A. Pillomena.*- Ez dizut utziko.

*Kitolix.*- Ez, ez.

*A. Pillomena.*- Zer orretan zertzen dan zerarekin, bruu... zer gutxi zertuko du nere zeraren zereko zeraren zerak. (*Marmarizoka atzeko atetik juaten da.*)

*Kitolix.*- Ez dizut geiago arpegira begiratuko.

*Xatur.*- Nik ere ez.

*M. Anton.*- Orrelako jende traketsakin ez diagu ezer ere nai.

*P. Iñixio.*- Guk ere ez. (*Guztiyak batian asarre bizi-yan ekiten diote.*)

*Kitolix.*- Lotsik gabiak!

*Xatur.*- Ausartak!

*M. Anton.*- Ijito zarrak, alprojak!  
*P. Iñixio.*- Zoro maltzurak, kaikuak!  
*Kitolix.*- Asto kirtenak!  
*Xaturdiria.*- Iñozo, kankallu!  
*M. Anton.*- Ergel, mandua!  
*P. Iñixio.*- Lapiko zarra, basatia!

## ZAZPIGARREN IRUDIA

*Xaturdiña, P. Iñixio, Kitolix, M. Anton eta Pello*

*(Bat-batetan Pello atzeko atean azaltzen da.)*

*Pello.*- Ikaragarriya gertatu da. *(Guztiyak ixiltzen dira)*  
*Guztiyak.*- E? E?  
*Pello.*- Berdiñik ezagutu ez dan bezelakoa.  
*P. Iñixio.*- Zer gertatu da, bada?  
*Pello.*- Oraintxe esan didate.  
*M. Anton.*- Zer, ordia?  
*Pello.*- Miranda aldi orretan gertatua izan biar du.  
*P. Iñixio.*- Miranda'n?  
*Pello.*- Miranda aldian, bai.  
*M. Anton.*- Tokitako berriakin ator.  
*Pello.*- Madri'tik zetorren espresak eta emendik  
zijuak mixtuak alkar jo omen dute.  
*P. Iñixio.*- Ta jenderik galdu al da?  
*Pello.*- Erruz izan biar du.  
*Kitolix.*- Ori txarra.  
*Pello.*- Etxezarren orain artu dute partia.  
*Xatur.*- (Oso ikaratua) Etxezarren?

*Pello.*- Bai; Tomax... nola Ameriketara juan zan,  
Tomax?...

*Xatur.*- Bai, bai; baña zer?

*Pello.*- Ba, Tomax Santander'tik omen zetorren...

*Xatur.*- Ori badakigu; baña zer? Zer?

*Pello.*- Gogoratuko zerate Etxezarreko Tomax...

*Xatur.*- Bai, bai; gogoratzen gera.

*Pello.*- Ba, Tomax ura, Amerikan zana, Santanderra  
etorriya omen zan.

*Xatur.*- Baña esan zazu, esan biar badezu.

*Pello.*- Ba, Tomax ura, e?, Tomax... illa da.

*P. Iñixio.*- Il?

*Xatur.*- (*Karraxi bat egin ondoren*) Ori ezin liteke!

*Pello.*- Bai, bai; Tomax illa da. Oraintxe artu dute  
partia Etxezarren.

*(Xaturdiña, negarrez eta karraxi batzuek egiñaz, alki  
batian exertzen da.)*

*Xatur.*- Nere Tomax! Nere Tomax! Nere xudur  
muturra teinkadik gabe utzi dezu.

*P. Iñixio.*- (Oraintxe ederra egin diagu.)

*Pello.*- Ikaragarriya gertatua izan biar du. Ikaraga-  
rriya! (*Pello atzetik juaten da.*)

*Kitolix.*- Aben senargaiak "rekix kantin paxe" egin du.

*M. Anton.*- Bai; gabe gelditu dituk.

*Xatur.*- Zure Xa-xak zergatik negar egiña badu.

*P. Iñixio.*- Eta Sagastiberrin bazkariya agindua. Zer  
egin biar degu orain?

*Xatur.*- Egun bateko poza zein laister itzaltzen dan!

*P. Iñixio.*- (*M. Anton'engana oso biguin alderatuaz*)

Aizak, i, Miel Anton: ik ezagutzen nakela  
uste dek; baña ez nak ezagutzen.

*M. Anton.*- Geiegi ezagutzen atala esango nitek.

- P. Iñixio.* - Bai zera! Orain arteko guziya txulio bat izan dek. Bruman ari nindukan.
- M. Anton.* - Ez, adiskidia. Ez gaituk orren iñozuak.
- Kitolix.* - Mataxezko gizonik nai ez dutela badakigu.
- P. Iñixio.* - Jostaketa bat izan dek guziya. Ez al aiz gogoratzen, or Tolaretxipi'n sagardua izan artan ere, zer jolasak ibili genituen?
- M. Anton.* - Tolaretxipi'ko sagardoarekin ez gaituk gu txurikatuko.
- Kitolix.* - Sagarduak ez digu guri bururik galazitzen.
- P. Iñixio.* - Baña atzo bertan esan ez nikan nik gaur ezkondu biar zenutela?
- Kitolix.* - Beorrek esan zidan Xaturdiña ezkonduko zala, baña norekin ez.
- P. Iñixio.* - Norekin izango dek? Irekin.
- Kitolix.* - Besterik ez danian, e?
- M. Anton.* - Nai zenutena galdu danian.
- P. Iñixio.* - Bai, zera: Xaturdiñak berak esango dizute.  
(*Xaturdiña negarki altxatzen da, baña ez du ezer esaten.*)
- M. Anton.* - Lenago're naikua esan dik.
- Kitolix.* - Nik ere esan det orrekin ez naizela ezkonduko, ta nere itzian nago.  
(*Xaturdiña negarrez exertzen da.*)
- P. Iñixio.* - Baña ez dezute ikusten bazkariya agin-  
dua dagola?
- M. Anton.* - Ez gaituk gu bazkari usaian etorri.
- Kitolix.* - Ez degu bazkari biarrik.
- P. Iñixio.* - (*Aurreratuaz*) Auxen da ixtilluba! Zer egin biar degu orain? Azkenian ere bada-  
kit... Xaturdiñakin neronek ezkonduko  
biarko det.  
(*M. Anton eta Kitolix alkarrekin itzegiten dute.*)

*M. Anton.*- Abek, besterik ez dutenian zetoztik guregana.

*P. Iñixio.*- Sagastiberri'n bazkariya agindua dago ta nola ba?

*Kitolix.*- Alperrik etorriko dira. Mataxa ez dago oien ezpain lerden jarioentzat.

*P. Iñixio.*- Ezkonduko ote naiz, ba?... Bai: baña Iturburuko Txomin txotxolo orrek bertsuak jarriko dizkit, ordia. Ori ezin liteke, Kitolix; azkeneko aldiz esango diat: kezka guziyak bota itzik baztarrera, ta Xaturdiña'kin ezkonduko al aiz? Gizon bezela, esan zak baietz.

*Kitolix.*- Gizona dan gizonak, noizbait ere ezetz esan biar du, eta nik orain ezetz esango diyot.

*P. Iñixio.*- Baña...

*Kitolix.*- Ezetz!

*P. Iñixio.*- Nai dezuten gaixto egin zazute, ba. Ni Sagastiberri'ra niak bazkaritara. (*Oso asarre, atzetik juaten da.*)

*M. Anton.*- Guk ere juaan biar diagu, seme.

*Kitolix.*- Bai, guazen: au bukatu da. (*Xaturdiña'ri*)  
Or gelditzen zera... neskazar! (*M. Anton eta Kitolix atzeko atetik juaten dira.*)

*Xatur.*- (*Negar antsika*) Neskazar!

## ZORTZIGARREN IRUDIA

### *Xaturdiña eta morroia*

(*Xaturdiña negarrez, burua mai gañian botia. Lenbiko egintzaren lenbiziko irudian bezela, morroia atzeko atean batetik bestera, saskia bizkarrian duela, abestuz igarotzen da.*)

*Morroia.-*

Empliatzen ez bada  
gazterikan neska,  
pasa bearko ditu  
makiña bat kezka.  
Burutik txoraturik  
nobiyorik ez ta,  
orra azkenerako  
neskazarren festa.

*Morroia abestutzen asten danetik,  
ezkutazapia geldi-geldirik jexten da.*

TORIBIO ALZAGA

# A M A N T X I

BI ATALDUN ANTZERKIA


DONOSTIA'N  
MARTIN ETA MENA'REN ETXEAN  
San Marcial, 23, beko gelan  
1924





# AMANTXI

## IRUDITEGIA NOLA JARRI



*“Romanico” deritzaion eraz ipiñitako gela aundi edo aretoa izan bear du antzertokiak.*

*A.- Oial beltzez egindako aurre aldetik irikita dagoen gela-illuna.*

*C C.- Inguru guzian argiz betetako sukaldetxoa.*

*B. - Gelaren lurreko zati azitxoa estaltzen duan oin-azpikoa.*

*D.- Esertoki luze apaña.*

*E.- Esertoki motz apaña.*

*H.- Beste esertoki batzuek.*

*F.- Estalki gorridun maitxoa.*

## A M A N T X I

### **Irudigileak**

Amantxi  
Andre Nikolasa  
Andre Brijida  
Karmentxo  
Esterban  
Enrike  
Titibiliti  
Xiriako  
Zomorrotxoak

*Gertaera amaseigarren eunkidan, Iruditegian, XVI-g. eunkidako erara apaindutako gela nagusi ikusgarria. Bi ate ezkerrean eta eskuian; aurrean atea ta atzean leioa. Atzean, berotzeko sukaldetxo aundia. Orma-inguruetan alki apain batzuek. Alde batean mai txiki bat. eta bere gañean argi-mutilla kandel pixtu askorekin. Aben argia besterik ez balitz bezala dago iruditegia.*

I

*Andre Brijida ta Andre Nikolasa*

*(Biyak buru-estalki aro artako mutur zorrotzakin.  
Eseri ta izketan ari dira.)*

*Brij.* - Etzan ezkondu.

*Niko.* - Orra beaz...

*Brij.* - Ezkontzeko asmoan juan zan Bergara'ra bere  
izebaren etxera; bañan, ez bat eta ez bi,  
senargaia gaxotu ta il zitzaion.

*Niko.* - Amantxi gaxua!

*Brij.* - Juan bezela etorri biar izan zuen Azkoiti'ra.

*Niko.* - Biyotzeko samintasun berri batekin.

*Brij.* - Ezin esan alakoa. Egunak eta egunak igaro  
zituen erotzeko zorian. Moja joateko ere  
ibilli zan. Ez dakit nola bizirik gelditu dan.

*Niko.* - Ez da iltzeko gaitza. Luzaro bere senarrarekin  
bizituta alarguntzen dan emakumeak,  
samintasun apala, ixilla, azaltzen du. Egun  
laburrak igaro dituenak, oñaze bizi,  
sutsuak. Eta ezkontzeko gaiean dagonak  
senargaia galtzen duenean, berriz, karraxi  
estu, larri burrunbatsuakin erakusten du  
bere naigabia. Garraztasun abek, ordia, ez  
dira karraxien indarrez neurtzen diranak.  
Ixillenenak izaten dira sakonenak. Samintasu-  
na ez baida ezpañetakoa, biotzekoa haizik.

*Brij.* - Orrela izan da Amantxi'ren atsekabe garratza: biotz-biotzekoa. Senargaia galdu zuen egu-netik ez du ezkongai agertu nai izan ere. Bereala burua estali zuen, orain emakume ezkonduak darabilgun eran, eta bere ortan jarraitzen du.

*Niko.* - Orra asko asetzen ez nauben gauza bat.

*Brij.* - Zer bada?

*Niko.* - Lenago ere ikusi detalako buru-estalkiak ezkon-izenean jartzen, eta bereala ezkon-izanean biurtzen.

*Brij.* - Zer esan nai dezu?

*Niko.* - Tunturruntun abek, askotan, ederrago azal-tzeagatik jartzen dirala.

*Brij.* - Etzazula uste...

*Niko.* - Gizasemeak ere begiyak geiago jartzen dituzte buru-estalkidunetan. Ezkongai baten-tzat bi alargun ezkontzen dira.

*Brij.* - Etzait iduritzen...

*Niko.* - Izan ere, oraingo neskatxa gaztiak, beren kaskamotzakin, ez daude iñongo gizasemek begiratzeko eran.

*Brij.* - Polit askuak badira ba...

*Niko.* - Bañan buru-estalki ikusgarri abekin... Bati-bat Elgoibar'ko erara. Elgoibarko emakumeak beti izan dute alako doai berezi bat buru apainketarako. Azkoitiarrak ere ez det esan nai ez dakizutela zeren buruak edertzen. Baña elgoibartarrak!

*Brij.* - Bakoitzari bere errikua ederrena iduritzia ez da bart arratseko somaketa.

*Niko.* - Iduritzia ez; gauzak diran bezela esatia. Ez didazu ukatuko itxasertzeko errietan, Zumaia'n, Zarautz'en, Pasaia'n eta Donos-

tia'n bertan ere bai, buru-estalki parragarri asko erabiltzen dituztela. Batzuek, txituak buruan balemazkite bezela; bestiak, mendi-tontorrak diruditela. Oraindik naximentuba buruban daramatenak ere atera-ko dira.

*Brij.* - Beste tokietan ere buru-estalki parragarriak ikusten ditugu.

*Niko.* - A! Bañan Elgoibar'en...

*Brij.* - Elgoibar'en ere nabarmen askoak erabilli biar dituzte, gizasemeak auzia eman dutenian.

*Niko.* - Gizasemeak, ez; senarrak.

*Brij.* - Berdintxu.

*Niko.* - Emazteen edertasunaz kardabaturik. Izan ere, apainketa ikusgarri abekin senarra ez duben emakumeari, senargaiak parra-parra sortzen zaizkio.

*Brij.* - Geixko esan ote dezun iduritzen zait.

*Niko.* - Amantxiri ere onezkero ondotik asiko zitzaiz-kion.

*Brij.* - Etzazula orrelakorik aitatu.

*Niko.* - Gauzen berri badakigu; ta Amantxi'k onezkero senargai bat baduela, mingaña jarriko nuke.

*Brij.* - Ez dezu orren errex itzezin bear.

*Niko.* - Alperrik ukatuko didazu.

*Brij.* - Nik ez dizut ukatu.

*Niko.* - Ezin dezulako.

*Brij.* - Senargai bat duela ukatu nezake...

*Niko.* - Bai ote?

*Brij.* - Bai; bi dituelako.

*Niko.* - Orra! Esaten nuen nik!

*Brij.* - Baña orretarako zer gertaera tamalak igaro biar izan dituen!

*Niko.*- Nai dezun guziya; baña emen garbi agiri  
dana da, lengo senargaiaren malkuak txu-  
katzeko, beste bi badituela.

*Brij.*- Amantxi gaxua! A! Ona emen bera.

## II

### *Lengoak eta Amantxi. Azkenean Xiriako.*

*(Amantxi ezkerreko bigarren atean azaltzen da. Andre Brijida'ren antzeko buru-estalkia dauka. Amantxi agertzean. Andre Brijida ta Andre Nikolasa altxatzen dira. Au Amantxi'rengana jua eta alkarri musu ematen die.)*

*Niko.*- Amantxi.

*Aman.*- Andre Nikolasa!

*Niko.*- Beñere baño ederragoa zaude.

*Aman.*- Goibeltasun aundiak igaro bear izan ditut.

*Niko.*- Baña orain malda bera asiya zerala esan  
didate; ta bi... kurpillekin aldapak eroso-  
go igarotzen dira.

*Aman.*- Badakit zer esan nai didazun; baña andre  
Brijidak esango zizun noski...

*Brij.*- Esatera nijoakionian sartu zera zu.

*Aman.*- Ai, andre Nikolasa! Nere biotzaren zarrasta-  
dak ikaragarriak ziran,... nere ura galdu  
nuenean; eta oñazearen zirikada zorrotzak  
moja joateko asmo bizi, sutsua, nere barre-  
nean sortu zuten.

*Niko.*- A zer txorakeria! Zu bezelako emakume ede-  
rra orma illuntsu tartean sartu, an pipiyak  
jateko. Ez orixe!

*Aman.*- Ez nuen kemenik izan.

*Niko.*- Ez ta biar ere.

*Aman.*- Ez nuen kemenik izan; eta ez dakit Goi  
Jaun aundiak nere txepelkeria zigorkatu ez  
ote duen.

*Niko.*- Nola?

*Aman.*- Egun gutxi barru zorapena, enkantua, etxe -  
an genuen.

*Niko.* - Etxean?

*Brij.*- Bai, enetxoa.

*Aman.*- Gela ontan bertan.

*Niko.*- Emen?

*Brij.*- Argi-mutil ori emendik aterata, gela illunpean  
gelditzen danean, zorapena emen azalduko  
da berriro.

*Aman.*- Ikaragarritzko iskanbillak, zalapart eta barbu-  
lla ezin eramana, gela onetan entzuten dira.

*Brij.*- Batzuetan, dantzan balebiltza bezela: bestee-  
tan, ostikoka diruditela... emen entzuten  
ez dan dunbots, zarata, zarraparik ez da.

*Niko.*- Izoztuta uzten nazute.

*Aman.*- Zalantz ikaragarrian, biyotza erdibitua.  
begirik itxi gabe, gau osoak igaro ditut.

*Niko.*- Amantxi gaxoa!

*Aman.*-- Brijida, nere lengusu maitati onek, al guzi-  
yan laguntza eman dit...

*Brij.*- Benaz eta gogoz.

*Aman.*- Baña egoera izugarri onetan emakume gaxo  
bakar batek zer egin zezakean...

*Niko.*- Etxez aldatu.

*Aman.*- Nola? Loreaga'ko etxe ospetsua utzi? Gure  
aurrekoen egipen gogoangarriak ezarrita  
daukazkiten orma gurgarrietatik alde egin?

Ez genuen besterik biar, lenaz gain, erriko marmar ausartenak nere kalte iraulitzeko.

*Niko.*- Nik ala egingo nuen bada.

*Aman.*- Nik ez. Beste biderik aukeratu det.

*Brij.*- Biderik egokiena.

*Aman.*- Zaldun leñargi bat nere ondotik zebillela igarria nitzan...

*Niko.*- Tunturruntun abetakoa jarri ezkerre, jakiña zan. Andre Brijidari esan diot. Gizasemeak gerenganatzeko buru-estalki abek bezelakorik ez da.

*Brij.*- Urrutiegi zuazela derizkiot.

*Niko.*- Eta azkoitiarrak orretarako dezuten pertxentasunarekin, zer... esanik ez dago. Ori bai: elgoibartarrak lenbizi dirala.

*Aman.*- Nere tamaltasun neurrigabe arrekin zoraturik, egin zidan galdeketari baietzarekin erantzun nion.

*Niko.*- Ori da lenbizikoa...

*Aman.*- Lenbizikoa.

*Niko.*- Ta jakin al liteke zein dan?

*Aman.*- Bai...

*Xiri.*- (*Eskuiko lenbiziko atean azalduaz.*) Jausoro'ko Esteban zalduna.

*Aman.*- Datorrela. (*Xiriako joaten da. Andre Nikola-sari.*) Orixen da.

*Niko.*- Agure zar ori? (*Xiriako'gatik.*)

*Aman.*- Ez; Jausoro'ko Esteban zalduna.

*Niko.*- Ezagutu bear degu orreatik.

*Aman.*- Exeri gaitian bada. (*Ezkerretan esertzen dira. Amantxi erdian; ezkerretara Andre Nikolasa, ta eskuitara Andre Brijida.*)



### III

#### Lengoak eta Esteban

*Est.* - (*Esteban eskuiko lenbiziko atean azaltzen da ta iru emakumeak itzal aundiarekin agurtzen ditu.*) *Vos quoque litoribus nostris Aeneïae nutrices aeternam mulieres famam dedistis audaces. Salvete, iterumque salvete!* (1)

*Niko.* - Ora pro nobis.

*Est.* - (*Esteban Amantxi'rengana aurreratzen da.*)  
Oleskariarekin itzakina nere gaurko agerpe -  
na egingo dizut:

Kalipso ta Eukaris  
ninja guztiakin  
ez dira neurtutzeko  
nere maitiakin.

(*Amantxi'ri eskuan muñ egiten dio.*)

*Aman.* - Beti limurtagarri.

*Est.* - Beti egizale.

*Aman.* - Eskerrik asko. (*Andre Nikolasa erakutsiaz.*)  
Andre Nikolasa, gure Elgoibar'ko aidietakoa.

*Est.* - (*Andre Nikolasa'ren aurrean agur egiñaz.*) *Cara deum soboles, magnum Iovis incrementum.* (2)

---

(1) Eta zuek, Eneas'en amak, emakume ausarditsuak izan ziñatela, betiko ospea eman ziezuten gure itsas-ertzai. Jaungoikoak bedeinka zaitzate ta bedeinka zaitzate berriz ere Jaungoikoak! (Bixjilioren Eneida'ko VI-g. liburutik aukeratutakoa.)

(2) Jaungoikoen gogoko abenda, Jupiter'en ondorengo goralgarrria. (Birjilio, IV-g. Egloga. Sendi ospetsu baten ondorengo-  
engatik esaten da.)

*Niko.*- Amen.

*Est.*- Astarbe zoragarriaren antzera, zure begi txingar-gilleak maitasunezko su gartsua sortzen dutela; zure ille kizkur urre margokoak su orri aize ematen diotela... ez, ez dizut esango.

*Niko.*- Ez.

*Est.*- Anfitrite, edertasun guzien meta pozgarri arrek bezela, zure arpegi gozatsu orretan larros zuri-gorria dirudien abo amets-gillea zabaltzen dala, ta bere lurrin zoratzalleak inguruan sortzen duela maitasunezko griñ ezti, laztan, kuttuna... ez, ez dizut esango.

*Niko.*- Ez.

*Est.*- Esango dizut...

*Niko.*- (*Esteban ixil-arazi ondoren.*) Esan zazu elgoi-bartarra; ta guziya esana dago.

*Est.*- *Pulchre, bene, recte* (3). (*Andre Nikolasa'ri eskuan muñ emanaz.*) Urte askoan. (*Andre Brijida'rengana juanaz.*) Andre Brijida, zuretzako nere agurketa menpetsuenak. (*Andre Brijida'ri eskuan muñ ematen dio.*)

*Brij.*- Eskerrik asko.

*Est.*- (*Amantxi'ri.*) Zure ondoan, Amantxi, astirik luzeenak, une labur, txolarte apurrak iduritzen zaizkit; nere oraingo egoera, berez labur eta ziztriña, zer idurituko ote zaio nere biotz gosetiari?

*Brij.*- Eginkizun asko ibilli bear dezu.

*Aman.*- Etzaitugu ikusi egun guziyan.

*Est.*- Esango dizutet zergatik.

*Niko.*- Lanbide bear-bearrekoen bat izango zuen.

---

(3) Ederki, oso ederki, ezin eta ederkiago. (Horazio: *Arte poética*. 100)

*Est.* - Bart-arrats ezkerro azkoitiarren artean degu  
Aita Zirilo, aba ospetsua.

*Aman.* - Zein da ori?

*Est.* - Praile dominikotar bat, gorputzez txikia, baña arimaz neurrigabekoa; jakintsuetan jakintsuena, langillea, azkarra, trebea. Grekaz eta latinez bere izkera jatorriz bezin erraz eta lasai mintzatzen dana. Omero, Platon, Aristofanes, Euripides, Birjilio, Orazio, Plauto, Tito Libio beatz-muturretan daukazkie-na. Antziñako jakintsuen idazkiak iñork ez bezela azterkatzen ditu. Orrelakoengatik esan oi da: *sagaces in inquirendo, circun-pectos in explorando, in iudicando graves, implicitus in vinciendo, faciles in enodando.*

*Brij.* - Ori guziya bada, zerbait izan bear.

*Est.* - Bere eskuz berritu ta adierazi ditu antziñako idazlarien lanik berezienak: Zizeron'en izkintzak, Kintiliano'ren araudiak, Tito Libio'ren amarrekoak, Teokrito'ren artzai-oldertiak. Berak, aztarnak artu ta lan neketsu ta iraunkor ondoren, arkitu ta ezagutzera eman ditu betiko galduak uste ziran antziñako idazki gogoangarriak. Orrela Valerio Flacco, Silo Italiko ta Amiano Martzelino'ren ikaskizun mamitsuak. Orobat Plinio gaztearen eskutitzak, Rutilio Namaziano'ren ibilketak, Kalpurnio'ren oler'ki biguin eta xamurrak. Eta... arritu zaitzte! Usmaketa abetan zebilela, arkitu zuen idazki mutur bat, pitxi aberatsenik bezela berekin gordetzen duena, ta zuek ere bere berri pozik jakingo dezutena: Zizeron aundiak, egun batian, bere sukaldariari bazkaria jartzeko egin zion agerkaia. Zer bazkaria! Zizeron'ek bere eskuz izendatu ta aukeratua.

*Niko.*- Bai; ta gero sukaldariak tipula geixko edo porru-perrejil gutxitxo jarri, edo gatza gatzontzian aztu ezkeru, goxua geldituko zan bazkari burrunbatsu ura.

*Est.*- A! Bañan Zizeronek gertu-arazia izate utsak...

*Niko.*- Ez, ez. Bazkariak sukaldian maniatzen dira, ta ez idazlarien muñetan.

*Brij.*- Gai ontan, Andre Nikolasa artakua da gero...

*Niko.*- Bai noski; eltzequak guri-guri, arrai ta aragiak goxo-goxo, ta egaztiak koipetsu jartze-ko, ez neri Zizeron'ik ekarri.

*Aman.*- Eta non dago neurritz gañeko gizon ori?

*Est.*- Balda jauregian.

*Aman.*- A!

*Est.*- Ernando jauna txoraturik dago bere ostalaria-rekin; orain egitera guazen billera ere, berak eratu du. Inguruetako gizon argienak an izango dira. Aita Zirilo'k itzegingo du, ta entzuteko zalantzaz beterik daude guztiak. Aurretik, ordia, beste norbaitek itzaldi bat egitia bearrekoa da, ta orretara-ko ni izan naiz aukeratua.

*Aman.*- Banekien zer izango zan.

*Est.*- Orrengatik, egun guzian, buru ta belarri lanian, idazten aritu naiz.

*Brij.*- Zu beti idazten...

*Est.*- Ni beti nere lan berezian. Lira'ko Nikolas adi-mentsuak bezela esan nezake: *Si Liranus non lirasset, totus mundus delirasset*.

*Aman.*- Ezagun da.

*Est.*- Nere itzaldia Aristoteles'en antzera eratu det. Ona emen azalgaia: "Gauza bat egiz eta iraunkor jakitia gauzaren zergatikakoa jakitia da". Bereala nere adimenera betiko galdeerak datoz: *Quis, quid, ubi, quibus*

*auxiliis, cur, quomodo, quando?* (4) Bear dan zintzotasunarekin erantzuteko, nere mai-tiaren begietako almen pizkortzalearen billa etorri naiz.

*Niko.*- A, bai! Kikiriki oietako guzietarako emakume ederraren begi mintzakorrak bezelakorik ez da.

*Est.* - *Quod erat demonstrandum.*

*Aman.* - Eta orain al dezute billera ori?

*Est.* - Oraintxe. Baña an egon arren, nere begietan egongo da Amantxi'ren arpegi zoragarria.

*Brij.* - Eta zure belarrietan gure txalo susparrak.

*Est.* - Eskerrik asko.

*Aman.* - Ar zazu aurretik gure zorion bioztia.

*Est.* - Bigar etorriko naiz, eta guztien berri emango dizutet.

*Aman.* - Eskertuko dizugu.

*Est.* - Orain, zuen baimenarekin banua.

*Aman.* - Ondore on bat izan.

*Est.* - (*Eskuiko atera juan eta andik.*) *Dulcia linquimus arva.* (5) (*Agur egiñaz.*) *Vale.* (6)

*Irurak.* - Agur. (*Esteban eskuitik juaten da.*)

#### IV

*Amantxi. Andre Nikolasa, Andre Brijida ta Karmentxo*

*Niko.* - Orrek meza ematen ere jakingo du.

*Aman.* - Ori gizonik azkarrenetakua da.

---

(4) Nor. zer, nun, zein bidez, zergatik, nola, noiz?

(5) Gure lur maiteak uzten ditugu. (*Birjilio: I ta III-g. Egloga.*)

(6) Ondo bizi.

*Brij.* - Guzien berri badu

*Aman.* - Ez da izango gairik, orrek ezagutzen ez duenik.

*Niko.* - Ez ta ere orrek esaten ez duen latiñik.

*Karm.* - Izeba! (*Karmentxo eskuitik sartzen da. Neskatxa gazte oso polita da. Ezkongaiak garai artan oi zuten bezela, buru kaskamotza dauka, kopet gañian ille sortatxo hat duela.*)

*Brij.* - Emen al zera?

*Karm.* - Jaun ori irteteko zai egon naiz. (*Irurak altxa dira. Amantxi'rengana jua eta musu emanaz.*) Amantxi...

*Aman.* - Karmentxo, nere izarra.

*Niko.* - Illoba al dezu?

*Brij.* - Nere anaiaren alaba zarrena. (*Karmentxo'ri.*)  
Agur egiozu Andre Nikolasa'ri.

*Karm.* - Andrea... (*Andre Nikolasa'k eta Karmentxo'k alkarri musu ematen die.*)

*Niko.* - Aingeruak nexka jantziko balira, ez lirake ikusgarriaguak izango. Zerorri polita eta apainketak zer esanik ez... Ez dezu akatsik oñetatik buru...raño. (Buru kaskamotz ori ez balu.)

*Aman.* - Izebaren billa, e?

*Brij.* - Santa Klara'ko mojetara jua biar omen du ta...

*Karm.* - Sor Patrozinio'k deitu digu, Maiatzeko loreetako abestiak ikasteko. An bilduko gera emengo nexka ezagunenak.

*Aman.* - Ederki. Sor Patrozinio'k Maiatzeko Loreetako aukeratu ditu Azkoiti'ko lorerik liraiñenak.

*Niko.* - (Loriak ez dakit; baña Plandes'ko gaztak beintzat bai. Abek buru baldarrak!)

*Aman.* - Abesti politak izango dituzute?

*Karm.* - Oso politak. Eta bat berriya. Bertako apaiz jaunak eratu omen du.

*Aman.* - A! Ori bestia baño're ardura geiagorekin  
ikasi bearko dezute.

*Karm.* - Alegiñak egingo ditugu beintzat.

*Brij.* - Ez daukate erakusle txarra, Sor Patrozinio.

*Niko.* - Bai, baña abuaikin abestu gero...

*Karm.* - Nola...

*Niko.* - Sudurrarekin ez.

*Karm.* - Ez noski.

*Niko.* - Nik mojak aditu izan ditut bada. (*Sudurrarekin abestuaz.*) *Gloria Patri et Filio...*

*Karm.* - Ai! Santa Klara'kuak ez. Santa Klara'kuak beste iñongo mojak baño obetuago abestutzen dute. Guztiyak esaten aritzen dira Santa Klara'n baño obeto ez dala iñon abestutzen.

*Brij.* - Ez zaiozula oni Santa Klara'ko mojen kalte ezer esan, bere oiekin txoraturik dago ta.

*Karm.* - Egiya dalako. Ia or bezelako meza ospetsu ta gain-gañekoak non abestutzen diran.

*Aman.* - Bai. Karmentxo, bai: orrela da. Zurea da egiya... Brijida, juateko ordua izango dezute ta ez zaituztet geiago luzatu azi nai.

*Brij.* - Bai, baña beriala emen naiz.

*Aman.* - Ez dezu ezertarako lastertu bearrik.

*Brij.* - Nola etortzerako lagunak izango dituen, an utzi ta bereala biurtuko naiz.

*Aman.* - Nai dezun bezela. Agur, bada, Karmentxo.  
(*Karmentxo'k Amantxi'ri musu ematen dio. Andre Nikolasa Andre Brijidarekin izketan gelditzen da.*)

*Niko.* - Ia zure illobatxo ori lenbailen ezkontzen dezun.

*Brij.* - Bere garaian egingo da.

*Niko.* - Kaskamotz ori buru-estalki polit batekin apaintzeko.

*Karm.* - (Andre Nikolasa'rengana juanaz.) Andrea...  
*Niko.* - Au ume zoragarria! (*Alkarri musu ematen diote. Ondoren Amantxi ta Andre Nikolasa'k beste biyari eskuiko ate aldera laguntzen diote.*)  
*Aman.* - Karmentxo, asko-asko ikasi.  
*Karm.* - Aleginduko gera.  
*Brij.* - Bereala emen natzaizute.  
*Aman.* - Gero arte bada.  
*Guztiak.* - Agur. (*Andre Brijida ta Karmentxo eskuiko atetik juaten dira.*)

## V

### *Amantxi ta Andre Nikolasa*

*Niko.* - Ni ere luzaro nago, ta juan biar nuke; baña jakin bear detana jakin gabe ezin juan niteke.  
*Aman.* - Zer gero?  
*Niko.* - Lenbizikoaz... naikoa ikasi det; baña, bigarrenaz, ez didazu oraindik ezer esan.  
*Aman.* - Bigarrena...  
*Niko.* - Ezagutuko dezu ori jakin gabe ez daukadala juaterik.  
*Aman.* - Eseri zaitia. (*Biyak esertzen dira.*) Jakingo dezu noski gure sendiak Deba'ko Andia'tarrakin izan duten adiskidetasun sendo, betikoa.  
*Niko.* - Jakingo ez det bada! Loreaga'koak eta Andia'koak antziñatik izan dute alkargana-ko lei mamitsua.



*Aman.*- Andia'tar Menjon Irarrazabal'tar Agustina'rekin eta nere gurasoak egun berian ezkondu ziran. Aiek Azkoiti'ra, nere gurasuak Deba'ra. Batzuek bestiakin lengo adiskidetasuna berritu zuten, eta adiskidetasun ura batutze-ko itz emanik gelditu ziran, bi sendietatik lenengo jaiotzen zan semia besteko lenengo alabarekin ezkontzeko.

*Niko.*- Orra nik ez nekien gauza bat.

*Aman.*- Lenengo semia Andia'tarrak izan zuten: Enrike. Nere gurasuak geroxiago, ta abek ere semia. Iru urte geiago gabe egon ziran, eta berriz ere semia. Zortzi urteren buruan jaio nintzan ni.

*Niko.*- Bai, bai...

*Aman.*- Nik izan biar nuen, beraz, Enrike'ren emaztegaia.

*Niko.*- Zure lenengo senideak mutillak zirala ondo gogoratzen naiz, eta nola Azkoitiya'n izan zan sualdi ikaragarri, etxadi osoa kixkali zan artan, aita bi semiakin il zitzaizuten.

*Aman.*- Ez nazazula aitatu gertaera zoritxarreko ura. Arek nere ama gaxoaren egunak laburtu zituen, eta amabi urte ozta-ozta nituenian umezurtz gelditu nitzan.

*Niko.*- Amantxi gaxua! Gaztetandik atsekabeari arpegi garratza ikusi zenion

*Aman.*- Nere amatxo maitati arrek, bere azken orduetan, ez ziran besterik esaten, ez bazan gurasoak Andia'tarrakin egin zuten erabakidea bete nezala nik; eta aginte ura betetzeko gertu negola zerutik ikusiko zuen noski.

*Niko.*- Nola ez?

*Aman.*- Enrike'k orduan ogei urte zituen. Ameriken agerpena ezkerro, badakizu itxas-ertzeko gaztediak Ameriketara juateko duen griña ezin geldi arazia...

*Niko.*- Itxas-ertzian bakarrik ez; barrenago ere bai. Elgoibar'tik bertatik gazte bikañenak an dijoaz Ameriketara. Emen belarra bezela, an urria jaiotzen omen da soroetan, eta urriaren kuxkuxian badijuaz muturrak austen. Laxter ez dira emen geldituko begi-bakarrak eta anka-motzak baizik.

*Aman.*- Enrike're juan zan.

*Niko.*- Jakiña zegon...

*Aman.*- Amar urtian ez da bere berririk izan. Ama gajuak iltzat eman zuen. Andre Agustina atsekabeak zenbat malko ixuri ote du! Zenbat meza atera ote dizkio! Neri ere, semiarrena bukatu zala esanaz idatzi zidan.

*Niko.*- Gajua!

*Aman.*- Orrela, dakizkizun ondorengo gertaerak izan dira.

*Niko.*- Ulertzen det, bai.

*Aman.*- Ontan, eraneun, Enrike'ren eskutitz bat artu nuen.

*Niko.*- E? Nondik?

*Aman.*- Deba'tik.

*Niko.*- Biurtu da orduan?

*Aman.*- Noski. Nerekin bete bearra duena osatzeko gertu dagola esaten zidan.

*Niko.*- Bai, baña...

*Aman.*- Eta orretarako egun abetako batian itzegi-tera etorriko zitzaidala.

*Niko.*- Len itzezin besterik ez zuen.

*Aman.*- Andre Agustina'k ere itz batzuek jartzen zizkidan, gurasuen erabakia gogoratuaz.

*Niko.*- Korapillo ederra jarri dizute.

*Aman.*- Nik askatzen ezin asmatu alakoa.

*Niko.*- Ez ta iñork ere. Auxen da ba batek biar eta bestiak biar.

*Aman.*- Eta ni bi puska ezin egin.

*Niko.*- A! Zaude! Gauza bat gogoratu zait orain.

*Aman.*- Zer gero?

*Niko.*- Zu naspilla ontan sartu zera, etxean zorapena, enkantua dezulako.

*Aman.*- Baietz ziñ egiten dizut. Ori izan ez bazan, ez nion nik iñori aurrerabiderik emango.

*Niko.*- Bada, nere iritzian, or daukazu itzulbidea.

*Aman.*- Nola?

*Niko.*- Zu zorapenaren azpian zaude, ta ia biyetan zeñek gaizkatzen, libratzen zaituen: batak ezpatarekin edo bestiak bere latiañakin.

*Aman.*- Ulertzen dizut.

*Niko.*- Zu, gaizkatzen zaituenarena izango zera.

*Aman.*- Etzait ain gaizki iduritzen.

*Niko.*- Ez dezu beste biderik.

*Aman.*- Aolku on bat eman didazula uste det.

*Niko.*- Bai. noski. Eta orain, geixko egon naiz eta geiago berandutu baño len, banua. (*Altxatzen dira.*) Bigar ere etorriko natzaizu, ta gai au zerbait geixiago lardaskatuko degu. Eta bitartian nere esanaz ez aztu. (*Eskui ate aldera egiten du.*)

*Aman.*- Goguan eukiko ditut.

*Niko.*- (*Atean geldituta.*) Badakizu: edo batak bere ezpatarekin edo bestiak bere latiañakin. (*Juaten da.*)

*Aman.* - Agur.

## VI

*Amantxi. Gero Andre Brijida. Azkenean Xiriako.*

*Aman.*- Batak bere ezpatarekin, bestiak bere latiñakin... Andre Nikolasa'k ondo asmatu duela uste det. Izan ere, amar urtian, ja bat esan gabe, ibilli nai duen tokietan; eta orain bururatu zaiolako, abua zabaldu utsakin bere naiak bete? Ez, ez; andregaiia biar badu, irabazi dezala.

*Brij.* - (*Eskuiko atetik sartuaz.*) Emen naiz ni. Oi! Andre Nikolasa jua al da?

*Aman.*- Irtetia egin du. Ez dakit bidian biyak bat nola egin ez dezuten.

*Brij.* - Ez det bada ikusi, orra.

*Aman.*- Emen egon gera nere nasketaz itzegiten.

*Brij.* - Zer esana izango zuen Andre Nikolasa'k; ain buru bizikoa da.

*Aman.*- Bada, buru argi orrekin korapillua askatze-ko bidian jarri nauela uste det.

*Brij.* - Nola, ordia?

*Aman.*- Batak bere ezpatarekin, bestiak bere latiñakin.

*Brij.* - Geiago esaten ez badidazu, len añian geldituko naiz.

*Aman.*- Guziya esango dizut. Dakizun bezela...

*Xiri.* - (*Eskuiko lenbiziko atean azalduaz.*) Andia'tar Enrike zalduna.

*Aman.* - (*Andre Brijida'ri.*) Esan bear nizuna orain entzungo dezu. (*Xiriako'ri*) Datorrela. (*Xiriako juaten da.*) Exeri gaitian. (*Esertzen dira.*)

## VII

*Lengoak eta Enrike. Azkenean Xiriako.*

*(Enrike eskuiko atean azaltzen da: ta, agur egin ondoren, bata ta besteari begiraka asten da, Amantxi zein dan ezagutu naiean; gero beatzakin keñi egiten dio Andre Brijida'ri zein ote dan Amantxi.)*

*Brij.- (Mutua izan bear du onek.) (Andre Brijida'k Enrike'ri keñu egiten dio Amantxi erakutsiaz.)*

*Enri.- Ezin ukatu! Sartu naizenetik nabaitu det zure arpegian Loreaga'tarren edertasun zoratzallea. (Amantxi'rengana juan, belaunikatu ta eskuetan muñ emanaz.) Artu itzazu, Amantxi, nere agurketa xamurrenak.*

*Brij.- (Belaunikatze ori Ameriketean ikasiko zuen.)*

*Aman.- Ongi etorria izan zaite.*

*Enri.- Eskerrik asko.*

*Aman.- Andre Brijida, nere lengusua.*

*Enri.- (Andre Brijida'ren aurrean belaunikatu ta eskuan muñ emanaz.) Urte askoan.*

*Aman.- Gurasuak ondo utzi al dituzu?*

*Enri.- Ederki. Zuretzako goraintzi laztan bioztsuak eman dizkidate.*

*Aman.- Ta zer dio Andre Agustina maitagarriak?*

*Enri.- Zutzaz asko gogoratzen da: ta nik ere beti gogoan euki zaitut.*

*Brij.- (Amar urtian ezagutu da.)*

*Enri.- Eta orain gure biotzak batutzeko ordua iritxi da.*

*Aman.- (Andre Brijida'ri begiratuaz.) Ai...*

*Brij.- (Amantxi'ri begiratuaz.) Ai...*

*Enri.*- Bai, Amantxi, bai. Nere itzaren jabe naiz eta bete bearrak osatzeko gertu nago.

*Aman.*- (*Andre Brijida'ri begiratuaz.*) Ai...

*Brij.*- (*Amantxi'ri begiratuaz.*) Ai...

*Enri.*- Ni urrutietan izan naizen bitartian gertatu danaren berri badet, Orrengatik, buru-estalkiarekin ikusteaz batere arritu ez naiz. Guziya barkatzen dizut...

*Brij.*- (Barkatu...)

*Enri.*- Eta zurekin bat egitera nator.

*Aman.*- (*Andre Brijida'ri begiratuaz.*) Ai...

*Brij.*- (*Amantxi'ri begiratuaz.*) Ai...

*Enri.*- Izketan beste asko bezin trebea ez naizela badakit. Baña urrutietako ibilketak nere besoa sendotu dute, nere bularrak indartu, nere biotzeko suak bizitu; ta orain, naizen guzia, nere bulartsutasuna, nere almena, nere ezpata...

*Aman.*- (*Altxiaz. Andre Brijida ere altxatzen da.*)  
Zure ezpata?

*Enri.*- Nere ezpata, bai; guziya, guzi-guziya zure oñetan jartzen det.

*Aman.*- Guziyen bearrian gera bada.

*Brij.*- Bai orixe.

*Enri.*- Agindu lasai.

*Aman.*- Urrutietan izan zeran bitartean. emen gertatutakoen berri zerbait badezu; baño ez dakizu guziya.

*Brij.*- Ez ta erdirik ere.

*Enri.*- Esan bada. Itzezin zazute.

*Aman.*- Zorapenaren azpian nago.

*Enri.*- (*Parrez*) Ja, ja, ja!

*Brij.*- Zorapena ikaragarria.

*Enri.*- (Parrez) Ja, ja, ja! Zorapena!

*Aman.*- Zorapena, bai, eta gela onetan bertan.

*Brij.*- Argi-mutil ori emendik ateratzeakoan, emen agertuko da bere barbullta ta zalapart izugarriakin.

*Enri.*- (Parrez) Ja, ja, ja! Zorapena! Ameriketara nitzala, egun batian iritxi giñan alako eleiz-antzeko batera. Ederra zan: guziya urrez josiya zegon. Puskik aundiyena eguzkiaren antzera eratua zeukaten. Ura... jaungoikoa omen zan. Jaungoikoa! An egur-puskak eta arri koskorak ere badira jaungoikuak diranak. Zerbaitengatik esaten zuen gurekin zan praile batek: jaungoiko asko dan tokian, ez dala Jaungoiko bat ere.

*Brij.*- Ez noski.

*Enri.*- Urre-puska ura arrapatu biar genuela, jua giñan egun batian. Indiyo kaskar oietzaz eltxua bezela bazan; eta, gu ikusi ginduztenian, besoak luzatuta karrasika asi ziran:

*Kaila llaki  
pununki  
txaupituta  
gamusak.*

Orduan nik ezpata atera, aurreratu ta kanarreko bat eman nion urre-puska arri, ta an jua zan zilipurdika. Esan zazute orain, urrezko jaungoikoa txetu zuen ezpata batek zer egingo duen zoratzalle arlote batzuekin.

*Aman.*- Zer egingo duen ikusteko zaleturik gaude.

*Enri.*- Bereala ikusiko dezu. Egin bearrak ez dira geroko utzi bear.

*Aman.*- Ori da nik nai detana. Brijida, Xiriako'ri deitu zaiozu. (*Andre Brijida'k txintxarria jotzen du.*) Guk argi-mutillakin alde egin-dakoan, zorapena emen izango dezu. Zer egin bear dan badakizu.

*Enri.*- Ori nere gain gelditzen da.

*Xiri.*- (*Eskuiko lenengo atian azalduaz.*) Zer agintzen dezute, andreak?

*Aman.*- Argi-mutil ori ar zazu, ta juan egin bear degu. Gero, beti bezela, atia sendo itxiko dezu. (*Enrike'ri*) Atia itxitzeaz ez dezu noski ajolik izango?

*Enri.*- Nik? Ez ta batere.

(*Xiriako'k argi-mutilla artu du ta atean itxoiten dago. Amantxi'k eta Andre Brijida'k ate aldera egiten dute.*)

*Aman.*- Orduan baguaz.

*Enri.*- Baña, juan baño len, ez didazu pozgarrizko itz goxo bat esan bear?

*Aman.*- Zorapenetik gaizkatzen naubenena izango naiz ni.

*Enri.*- Orduan neria zera.

(*Amantxi ta Andre Brijida eskuiko atetik juaten dira. Ondotik, Xiriako argi-mutillarekin. Antzertokia illunpetan gelditzen da.*)

## VIII

### *Enrike, Titibiliti eta zomorrotxoak*

*Enri.*- Bai; neria izango da. Ni bezelako larritasunetan arkitu dan gizon batentzat, aur-jolasak besterik ez dira abek. (*Atia itxitzen entzuten da.*) Atia itxi dute; beaz, gela ontako nagusi



naiz, eta nagusi bezela exeri naien. (*Exer-tzen da.*) Ludi berrian ainbeste larri-alditan arkitu; ta, ludi zarrera biurtu naizenerako, ona emen ere ustekabeak. Ba... au besterik ez bada... Lo egingo det nik Iasai eser-toki eroso onetan... (*Sukaldetxoan jira guzia argi orlegiz piztutzen da. Enrike bat-batetan altxatzen da.*) E! Edo nere begiak nastutu dira, edo-ta atze ortan zerbait ikusten det.

*Titib.*- (*Sukalde barrenetik, bera ikusi gabe, lur-zulo-ko abotsarekin.*) Eroriko naiz? (*Enrikek eskuiko ate aldera itzul egiteko bezela egi-ten du, baña gelditzen da.*)

*Enri.*- Ez; ezpatadun gizon batek ez du orrenbeste-  
rekin bildurdu biar.

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Eskuiko oin bat sukaldetxoan agertzen da. Enrike oso ikaraturik dago.*) Nik uste baño lan latzagoari eraso diyot.

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Ezkerreko oin bat sukaldetxoan agertzen da.*) Orrela baguaz, ez dakit zenbat ikusi bearko ditugun.

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Sukaldetxoan gorputz bat agertzen da, lengo oñakin bat egiten duela.*) Gora guaz.

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Sukaldetxoan gorputzari eskuiko besoa azaltzen zaio.*)

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Sukaldetxoan gorputzari ezkerreko besoa azaltzen zaio.*) Oraintxe neriak egin duela uste det.

*Titib.*- Eroriko naiz? (*Enrike eskui-atera juaten da, baña itxiya dagola ikusten du.*)

*Enri.*- Itxiya! Galdua naiz! Aurre eman bearko. (*Ezpatan eskua jarri ta sukaldera begira jartzen da.*)

*Titib.*- Eroriko naiz?

*Enri.*- Erori adi, nai badek. (*Titibiliti oso-osoa sukaldetxoan azaltzen da. Bereala bere beatzakin Enrike zorutzen du, ta au atzeraka joaten da, esertokian oso zoraturik etzan arte.*)

*Titib.*- Zoratua gelditzen aiz.

*Enri.*- Ni... zoratua!

*Titib.*- I, bai. Ta ire eginberra izango dek, txistua entzuten dekan guzian dantzatu bearra.

*Enri.*- Nola, ordia, dantzan ez badakit?

*Titib.*- Orain ikasiko dek. (*Lenbizi sukaldetxotik jasoko du txistu bat, eta joko du zerbait. Gero, atabal-makil bat, eta sabela arekin jotzen du, atabala balitz bezela. Botoiak estutuaz soñua bizitu azitzen du. Orduan alki baten gañera igotzen da ta soñua jotzen du. Bereala sukaldetxotik zomorrotxoak irteten dira; ta, dantzatu ondoren, etorri bezela juaten dira. Titibiliti Enrikerengana juaten da.*) Badakik, e? Emendik aurrera, txixtua entzuten dekan guzian, dantza-tu bearko dek.

*Enri.*- Nola, ordia?

*Titib.*- Nola? Onela. (*Titibiliti'k txistua jo, ta Enrike dantzan asten da.*)

*Zapia geldi-geldi jetxi bedi.*

## BIGARREN EGINTZA

*Iruditegia lenengo egintzan bezela ipiña: egunez da, ordia, ta argia leiotik sartzen da.*

### I

*Andre Brijida ta Xiriako. Azkenean Andre Nikolasa.*

*Brij.* - Zer izan da bart?

*Xiri.* - Andrea, bart beñere baño lenago asi ziran zarata eta barbullak. Atia itxi ta beriala, lenbiziko karraxiak entzun nituen.

*Brij.* - Betaz asi ziran, beaz...

*Xiri.* - Bai, andrea. Gero txixtua entzun nuen, eta dantzan zebiltzala ziruditen.

*Brij.* - Betikoa.

*Xiri.* - Bai, andrea. Orrela, ixkanbilla ikaragarrian gau guzian jarraitu dute. Goiz-aldera ixiltzen jua dira; ta, egun argiak bat, bare ta paketsu gelditu gera.

*Brij.* - Ta zer egin du Enrike'k?

*Xiri.* - Andrea... Nik, agindu bezela, seietan atia iriki det. Zaldun ura alki orretan exerita zegon: eta, atia zabalik ikusi duenean, itzik esan gabe tximixtak egiten jua da.

*Brij.* - Ta ez diozu ezer igerri?

*Xiri.* - Andrea... Nere iritzian, lo gutxi egintako arpe-  
gia zeraman; eta, gañera, ler egiña zegola  
zirudien.

*Brij.* - Eta itz bat ez esatia...

*Xiri.* - Ez ta ja-rik ere.

*Brij.* - Orain ez dakigu zoratzalleak menperatu  
dituen edo zer egin duen...

*Niko.* - (Eskuiko atetik *sartuaz.*) Ona emen uste  
gabeko ikustalaria.

*Brij.* - Andre Nikolasa, ez nuen uste orren goiz eto-  
rriko ziñanik.

*Niko.* - Ez da nik ere.

*Brij.* - A!

*Niko.* - Esango dizut.

*Xiri.* - Ezer geiago bear ez badezu...

*Brij.* - Ez; juan zintezke, Xiriako. (*Xiriako eskuiko  
atetik juaten da.*)

## II

### *Andre Brijida ta Andre Nikolasa*

*Niko.* - Ez nuen oraindik onera etortzeko asmorik;  
baña; eleizatik atera ta etxera nijuala, txix-  
tularia ikusi det emen, atarian.

*Brij.* - A! Bai.

*Niko.* - Neregan esan det: Amantxi'k berri onen bat  
badu.

*Brij.* - - Bai zera...

*Niko.* - Txixtularia atietara ekarri dutenian, zoriona  
etxian dutela ezagun da.

*Brij.* - Obe genuke bada. Ez, andre Nikolasa, ez.  
Txixtulari ori ez da onerako.

*Niko.* - Etxe onen atarian bertan zegoen bada.

*Brij.* - Bai, baña aurreko etxerako da.

*Niko.* - Onerako uste nuen nik.

*Brij.* - Ez gaude emen txixtu ta jolasetarako. Aurreko  
etxe leio-gorri orretan eztaiak dituzte.

*Niko.* - A! Eztaiak...

*Brij.* - Bai.

*Niko.* - Eta ezkontzen dan emakumia ezkongai al da?

*Brij.* - Ez; alarguna.

*Niko.* - Ikusten dezu? Ezkongai batentzat, bi alargun  
ezkontzen dira.

*Brij.* - Ez dakit ori orrela dan: baña gaur ezkontzen  
dana beintzat alarguna da.

*Niko.* - Bai noski. Ta guziya kaskamotz oiengatik.

*Brij.* - Zure irudipenak.

*Niko.* - Ez, ez. Nik uste det, garaiz ezkontzeko, nex-  
kak alargun jaio bear lutekela. Bitartian ez  
dago gauz onik.

*Brij.* - Zure esanak dira oiek.

*Niko.* - Bai, bai... Eta atzotik ez dezute noski ezer  
berririk izango...

*Brij.* - Bai; badegu.

*Niko.* - Bai?

*Brij.* - Zu jua ta beriala. Andia'tar Enrike etorri  
zitzaigun.

*Niko.* - Etxera?

*Brij.* - Bai.

*Niko.* - Jakin izan banu!

*Brij.* - Zuk agindu bezela, zorapenetik gaizkatzen  
zuenena izango zala Amantxi'k esan zion.

*Niko.* - Ederki.

*Brij.* - Eta, zoratzalleak bere ezpatarekin txetuko zituela esanaz, Enrike gela onetan atia itxi-ta gelditu zan.

*Niko.* - Eta emen egon al da?

*Brij.* - Gau guziyan.

*Niko.* - Eta zer gertatu da?

*Brij.* - Zu etorri zeranean, Xiriako'ri galdetzen ari nitzaion. Arrek esan duenez, seietan itzik esan gabe alde egin du, eta ez dakigu zoratzalleak menperatu dituen edo zer egin duen.

*Niko.* - (*Alki-azpiak-eta usmatuaz.*) Menperatu izan balitu, gelditu bear zuten emen sudur muturren bat, belarrien batzuek edo beste zer bait; baña ez da ezer ere agiri.

*Brij.* - Ez da lorratzik gelditu.

*Niko.* - Berekin ez zituen bada eramango...

*Brij.* - Zertarako?

*Niko.* - Ez dakigu bada.

*Brij.* - Amantxi bere gelan dago, ta Xiriako'k eman dizkidan berriak esatera nijoakio. Zu emen egongo zera noski?

*Niko.* - Bai; etorri naizen ezkerero, ez nuke juan nai Amantxi'ri agur egin gabe.

*Brij.* - Bereala emen gera bada.

*Niko.* - Gero arte. (*Andre Brijida eskuiko atetik juaten da.*)

### III

*Andre Nikolasa. Gero Xiriako.*

*Niko.*- Txatxalaxak dira abek ere. Gizona itxiyan gau guziyan euki, ta geiago zentzutasun gabe alde egiten utzi. A! Etzeuden nere barruan. Neri esan bearko zizkidan zuzen eta garbi bart gabeko gertaerak. Etzuen etxe ontatik juaten lanik izango, gauzen berri ondo ta zearo eman bitartian. Baña abek, morroia-  
ren gain utzi guziya ta lo goxo-goxo. Abek jende lasaiak! Ezagun dute, bai, elgoibartarrak ez dirala.

*Xiri.*- (*Eskuiko atean azalduaz.*) Andrea, ez al da oraindik etorri etxeokoandrea?

*Niko.*- Ez; baña bereala dator.

*Xiri.*- Galdezka ziran ta...

*Niko.* - Nor da?

*Xiri.*- Andia'tar Enrike zalduna.

*Niko.*- A! Datorrela, datorrela.

*Xiri.*- Etxekoandreak galdetzen du, ordia...

*Niko.*- Ez dio ajolik. Etxekoandria etorri bitartean, nerekin egongo da. Datorrela, datorrela.

*Xiri.*- Esango diot.

*Niko.*- Bai, bai. Ez deiela etorri gabe gelditu. Esaiozue.

*Xiri.*- Bai, andrea. (*Xiriako eskuiko atetik juaten da.*)

*Niko.*- Neri ez dit itzul egingo, ez. Bera etortzen ez bada, neroni juango natzaio dagon tokira. (*Esertzen da.*)

## IV

### *Andre Nikolasa ta Enrike*

*Enri.*- (Eskuiko atean azaltzen da, ta agur egin ondoren.) *Andrea*,...

*Niko.*- Ongi etorri. Amantxi bereala emen dezu.

*Enri.*- Berarekin egoteko asmoan etorri naiz.

*Niko.*- Ni ere bere zai nago.

*Enri.*- Itxoingo diot orduan.

*Niko.*- Ederki. Zu zera, beaz, Andia'tar Enrike.

*Enri.*- Bai, andrea.

*Niko.*- Orra. Ni Amantxi'ren Elgoibar'ko aidietakoa naiz. Eta bagenekigun Loreaga'tarrak Andia'tarrakin izan duten betiko adiskidetasun ezin geiagokoa.

*Enri.*- Bai, andrea.

*Niko.*- Makiña bat aldiz aitaturtako Enrike. Gure etxean, Enrike gora ta Enrike bera, etzan beste ezertzaz itzegiten.

*Enri.*- Eskerrik asko.

*Niko.*- Jakin genuen nola Ameriketara juan ziñan, toki arrigarrietan arkitu ziñala, larrialdi estutsuai aurre eman zeniotela, onlako ta alako egin zenituela; ta, azkenik, zu juan ezkeroko berririk etzala esan ziguten.

*Enri.*- Nai ta ere ezin berririk bigaldu toki urrutiko aietatik.

*Niko.*- Ez noski. Etorri ziñala ere jakin nuen.

*Enri.*- Egun batzuek badira.

*Niko.*- Ta gaur esan dirate bart arratsa gela onetan igaroa zerala.



*Enri.*- (*Enrike'k sukaldetxora begiraten du, ta Andre Nikolasa'k ere bai.*) Bai, andrea.

*Niko.*- Zorapena ote dan edo ez ote dan...

*Enri.*- Ala diote.

*Niko.*- Bai; ta zu zure ezpatarekin zoratzalleak zati-tzeko asmoan gelditu ziñala.

*Enri.*- Orrelako zerbait da, bai, andria.

*Niko.*- Ta ezeren aztarnik arrkitu al dezu?

*Enri.*- (*Enrike'k sukaldetxora begiraten du; Andre Nikolasa'k ere bai.*) Ez ta ezertxo're.

*Niko.*- (Gezurra!) Zer egin dezu bada gau guzian?

*Enri.*- Nik? Lo lasai asko.

*Niko.*- (Gezurretan ari da au.) Ta emen ikaragarritzko ixkanbilla ta zalapartak izaten dirala ta...

*Enri.*- Ez det nik beintzat batere entzun.

*Niko.*- Zoratzalle ausart zalapartgilleak erortzen dirala ere esaten dute.

*Enri.*- Erortzen... eroriko... eroriko... (*Enrike'k sukaldetxora begiraten du; Andre Nikola-sa'k ere bai.*) Ez; bart ez da iñor erori.

*Niko.*- (Gezurra ta gezurra.) Etziñan bada ikaraz txepelduta geldituko...

*Enri.*- Txepelduta! Ameriketari bere bulartsutasunaren agiri sukoa eman duen gizona!

*Niko.*- Begira: Ameriketari gertatuaz ez dit neri ajolik; bart gela ontan zer izan dan, ori da nik jakin nai detana.

*Enri.*- Arriskorik estuenetan kementsu agertu dana, emengo jostaketak bildurtu lezatekela uste dezu.

*Niko.*- Zerbait esan liteke.

*Enri.*- Debarren izena goieneko malletara igo degu guk Ameriketari.

*Niko.*- Bai; urrutiko intxaurreak.

*Enri.*- Debarren neurrikorik ez da an iñor azaldu.

*Niko.*- Gizona. etzazula zure burua orrenbeste puztutu.

*Enri.*- Non arkituko dituzu Debako semiakin berdindu litezken gizonak?

*Niko.*- (*Andre Nikolasa altxatzen da.*) Non? Elgoibar'en bertan ere bai.

*Enri.*- Elgoibar'en, debar kementsu Arriola baten aldamenean jarri litekenik!...

*Niko.*- Aldamenean ez; baña gañian lasai asko jarri litekena, ortxen daukagu Karkizano, elgoibartar bildurgabia.

*Enri.*- Ba... Ba... Debarren egipen kementsuak esango banizkizu, txoraturik geldituko ziñake.

*Niko.*- Ta nik elgoibartarrenak esan ezkerro, zu mutututa.

*Enri.*- Bat bakarra esango dizut.

*Niko.*- Nik milla esango nizkizuke.

*Enri.*- Bai: baña nere bat bakarra zure millak baño geiago da.

*Niko.*- Edo bestia.

*Enri.*- Entzun nazazu: Peru'tik Txile aldera juanak giñan. Aurrean, biltzen ginduztela, arerio, etsai mota guzietakoak agertu zitzaizkigun. Guzitatik bazan an. Baita guaitakazuak ere. Abek, ezagutu dan ikaragarrienetakoa dira. Arrapatzen duten gizona, ollaxkua balitz bezela il eta jaten dute.

*Niko.*- Gizona jan! Ori bai ez detala txinixten.

*Enri.*- Jan, bai. Ori dute jakirik gogotsuena.

*Niko.*- Debarrak jango al dituzte; elgoibartarrik beintzat ez.

Enri.- Zergatik?

Niko.- Elgoibar'en gizon ollaxkorik ez dalako. Elgoi-bartarrak jan! A zer triparrabiyak izango lituzteken!

Enri.- Indioak erruz ziran. Belarrietatik eta sudu-rretik ezurrak zintzilik zituztela, buruak egaki, luma ikusgarriaz apainduak, oju ta karraxi guregana zetozen. Guk alderatzen utzi genioten, eta bertaratu ziranian,... *(Enrike'k sukaldetxora begiratzen du. Andre Nikolasa'k ere bai.)* Bertaratu ziranian, aurreratu nitzan ni ta... *(Une onetan txixtulariaren soñua entzuten da, ta Enrike ero bat bezela dantzan asten da.)*

Niko.- Oi! Dantzan asi al ziñan?... Bai, bai... Ta gero zer?... Naikua dezu, gizona... Aski da... Aski da... Ez da au geldituko... Naikua dala... Nola gelditu aziko ote nuke?... A! Txixtularia ixildu aziko det. *(Leiora juan eta andik ojuka.)* E! Zu! Ixildu zaitte! *(Txixtua ixiltzen da eta une berean Enrike gelditzen da.)*

Enri.- Noizbait ere! Lertuko nitzala uste nuen!

Niko.- *(Leiotik.)* Pixka batian, otoi, ixilik egon zaitte.

Enri.- Berriz dantzan egin arazi baño len, itzul egin dezadan. *(Eskuiko atetik lasterka juaten da.)*

Niko.- *(Leiotik.)* Eskerrik asko. *(Enrike itzuli dijuala ikusita. bere ondoren eskuiko atera juanaz.)* E! Zu! Nora zuaz? Nork gelditu arazi! Abiadura ona darama.

*Andre Nikolasa. Bereala Amantxi ta Andre Brijida.  
Azkenean Karmentxo:*

- Niko.*- Azkenian, debarren gertaera burrunbatsua jakin gabe gelditu gera. Dantzari bikaña dala azaldu du; baña besterik ez.
- Aman.*- (Amantxi ta Andre Brijida eskuiko atetik sartzen dira.) Andre Nikolasa,...
- Niko.*- Amantxi, ... (*Alkarri musu ematen diote.*)
- Brij.*- Enrike emen dala esan digute.
- Niko.*- Bai; emen izan da. Dantza puska bat egin ta aidian an jua da.
- Brij.*- Biyak dantzatu al zerate?
- Niko.*- Ez du lagun biarrrik. Bakarrik ederki egiten du.
- Aman.*- Enrike'tzaz zer deizkiozu?
- Brij.*- Ezer jakin al dezu?
- Niko.*- (*Beste biyak bere ondoan bilduaz.*) Enrike ori berebiziko gezurtia da.
- Aman.*- Orra...
- Brij.*- Bai. e?
- Niko.*- Esan diran guziya gezurra da. Ez duela ezer ikusi, ez duela ezer entzun, ez duela emen inork txintik atera, berak lo lasai egin duela...
- Brij.*- Zer ziran bada Xiriakok entzun dituen barbu-lla ta zaratak?
- Niko.*- Enrike'ren zurrungak izango ziran noski.
- Brij.*- Ederrak...
- Aman.*- Ezagun da, bai, gezurretan ari dala.
- Niko.*- Eta neri sartu nai ziran ziriya! Debarrak, elgoibartarrak baño pizkorrago ta bikaña-goak dirala esanaz! Neri?...

*Brij.* - Toki onian asi da bada...

*Niko.* - Ez diot utzi, ez. Ederki dantzatu azi det.

*Aman.* - Txinixten dizut.

*Niko.* - Ai, ez. Nik ez det dantzatu azi; bera dantzatu da.

*Brij.* - Ederrak esango zenizkion beintzat.

*Niko.* - Ori bai. Gero, bi itz esan ordurako, atzera biurtu ta... (*Irurak sukaldetxora begiratzten dute.*) sukaldetxoari begira onela jartzen zan. Berriz ere, zerbait esan ordurako, bi begiyak bere ortantxe jartzen zituen. (*Iru-rak sukaldetxora begiratzten dute.*) Ez dakit zer zuen sukaldetxo ortan.

*Aman.* - Lenago ere sukaldetxo orretzaz zerbait igarriak gera.

*Niko.* - Ontan, aurreko eztaietako txixtularia soñu jotzen asi da, ta gure gizonak dantzari ekin dio, baztar guziak purrukatzeko zorian. Ta zeñek gelditu arazi? Nere alegiñak, beintzat, alperrik izan dira. Azkenian txixtularia ixildu azi biar izan det. Neretzako, gizon ori bart arratsian zoratu egin dute.

*Brij.* - Ori izango da guziya.

*Niko.* - Orrekin ez dago gizonik.

*Aman.* - Ez; bestiari eutsi biarko.

*Niko.* - Bai, bai: beste orrengana txirrixatzen zerala len ere ezagutu dizut.

*Aman.* - Ai! Ori ez! Ni zure esanean zintzo egon naiz. Ia nork gaizkatzen nauen esan det: edo batak bere ezpatarekin edo bestiak bere latiñakin.

*Niko.* - Eta bestiaren latiñetan estropozo egin dezu.

*Aman.* - Ez, ez.

*Karm.* - (*Eskuiko atetik sartuaz.*) Izeba.

*Niko.*- Karmentxo!

*Aman.*- Karmentxo!

*Karm.*- (*Amantxi'rengana juan eta musu emanaz.*)  
Amantxi,...

*Aman.*- Nere kuttuna, emen al zera?

*Karm.*- (*Andre Nikolasa'rengana juan eta musu emanaz.*) Andrea,...

*Niko.*- Egunetik egunera ederragoa arkitzen zaitut...  
eta kaskamotzagua.

*Karm.*- (*Andre Brigida'ri.*) Aitak bigaltzen nau, giltzak zerorrek in ekarri dituzula...

*Brij.*- E?

*Karm.*- Eta jantziak ateratzerik ez daukala...

*Brij.*- Egia diozu. Au nere burua! Izan ere, egun abetan, etxe ontako katramillakin ez nago ezertarako.

*Aman.*- Ez da arritzekoa.

*Niko.*- Ez noski.

*Brij.*- (*Karmentxo'ri giltzak erakutsiaz.*) Torizki-zu... eta esaiozu... edo ez; zaude zu emen; Amantxi'ri lagun egiozu, ta neroni juango naiz.

*Niko.*- Lagunduko dizut.

*Aman.*- Zu ere ba al zuaz, andre Nikolasa?

*Niko.*- Nagon etxeokak galdu ez naizela jakin dezaten.

*Brij.*- Bereala etorriko naiz.

*Niko.*- Ni ere bai. Emengo gertaeren amaia ikusteko zaleturik nago-ta.

*Aman.*- Gero arte orduan.

*Niko.*- Agur.

*Brij.*- Agur. (*Andre Nikolsa ta Andre Brijida eskuiko atetik juaten dira.*)

## VI

### *Amantxi ta Karmentxo. Azkenean Xiriako.*

*Aman.*- Atoz onera, Karmentxo; exeri zaitia. (*Biyak exertzen dira.*) Esaizkidazu: lagun asko bildu al ziñaten atzo?

*Karm.*- Amarretaraño bagiñan.

*Aman.*- Asko. Ta abestia ondo atera al zenuten?

*Karm.*- Sor Patrozinio'k ala zion.

*Aman.*- Sor Patrozinio'k esan ezkerro, ala izan bear-ko du bada.

*Karm.*- Bai...

*Aman.*- Bai, noski. Zuentzako, Jaungoikoaren urre-na Sor Patrozinio dala uste det.

*Karm.*- Orrenbesteraño ez.

*Aman.*- Orrela berenganatzeko, zer ematen dizute mojak?

*Karm.*- Atzo goxuak eman zizkiguten.

*Aman.*- Eta goxuak egongo ziran?

*Karm.*- Goxo-goxuak. Mojak egiñak ziran ta...

*Aman.*- Orduan zer esanik ez dago. Izebak egin balitu, aitzaki apurren bat izan zezatekean; baña mojak egin ezkerro...

*Karm.*- Izebak ere oso gozatsuak egiten badaki

*Aman.*- Bai, noski.

*Karm.*- Baña atzokuak Sor Patrozinio'k egiñak ziran.

*Aman.*- Zer? Emakume orrek goxuak egiten ere bai al daki?

*Karm.*- Banan-banakuak egiten ditu. Sor Patrozinio'k egiñak diranian, beriala ezagutzen ditugu.

*Aman.*- Baña emakume orrek guztitatik badaki...

*Karm.*- Guztitatik. Eta guzitarako artakua da.  
Orrek abestiak zuzentzen ditu, aldareak  
lore ikusgarriekin apaindu, aldare-zapi ta  
apaiz-jantziak bere eskuz eratu...

*Aman.*-- Eta orretzek Azkoiti'ko neskatzik politenak  
bereganatzen ditu.

*Xiri.*- (*Eskuiko atean azalduaz.*) Jausoro'ko Esteban  
zalduna.

*Aman.*- Datorrela. (*Xiriako juaten da.*) Zer dion  
entzungo diogu.

## VII

### *Lengoak eta Esteban*

*Est.*- (*Esteban eskuiko lenbiziko atean azaltzen da, ta  
bi emakumeak itzal aundiarekin agurtzen  
ditu.*) *Salvete.* (*Amantxi'rengana aurreratzen  
da.*) Eguzki-gurdia, Plus. Eus, Eton eta Fle-  
gon zaldi aidetsu ta susparrak dituela, Febo  
illezkorrak zeru urdiñean azaltzen duenean,  
bere errañu bizikariak gizadia argiz anpa-  
tzen dute, ta lur barreneko sustrai ugari-  
tsuak jan-ale marduletan zabaltzen dituzte.  
Zure edertasun zoragillea azaltzean, berdin  
gertatzen da. Begietan argi ametsgillea  
usmatzen da; biotzean alaitasun, poz, goza-  
ki neurrigabea. Zoragarria zera, Amantxi.  
(*Amantxi'ri eskuan muñ egiten dio.*)

*Aman.*- Zure erara erantzuteko nere adimen  
kamutsak ez du itzik arkitzen.

*Est.*- Zure begietako txinpart batek nere itzik bigu-  
ñenak baño goitasun geiago du.

*Aman.*- Eskerrik asko

*Est.*- Emen degu Karmentxo ere.



*Karm.* - Jauna,...

*Est.* - Badet bada nik gertaera bat zuri esan bearra.

*Karm.* - Neri?

*Est.* - Bai. Ez da nik asmatua, Izarraitz'ko artzaiak esan didate. *Sapiens nihil affirmat quod non probet.* Esatera nuakizuna izango da, beaz, *secundum pastores.*

*Karm.* - Zer ote da?

*Aman.* - Orain jakingo degu.

*Est.* - Bart arratseko gauza da. Eguneko ibilketaz nekaturik, ango Oreadeak, beren buruak kapusai beltzetan bildu ondoren, lurra illunpean utzi zuten. Harpocrato'k, beatza ezpañetan jarririk, gizadiko lengai guztiak ixilik gelditu arazi zituen, eta etziran entzuten ez Boreo'ren aize burrunbatsuen txixtu larritsuak, ez Auster'en aize biguin, epel, xamurren susmur opagarriak. Eolo'ren menpeko guztiak ixilketa artan bat egin zuten. Mendiko errekatxo berrituak ere beren betiko mur-mur jostalaria gelditu zutela zirudien. Etzan entzuten, ez ardienek bee errukarria, ez eltxo ta pixti purtzillen burrunba aspergillea. Igelak ere beren gabe-roko erestia utzita, mututurik zeuden. Itz batian: etzan kinkik ere nabaitzen. Bañan, ixiltasun eta illuntasun esan ezin alako arretan, artzaien begi zorrotzak millaka txoritxuak begiztatu zitazten. An zeuden:

txirrixkalariak  
abeslari trebiak;

an enara egalari pizkorrak; tarin, txorru, birigarro margo bizidunak; txantxangorri, txepetx, ormatxori ezin aseak. Guztiak loari utzita, begiak irten bearrian, zalantza

bizian zeuden. Zugatz-adarme batean dardarizoka, karnaba kaska-gorri bat guzien gain ageri zan. Pago lodi urtetsuko kabi leun epel batean, ama ta umetxuak, guztiyak buruak atera nai ta ezin atera, lei gogorra zebilten: eta arkaitz-zulo batean, goroldio gañean, xoxo zar, elbarritu bat, lerdia zeriola, mokua luzaturik zegon...

*Karm.* - Baña... zer egiten zuten txori aiek?

*Est.* - Azkoiti'ko neskatxik panpoxenak Santa Klara'n azaltzen zituzten abestiak entzuten zeuden.

*Aman.* - Zuregatik ari da, Karmentxo.

*Karm.* - Esteban jauna, iseka...,

*Est.* - Ez da nik asmatua. *Suum cuique*. Izarraitz'ko artzaiak esan didate.

*Aman.* - Bai; Esteban besterenaz lasai ari da; bañan bererik ez digu oraindik aitatu ere.

*Est.* - Zer gero?

*Aman.* - Aita Zirilo'ri... ta zuri... entzuteko, Balda jauregian bart izan zenuten billeraz ez dakigu ezer.

*Est.* - Guziya jakingo dezute. Orretaraxe etorri naiz.

*Karm.* - Bai; orretara ta neri iseka egitera.

*Est.* - Asketsi. Aita Zirilo'ren itzaldia... *Mirabile dictu!*, gauza arrigarria izan zan. Ni berari entzuten txoraturik egon nitzan. Neretzat, atzoko eguna, *albo lapillo notare diem* (7) izan zan.

*Aman.* - Orra.

*Est.* - Guzi-guziya esango dizutet.

*Aman.* - Entzungo dizugu.

---

(7) Arri txuriz apuntatu bear litzaken eguna: egun ospetsu ta atsegiña.

## VIII

*Lengoak; bereala Andre Nikolasa,  
gero Andre Brijida, geroago Enrike ta Xiriako.*

*Est.*- Dante ta Petrarka'ren lan bereziak aitatuaz, bere itzaldiari asiera eman zion. Bien arteko zantzuak argi ta garbi azaldurik, lenengoen-gatik esaten zuen: *Auctor venatus fuit ubique quidquid faciebat ad suum propositum...*

*Niko.*- (*Eskuiko atetik sartuaz.*) Emen naiz ni berriz.

*Aman.*- Ongi etorri, Andre Nikolasa.

*Karm.*- Andrea...

*Est.*- (*Andre Nikolasa'rengana juan eta eskuan muñ emanaz.*) Artu itzazu nere agurpen zintzoak.

*Niko.*- Eskerrik asko. (Atzo baño koipe gutxiagi dauka. Agortu egingo zan au ere.)

*Aman.*- (*Amantxi'k eskeintzen dio bera dagon esertokia, baña Andre Nikolasa aurreko alkian esertzen da.*) Atzoko billeraren berri ematen ari zitzaigun.

*Niko.*- Orra; ta nik, jakin gabe, geldi arazo. Tamal-garri da...

*Aman.*- Ez dio ajolik. Berriz esango digu.

*Est.*- Gogo biziz. Bigarren aldiz esango det: Dante ta Petrarka'ren lan bereziak aitatuaz, bere itzaldiari asiera eman zion. Bien arteko zantzuak argi ta garbi azaldurik, lenengoen-gatik esaten zuen: *Auxtor venatus fuit ubique quidquid faciebat ad suum propositum...*

*Brij.*- (*Eskuiko atetik sartuaz.*) Ez dezute esango asko luzatu naizela.

*Aman.*- Ez orixe.

*Niko.*- Azkar ibilli zera.

*Est.* - (*Andre Brijida'rengana juan eta eskuan muñ emanaz.*) Andre Brijida, beti zure menpeko.

*Brij.* - Eskerrik asko.

*Karm.* - Aita atsegindu al da?

*Brij.* - Gizonak, berena egin ezkeru, bereala atsegin-tzen dira. (*Andre Brijida esertzen da.*)

*Aman.* - Orain, Esteban, barko billeraren berri ematen ari zitzaigun.

*Brij.* - Jakin naia banuen bada nik ere.

*Aman.* - Bigarren aldiz esango digu.

*Est.* - Ez, Amantxi.

*Aman.* - Nola?

*Est.* - Irugarren aldiz.

*Aman.* - A, bai!

*Est.* - Irugarren aldiz, eta pozik, esango dizutet: Dante ta Petrarka'ren lan bereziak aita-tuaz, bere itzaldiari asiera eman zion. Bien arteko zantzuak argi ta garbi azaldurik, lenengoengatik esaten zuen: *Auxtor venatus fuit ubique quidquid faciebat ad suum propositum...*

(*Barrenen ikaragarritzko ixkanbilla entzuten da. Enrike ta Xiriako dira. Beste oju artean entzuten da Xiriako esanaz: "Baimena izan arte itxoin "; eta Enrike'k: "Ez det nik baimen biarrik". Emakumeak zutik jartzen dira.*)

*Aman.* - Zer da ixkanbil ori?

*Brij.* - Zer dabilta or?

*Karm.* - Izeba!

*Niko.* - Emen degu kurkumixa.

*Aman.* - (*Otsak geroago ta alderago ta pizkorrago.*)

Baña zer dute karraxi oiekin?

*Niko.* - Dantzatzera ote dator berriz?...

*Xiri.* - (Une onetan Enrike ta Xiriako buruka, eskuiko atean azaltzen dira.) Geldi emen! Geldi!

*Enri.* - Zuaz emendik ukullura! (Enrikek Xiriako atzera botatzen du; ta, Amantxi ikusirik, beregana oso asarre juaten da. Xiriako atean gelditzen da.) Maltzur alena, emen al zera?...

*Aman.* - Enrike,...

*Enri.* - Ongi esan zenuen emengo gertaera guziyak ez nekizkiela. (Andre Brijida'ri.) Egiya zenion erdirik ere ez nekiela...

*Brij.* - Badakizu zergatik esan nizun.

*Aman.* - Ez dakit zertara zatozen orain orrekin.

*Enri.* - Zuri esatera erdirik ez nekiela, batere ez nekiela: baña orain guziya jakin detala.

*Aman.* - Zer gero?

*Enri.* - Ni zorapen tartean nebilkizun bitartean, gizon exkallu batekin maitasunezko bideetan zebiltzala. Oiek emakume lasai, lizun-en egipenak dira...

*Aman.* - (Lau emakumeak batean.) Itz oiek...

*Niko.* - Lotsagabea!

*Brij.* - Petrala!

*Karm.* - Txatxua!

*Est.* - Gizon exkallu onek erakutsiko dizu itz oiek ez dirala emakume bati esatekoak.

*Enri.* - Xaxi-tanboliñ ori al da zure kuttuna?

*Aman.* - Ori... zu ez bezelako zalduna.

*Brij.* - Bai, noski.

*Karm.* - Esango nuke.

*Niko.* - Ta beriak aundiaguak.

*Est.* - Xaxi-tanboliñ au dantzatu aziko zaitu zu.

*Enri.* - Ez dezu orretarako kemenik...

*Est.* - Beti izan det onetarako: *Parce subjectis eta debelare superbos.*

*Enri.* - Zer eskubiderekin gai ontan sartzen zera?

*Est.* - Emakumearen alde ateratzeko gizon ongi azi guztiak dutenarekin.

*Enri.* - Emakume ori, jaio baño lenago ere neria zan.

*Est.* - Jaio baño len zuria izango zan; jaio ta gero neria izango da.

*Enri.* - Nik ezpata detan bitartian, ez da ori zuria izango.

*Est.* - Zure ezpata erantzuteko, emen daukat nik bestia.

*(Esteban'ek ezpata ateratzen du. Enrike'k bere ezpata-ri eltzen dio. Emakumeak karraxi egiten dute. Amantxi, Andre Brijida ta Karmen txo Esteban'engana juaten dira. Andre Nikola-sa Enrike'rengana. Xiriako ere Enrike'ri eltze-ko eran jartzen da.)*

*Aman.* - Ai, ez! Enrike!

*Niko.* Geldirik, gizona!

*Enri.* - Orain jakingo dezu nere ezpata zer dan. *(Enrike, ezpata ateratzeko keñu egiñaz, Esteban'engana aurreratzen da. Emakumeak karraxi egiten dute. Une onetan txixtularia- ren soñua entzuten da, ta Enrike dantzan asten da.)*

*Est.* - E! Iseka neri!

*Niko.* - *(Estebanengana lasterka juanta.)* Ez. Zorape- na du, zorapena. *(Emakumeak Enrike bil- tzen dute ta gertaeren berri ematen diote. Estebanek ezpata zorroan sartzen du. Andre Nikolasa leiora juaten da.)* Ixo! Ixo! *(Txistua ixiltzen da, ta Enrike gelditu lenbizi ta bereala iruditegian aurreratzen da.)*

*Enri.*- Orain ere menpetu naute; baña nere almenak guztiyen gain ezartzeko bidia erakutsiko dit. Ez naute, ez, iñoren aurrian parragarri jarriko... *(Une onetan txixtulariaren soñua entzuten da. Enrikek dantzari ekiten dio. Emakumeak leiora juaten dira.)*

*Emakumeak.*- Ixo! Ixo!

*(Txixtua ixiltzen da ta Enrike gelditzen da. Emakumeak Esteban'en ondoan biltzen dira. Enrike itzul egiteko antzean eskuiko atera juaten da ta andik ojuka esaten du:)*

*Enri.*- Or gelditzen zera, Amantxi! Ni banua berriz Ameriketara! *(Enrike juaten da, ta ondoren Xiriako.)*

*Niko.*- Ondo... dantzatu.

*(Esteban ta Amantxi erdian dituztela, guztiak aurreratzten dira.)*

*Est.*- Ez nekien ezer ere.

*Brij.*- Oietxek ziran etxe onetako katramillak.

*Est.*- Bada gauzak erabaki erreza du. *(Amantxi'ri.)*  
Zuk nere emazte izan naiko dezu noski?

*Aman.*- Bai, Esteban; zuria izango naiz.

*Niko.*- Bai: orixe ezpañetatik txintxilik zegola igarria nitzan.

*Aman.*- Andre Nikolasa,...

*Est.*- Eta Jausoro'ra juango zera.

*Niko.*- Ori da. Etxez aldatu. Nik lenbizikotik esan detana.

*Aman.*- Baña... nere etxea utzi...

*Est.*- Ezkondu ezkerro, zure etxea Jausoro izango da.

*Brij.*- Ori da.

*Karm.*- Ederki.

*Est.* - Ta ez da izango beste zorapenik, zure edertasunak nere biotzari emango diona baizik.

*Brij.* - Orra gauzak nola amaitzen diran.

*Est.* - *Finis coronat opus.*

*Niko.* - (*Leiotik ojuka.*) Orain nai dezun guziya jo zenezake.

*Est.* - (*Esteban aurreratzen da iruditegian eta jendia-ri esaten dio:*) *Plaudite, cives. Acta est fabula.* (*Txixtularien soñua entzuten da.*)

*Ezkutazapia jaxten da.*



# ATERAKO GERA!

JOSTIRUDIA,  
EGINTZA BAKARRAN

TORIBIO ALZAGA-K  
IZKRIBATUA

Pozo eta c.<sup>a</sup>-ren moldizkiran.  
Fuenterrabia kalia. 6 lumeroan.  
DONOSTIAN.

On Marzelino Soroa Lasa jaunari

Euskerazko jostirudi izkribatzalle doainduna eta maisuari, donkitzen diot nere lenbiziko argitaratzen detan lana.

EGILLEAK.

### **Egintzalleak**

Anthon.  
Pello Atraka.  
Joxe Pipax.  
On Jose Jeolimo.  
Tanti (zelaoria).  
Patxi (ume koxkorra).

---

Gertaera iruditzen da Donostiyan.

=====

Donostian 1888-garren urteko Euskal-itz jostaldietan sariztatua eta batzarreak argitaratua.

## EGINTZA BAKARRA

*Iruditegiak aurkeztatzen du sagardoteri bat. Egilliaren ezkerretara barrika bat, nundik saltzen dan sagardua, eta ingurubetan upelak, barririkak, alki luziak, suba egiteko arriya, kargakua, onilla... Barrikatik zintzillik krisalluba, eta txoko batian erratza. Sarrerako atia, atzian, erdi aldian, iru bat malla jexten dirala. Eskuyian, aurre aldian, beste ate txiki bat, patiñara ematen dubena.*

### LENBIZIKO IRUDIA

1

ANTHON.

*(Burtiña altxatzeakuan agertzen da sarrerako atian, kanpora izketan. Gero aurreratzen da.)*

Aterako ote gera, bada? Abek ixtillubak oraingo lege berri txatxu (b) abekiñ! Eziñ gintezke orla iñola ere moldatu. Ez gera aterako! Nola, bada? Sagardua upelategira ekarri, eta andik denbora puska batera etorriko dira zinta traste batekiñ, eta neurtu batera, neurtu bestera, lumeruak egiñ, papela zikindu eta... orla asmatu oiek zenbat

sagardo dagon barrenen? Ori da neri sugu-  
rra neurtu eta zer jan detan asmatzia beze-  
la. Okerrena da, berriz, beti sagardo-jabien  
alde kontubak ateratzen dituztela; bai,  
noski, nik baño obeto esku azpitik ematen  
diyotelako. Oraingo jendiak uste dutelarik  
dena badakitela, ezer ez dakite... Ezta,  
bada, egiya? Orain sagardua dan ero ez  
dan ezagutzera eraman azitzen dizkigute  
muestrak zereko zeraren zerien zieren  
zurien zuluena... zera... guazen klarinete  
*kaniketakua*... ero dana dala. Aiek omen  
dakite... Beren bizi guztiyan ez zuten gero  
baso erdien bat erango're-ta, oiek guri era-  
kutsi zer dan sagardo ona! Oraindik, eus-  
keraz dakigun ero ez esatera, bialduko gai-  
tuzte Alemaniko konsulengana! Eraman  
genduben, orain dala denbora pixka bat  
ere, barrika ontatik muestra bat pitarren  
izenian, eta iya illabeteren buruban eman  
ziguten pitartzat saltzeko baimena: baño  
sagardo-jabia asarretu egin zan, arrek  
sagardotzat saldu nai zubela: ostea eraman  
azi zigun, eta amabost egun zar botilla an  
irukirik, sagardotzat ez zigun bada eman  
ageriya? Ja! Ja! Orrenbeste denboren  
buruban binagretu ere egin zitekian! Oiek  
ez dakite zer dan sagardua, ez pitarra eta ez  
patharra! Obe luteke Pello Atraka-ri deitu-  
ko baliyoteke probatzera; arrek obeto eza-  
gutuko luke, bai, ona edo txarra dan, dozen  
erdi bat baso eran ezkerol! (*Ixirtzen da barri-  
ken aurreko kadiran.*) Eta gero or dabill  
kalietan prantzes aundi bat "*Lau, lau!*" oju  
egiñik, ingurdu alako bat saltzen, eta orri  
ez diyote eraman azitzen muestrik... Giza-  
rajua! Obe're badu, bai; bestela jango liyo-  
teke karrua ere, kurpill eta guzti!...

## BIGARREN IRUDIA

### II

#### ANTHON ETA PELLO ATRAKA

*Atraka.* - Eup!

*Anthon.* - Kaxo, Atraka. Zer degu?

*Atraka.* - Bageala.

*Anthon.* - Itxasora gabe?

*Atraka.* - Bo! Galernazo madarikatu bat atera dik,  
eta legorrian gelditu gaituk.

*Anthon.* - Bejondaizutela; urtara eziñ danian, sagar-  
dotara.

*Atraka.* - Askoz ere segurubo dek.

*Anthon.* - Ez zekiat, bada. Urtan ez aiz beñere ito,  
baño...

*Atraka.* - Ik zer dakik?

*Anthon.* - Mutill, ala uste nikan biñipin.

*Atraka.* - Norbaitek esango zikan eta.

*Anthon.* - Bai; nik ala zeukat buruban: ez aizela  
beñere urtan ito; baño alakoren batian  
sagardotan itoko aiz.

*Atraka.* - Ederki eman ere! Ez bazekiat bada nik iaio  
igari!

*Anthon.* - Legorrian bai, legorrian!

*Atraka.* - Tira, tira, berriketa gutxi eta bete baso bat.

*Anthon.* - (*Garbitubaz basua*) Zenbatgarrena?

*Atraka.* - Oraiñ sartu nak eta zenbatgarrena?

*Anthon.* - (*Betiaz*) Ez al dek lenokoik?

*Atraka.* - Ez, gizona. Lenokuak..... denak eran nizkikan.

- Anthon.*- Ez diat ori esaten. Galdetzen nikan leno-koik ez dekan zor.
- Atraka.*- Bai zera. Arrantzaliak oso ondrarubak gaituk. Ez degunian -garbi esatia obe dek-, ez diagu pagatzen; bañon degunian,... (askotan ere ez). Aurtengo neguban ere nik arrapatzen detan bixigurik aundiarena iretzat izango dek.
- Anthon.*- Juan dan urtian bezela, neretzako ekarri, zubek jan eta arreakiñ eran zenuten sagardorik pagatu gabe itzul egiñik. To, to. (*Emanaz basua. Atrakak eraten du botiaz kondua.*) Ez nak ni legorreko arrantzaliakiñ fiyatzten.
- Atraka.*- Ez dek legorreko arrantzalerik izaten.
- Anthon.*- Ez zekiat, bada. Joxe Pipaxek legorrian itsasuan bañon lupi geiago arrapatzen dizkik.
- A traka.* - Pipaxek... nai dubelako. Gizarajuak amai-ka mixeri pasatzen dizkik; lenguan ere geiegi jan eta... gosiak gelditu.
- Anthon.*- Bai, eta pagatzerakuan gogoratzia aztu.
- Atraka.*- Gizon ori bañon droleroik ez diat ikusi. Beti berriketan ariko uke, belarriyatetik itza dariyola, eta batea edo bestea egiten dik moduba pagatu gabe itzuli egitekua.
- Anthon.*- Oiek beliarena egiñ eta gero sagarduen kontubak exkax. Nagusiyari pagatutzeko beñere dirurik osatzen ez. Batetik, neurtzeko usariyo berriyakiñ ogei ta bost kargako upelari ogei eta amar eman...
- Atraka.*- Ez dik karga txarra iruki biar.
- Anthon.*- Eta gero jariyuak, eta mermak, eta sagardua sartzia gure kontu, eta upela garbitzia, eta sebatzia, eta...
- Atraka.*- Ortara ezkeru, ustu ere obe zenuteke zeonek zeonek egiñ.

*Anthon.*- Anbat ori ere.

*Atraka.*- Bañon azkenian, zubek negar asko egiñatikan, erostunak berdindu biar izaten dizkik zuben eskasiyak.

*Anthon.*- Bai eta zera ere.

*Atraka.*- Bai bada; baso txikiya jarri eta ura ondo bete're ez; botilletan gutxi gora-berako neurriyak eta... beste txirriyo asko.

*Anthon.*- Gaurko egunian pasako dituk neurri kontubetan; emen dituk beti ikusten poto lege berriko oiek, eta erozeiñ gauzengatik, zapla *multa!* Lengan ere, patina zikinduba zeguelako, bi pezeta zar multa!

*Atraka.*- Orlakuan zeladoriari baso pare bat eman ezkeru, ixilik pasako'ik.

*Anthon.*- Batzubek bai; bañon badek gallego buru aundi bat, gaxtuo dek zezen naparra bañon. Onera etorri ukan bere parajetik erdi gosiak; eta oraiñ, puru aundiya ezpañetan arturik, markesa diruiyela or zebillek pasiatzen kalietan.

*Atraka.*- Eta orrenbeste zikiñ al zegon patiñan?

*Anthon.*- Bai zera! Dozen erdien bat legatz buru, sardiñ ustel batzubek eta orlako beste zerbait... Zeladoriak berak kraka geiago zekakan txapelian.

*Atraka.*- Orduban emendik aurrera maiz garbitu bearko dek.

*Anthon.*- Bai, ari nak beti garbitzen; bañon nik garbitu ala, goiko jendiak zikintzen ziatek.

*Atraka.*- Aieri ere multa eman azi.

*Anthon.*- Bai, bañon emendik eramaten ditek sagardia, eta asarretu ezkeru ez litukek geiago etorriko.

*Atraka.*- Orduban, oieri bai txiskatzia neurriyetan, e? Patiña garbitzia ere sagarduan kargatuko diyotek?

*Anthon.*- Sagardo jabiak bai, kargatzen zizkiak, ogei ta bost kargako upelian, ogei ta amar.

*Atraka.*- Ik berriz guri ogei eta amaika eta partira. (Soñu aundi bat patiñan zerbait eroriyena.)

*Anthon.*- Zer da ori? (Juaten dira patiñako atera.)  
Oi, arkumia zirurik.

*Atraka.*- Txerriko umia dek.

*Anthon.*- (Burlaz) Bai zera, piper morruekiñ. (Barrena sartuta eta ostera ateratzen da.) Katuba dek!

*Atraka.*- Ja! Ja! Ja! Iy-ya asmatu ukan!

*Anthon.*- Ez dek oraiñ iñor etorriko, ez, mokuarugoxu orren billa. Emen zebiltzik egunero: alkandora erori zaiotela, ero pixoiuala, ero...

*Atraka.*- Urdai azpikoren bat.

*Anthon.*- E! Gauza oiek ondo gordetzen dizkitek. bai... Alakorik balitz, aguro garbituko nitek patina.

*Atraka.*- Bai eta urdai azpikua ere.

*Anthon.*- Lengan erori zitzaioTekan... zera... uztaiekiñ egiñtako barrika-erdi alako bat... Bostgarren bizitzako neskak atzeko koskorrak egiteko izaten omen dik.

*Atraka.*- A; *poliziyakua!* Oraingo neskak ala ibiltzen dituk beti beren *poliziyakua* atzetik dutela...

*Anthon.*- Orain nik oien zikiñak garbitu egin biarko dizkiat.

*Atraka.*- Utzi zak; etorriko dituk...

*Anthon.*- Bai, etorriko dek... zeladoria bi pezetan billa. (Erratza artu eta garbitzera dijua.)

*Atraka.*- Orla aterako aiz!



*Anthon.*- Atera biarko diat garbitze ezkeru. Bitartian egin zak faore sagarduari kontu artzia.  
(*Juaten da patinara.*)

*Atraka.*- Ba, bai! Ni emen nagon bitartian, ez dek sagardorik alperrik galduko.

## IRUGARREN IRUDIA

### III

#### PELLO ATRAKA

(*Juaten da barrikara, ixiri kadiran eta betetzen du baso bat.*)

Orañ ere aterako naiz bada ni. Au mauka! Txotx berriko sagardu onekiñ sartzen diyot ziriya Anthon gizarajuari! (*Begiratubaz baso betiari.*) Sagardu onek, bada, ez du aĩñ kolore fina... Neretzako, ona izateko emenguak lasto koloria izan biar du; ala da fiñago eta argiyago... Esan zangun gorri antxe-kuak ere ez dirala txarrak, zergatik diran gorputz geiagokuak. Orra, berriz: Asturiaskuak ez izanagatik kolorez txit gaiñ gañekuak eta gañera metxuak, alaz guztiyaz ere ez dira txarrak, ez izan ezkeru pasatubak Gaxi puntukuak gustatzen zaizkit... Baita goxo antxe-kuak ere: eta sagardo garratz txinpartak botatzen dituben ura, azkeneko Amasorrañen saldu zan bezelakua, ura, ura gauza, ura zan ura, urik gabia... Esan zangun, besteren bizkar izan ezkeru, erozeiñ erateko pronto naguela, baita eskubetan daukantan oliyo kolori au ere. (*Eraten du.*)

## LAUGARREN IRUDIA

### IV

#### PELLO ATRAKA ETA TANTI

*(Tantik total itzegiten du. Sartu eta gelditzen da atien aldamenian, beti bildurraz kanpora begira.)*

*Tanti.* - Etun on etxetuat.

*Atraka.* - Oi! Tanti, i al itzan? Norbait zala uste nikan.

*Tanti.* - Alatañetan, Ataka sadaldua talten. *Tomel-tiante* taltu al aiz?

*Atraka.* - Zer edo zer egin biarko diagu orrenbeste alper mantenduko badegu.

*Tanti.* - Pataitalena! Bela sadaldoteian eta...

*Atraka.* - I nun ago bada?

*Tanti.* - Talto batian etoli nak oldia; tia, ekatzak bato bat eta baniak kolika-kolika.

*(Atrakak betetzen du basua eta eskaintzen diyo Tanti. Onek egiten du artzea. bañon ez du artzen.)*

*Atraka.* - Ez zerate gaizki bizi alper txar oiek.

*Tanti.* - I betela. Atzo'le teatuan egon oldubata alte eta gaul goitian teietan kaiea atea.

*Atraka.* - Teatruan e? Obe dek, bai, lanera bañon ara juan.

*Tanti.* - Aintze uten totia.

*Atraka.* - Gauza politak egingo dizkitek, e?

*Tanti.* - Tiltuan, tiltuan... mutil an bai edelki: taldiya atea toli ta toli, eta deo tomediantia dañian, eta taldiya toli eta dizonak talto, eta tlapu-

ba tali ta talto, eta deo matila ta talto, deo  
utaia ta talto, eta...

*Atraka.*- Gero barrika... *(Au guziya presaka.)*

*Tanti.*- Ta talto!

*Atraka.*- Gero upela...

*Tanti.*- Ta talto!

*Atraka.*- Mutill!!!

*Tanti.*-Ta talto, ta talto, ta talto! Ta beti toti batian!

*Atraka.*- Bejondaikala!

*Tanti.*- Ez zea: teato tikiyan betela, beliketan asi  
tolti t'eldiyetan eta ixildu bae amabi t'eldi-  
yak alte... Eta etitek eiten talto thiki bat  
ere... Ezta onenbeste'le. *(Salto egiñaz.)*

*Atraka.*- Eta aien berriketak aitzigatik pagatu?

*Tanti.*- Oli! Oli!

*Atraka.*- Pagatu gabe aitzen dizkiagu kai aldian  
(batere ez dakitelarik) aiek ez bezelako  
berriket alaiak.

*Tanti.*- Bañon tiltuan,... mutill, ula, ula dauza!  
Sotatik tintilik dizona, eta buluba anken  
danian tali, ta deo eskubak buluben  
dañian, eta alen dañian tlipa, eta tlipen  
dañian abua, eta...

*Atraka.*- Mutill!

*Tanti.*- Eta deo talto!...

*Atraka.*- A bai! Ortik aurrerakua bazekiagu!

*Tanti.*- Dauza oiek atoldatzian, sadaldua elateko  
dodua editen zat.

*Atraka.*- To, bada, to! Emen niok ordubeti ontan zai.

*Tanti.*- Etatzat. *(Besua luzatzen du, bañon basua  
artu baño len, juaten da atera begiratzeraz.  
eta ateratzen da presaka.)* Eletiolia! Eletio-  
lia! Batiak ni! *(Juaten da korrika.)*

*Atraka.*- Ja! Ja! A zer izuba! Ori bai dijuala toli ta toli, talto ta talto. Ja! Ja!... Eta oraiñ zer egingo det nik basu onekiñ?... Alperrik galtzia bañon, alperrik eratia obe dala da esaera, eta... eran egin biarko.

## BOSTGARREN IRUDIA

### V

#### PELLO ATRAKA, ON JEOLIMO ETA GERO ANTHON

*(On Jeolimo sartzen da Pello eraten asten danian, eta orduban juaten da patiañ aldera basua gordiaz.)*

*On Jeolimo.*- Jaungoikuak egun on dizutela.

*Atraka.*- (Oi! Sagardo jabia! Bai, jauna. Oraintxen juan da patiaña garbitzera; beriala deituko diyot. Anthon!

*On Jeolimo.*- Emen al dago Anthon?

*Atraka.*- Bai, jauna, bai. Beriala etorriko da. Anthon, Anthon!

*Anthon.*- Nor da? *(Jotzen du Atraka eta botatzen diyo basua.)*

*Biyak.*- A!

*Anthon.*- Katubentzako al ukan? *(Nagusiya ikusten du.)* (Oi! Nagusiya!) *(Igesi patiañara.)*

*Atraka.*- Iya ixuri ukan. *(Atzetik igesi.)*

*On Jeolimo.*- *(Atzetik, Anthoni jiraka.)* Anthon!

Anthon! Nora zuaz?

*Anthon.*- *(Bueltatuta.)* Nagusi jauna, barkatu beza; ez nuben ikusten ere.

*On Jeolimo.*- Ordubeti ontan emen nago zure zai.

*Anthon.*- Eta ez al du nere andria ikusi?

*On Jeolimo.* - Ez

*Anthon.*- Ez da bada ordu laurdenik ere alde egiñ dubela... Zerea jua da, zereko zerea...

*On Jeolimo.*- A bai!

*Anthon.*- Ez, jauna. Ara ez; bestera. Azkena neurtu zan upeleko sagarduen muestra eramatera... Bestiakiañ aña denbora pasatzen badute, datorren udaberriyan saltzeko moduban izango degu, jauna.

*On Jeolimo.*- Presa eman biar zaiote, bada.

*Anthon.*- Nik uste det, jauna, aguro bueltatzeko, presa bañon txanpon batzubek ematia obe izango litzakela.

*On Jeolimo.*- Ori ez da, ordia, ondo egiña.

*Anthon.*- Grothi Grothi ere etzan ondo egiña, bañan or ibiltzen zan kalei kale bere jiba bizkarrrian zubela.

*On Jeolimo.*- Begira, Anthon: guri komeni zaigu lenbailen saltzia, eta al dan modurik onenian.

*Anthon.*- Bai, jauna, bai. Al dan merkiena.

*On Jeolimo.*- E! Al dan gaixtiyena da neretzako modurik onena.

*Anthon.*- Bañan saltzeko modurik txarrena ere bai.

*On Jeolimo.*- Erariya ona izan ezkeru, pixka bat gaixtixiago izanagatik saaltzen da aguro...

*Anthon.*- Nik ez det konprenditzen, jauna, zergatik andria dago ontan oituba; bañan...

*On Jeolimo.*- Ori gauza errexu dezu.

*Anthon.*- Bai, jauna; upel ortatik ogei ta amar karga saltzia bañon errexagua.

*On Jeolimo.*- Salduko dira, bada, gizona.

*Anthon.*- Lana franko.

*On Jeolimo.*- Zergatik ez bada?

*Anthon.*- Zergatik nola ogei ta amar kargik sartu ez diran, aterako ez diralako, jauna.

*On Jeolimo.*- Aterako dira!

*Anthon.*- Beorri bai, aterako litzake alakorik balitz; bañan nola nai du ez dan tokitik ateratzia? Upelian jaiotzen dala uste al du bada sagardua? Upelian geienaz ere *bataiatu* egiten da, jauna!

*On Jeolimo.*- Bañan, gizona, nola ari zera izketan, neurtu berriya bada upela eta esan badute ogei ta amarrekua dala?

*Anthon.*- Oiek zer dakite? Zintakiñ neurtu upela? Nik alare galtzen neurriyak artzen ari zira- la uste nuben! Sekulan ez degu orlako usariyorik ezagutu.

*On Jeolimo.*- Ori da neurririk xuxenena. Pentsa zazu ala izango dan! Lenago upelategi (y) ontan ez ziraten eun eta amar karga beste- rik kontatzen, eta oraiñ neurri berriyakiñ baditut eun eta berrogei ta zazpi...

*Anthon.*- Ez juxtu ibilliko balirake. Zer bada? Aun- ditu egiñ al dira upelak?

*On Jeolimo.*- Ez, gizona, ez.

*Anthon.*- Orla juaten badira azitzen, laxter itsasua kabitzeko diña ontzi izango du, jauna. Upel ori beti ogei ta bostekotzat ezagutu izandu degu.

*On Jeolimo.*- Ez, ordia, izan.

*Anthon.*- Ala izanduba beti, jauna.

*On Jeolimo.*- Oraiñ artekua saltsa bat besterik izan- du ez da, eta orla zubek egin dituzute kuartotxuak.

*Anthon.*- Bai; guretzako beti saltsa eta jakiya beo- rrentzat

*On Jeolimo.*- Orain gauza askoz ere garbiyagua da.

*Anthon.*- Saltzik ere ez orain!

*On Jeolimo.*- Alabaindikan ere, bakoitzak bere kontubak atera biar ditu.

*Anthon.*- Nai dituben kontuak ateriagatik, ez du ortik ogei ta amar kargik aterako denboren denboretan ere. Ogei ta bostekotzat ezagutu izan degu eta ala izan ere da. Zinten neurriyak! Neurtu beza kargakuakiñ; ez dubela ogei ta amar aldiz betetzen? Ala balitz, saltzerakuan dirubak juxtu atera biar luke eta ez exkax, gertatzen dan bezela.

*On Jeolimo.*- Nik ez det orrekiñ egitekorik. Zubek kontuz aritzen bazerate saltzen, ondo aterako da gauza. Ikusiko dezu.

*Anthon.*- Nai du ezetz?

*On Jeolimo.*- Ez; nik baietz nai det.

*Anthon.*- Ni kontu guztiyakiñ egongo naiz, eta ikusiko du zer gertatzen dan.

*On Jeolimo.*- Ia bada.

## SEIGARREN IRUDIA

### VI

#### ANTHON. ON JEOLIMO ETA JOXE PIPAX

*Pipax.*- Atrakatu eta *fondo* eman biar degu ementxen.

*On Jeolimo.*- Emen al zera, *alporja*?

*Pipax.*- Ondo, eta beorri, On Jeolimo? Ondo, serbitzeko; ba, jauna, bai.

*On Jeolimo.*- Ja! Ja! Ja! Beti txoro. beti orla.

*Pipax.*- Bijua ondotoxo! Kontuz ibilli, e?, itsaso gaxtua dago ta.

*On Jeolimo.*- Zu kontuz ibilli, zu... *mariatu* gabe.

*Pipax.*- E! Atujia jakiñen gañian dago.

*On Jeolimo.*- Ariyo. Anthon. Esanak esan, ia xuxen ari eta zer ateratzen dan. (*Juaten da.*)

*Anthon.*- Ni nere itzian nago, jauna. Bijua ondotoxo!

*Pipax.*- Kaxo, Anthon! Zer gizon modu? Ekatzak baso bat sagardo, lo ez baldin baago.

*Anthon.*- Lo niok.

*Pipax.*- O! Ez dek gero batere ezagun. Badiruik ametsetan abillela, bañan... lotan ez.

*Anthon.*- Mutill, utzi nazak pakian, asarre niok eta...

*Pipax.*- Aixkiratzen lana! Ni ez nak beñere asarretzen; ni beti umore onakiñ!... Oraiñ ere abiyadurik batere artu gabe, erango nizkikek sei baso sagardo bata bestien ondoren.

*Anthon.*- Eran obeto egingo dituk, bai, pagatu bañon.

*Pipax.*- Begira zak bada. Neri ez zat gustatzen zorrik iñun izaterik eta ezta... pagatzerik ere!

*Anthon.*- Ori dek.

*Pipax.*- E! Txirrixtatu egiñ nak. Ez nikan ori esan nai.

*Anthon.*- Nai ez dekala esan dek egiya.

*Pipax.*- Gizona, gaur bañon pobriago izandu gaituk bada! Diruba obeto zekagu agiñeko miña bañon! Atxuari atera zizkat zazpi kuarto txiki: bat ardo eta laurdeneko opilla eroserik amaiketakua egiteko: eta beste zazpi... milla duro banitu ez nitek ire inbiriya izango!

*Anthon.*- Aizak. i! Eta sagardua zerekiñ pagatzeko asmua dek?

*Pipax.*- Gauza orren gañian gero itz egingo diagu.

*Anthon.*- Ez diat emango.



*Pipax.* - Orrenbeste ez al aiz fiyatzten?

*Anthon.* - Ez, ez, ez! Ez diat emango!

*Pipax.* - To makilla (*makilla bat arturik*) eta egiñ aki-yok koxka, e?, eta...

*Anthon.* - Ez nak ari! Makill ontan egiñ edo itsasuan egiñ bat dek!

*Pipax.* - Pagatuko diat bada! Baso baten jua-*etorri-yagatik* orrenbeste zalaparta! Ona ago i ni bezela zazpi milla duro artzeko izateko!

*Anthon.* - Norengandik?

*Pipax.* - Gobiernotik.

*Anthon.* - Nola?

*Pipax.* - Sekulan ez diat ezer artu eta artzeko nagolako.

*Anthon.* - Lenbiziko artzen dekanian *etorri* ari bada, eta orduban emango diat.

*Pipax.* - Gizona, beiñ esan ezkeru pagatuko detala, ez al aiz fiyatzten?

*Anthon.* - Ez nak fiyatzten, ez! To (*emanaz*). Bañan ez aiz gaur emendik aterako pagatu gabe.

*Pipax.* - (*Basua artu eta*) Aterako gaituk!

*Anthon.* - Zeladoriari deituko ziuat.

## ZAZPIGARREN IRUDIA

### VII

#### ANTHON. JOXE PIPAX ETA PELLO ATRAKA

*Atraka.* - Juan al da?

*Pipax.* - (*Pipa pxtubaz.*) E; Joxe nak, legorrez.

*Atraka.* - Legorrez itsasoz bañon abeto izango dituk. bai. zuben treñeroko jendiak.

*Pipax.*- Gure treñeruan bezelako jende lirañik ez dek kostatzen onan guztiyan, eta panparroikeri gutxi ateratzen biar dezute, ba ezpatxo, arrantzale zarpatzu (b) oiek!

*Atraka.*- Ixilik ago, zuben artekua izatia lotsatu biar dik eta.

*Pipax.*- I egongo aiz ixilik, i!

*Atraka.*- Nai badet.

*Anthon.*- Asi al zerate?

*Pipax.*- Askoik ez amar urti abetan.

*Anthon.*- Bazekiat zer esaten detan.

*Atraka.*- Onek ez daki, ordia, zer esaten duben.

Asto!! Babo!! Lukainka!!!

*Pipax.*- Ala banitz, jango nindukek.

*Atraka.*- Ez aiz, ordia, jateko ona.

*Anthon.*- Ez dek bada txarra erateko.

*Atraka.*- Ortarako bai, eta tabeman zalaparta daryola, bere gezurrezko aziyuak kontatubaz, jendia engañatzeko. Itsasuan, itsasuan ezagutzen dek zein dan gizona!

*Pipax.*- Gauza ona izateko arrunka geiegi dabillek! Exkoteko kalan abillenan, eta mendabal zakarra ateratzen dubenian, ez dek orrenbeste agertzen buruba.

*Atraka.*- I bañon geiago.

*Pipax.*- Ederki eman ere.

*Atraka.*- Mutill, pipa besterik ez zaik ikusten!

*Pipax.*- Lengan ere zer ordutan ziñaten *Shuesteko* kalan?

*Atraka.*- Guk ordubata t'erdiyan belatu genikan, eta bire erdiraño etorri gindukan oker-okera auuu!, eta bat-batian *kalma!* Txapela bete aize naikua etxera etortzeko, eta aguantian etorri biar ler egiten!

*Pipax.*- Gu, berriz, zubek bañon nekezago ateriagatik, laja zubek atzian; eta erriya bixtatu zenuteneako, bi puntetan gindukan!

*Atraka.*- Ala dek, bai! Nik alare zuben txalupa arrantzako baforia zala uste nikan, ire pipak botatzen zuben kiekiñ. Orlako kaldera izan ezkerro, irabazi biar estropara!

*Pipax.*- Eta beste kalan?

*Atraka.*- Zeñetan?

*Pipax.*- *Baztar kantinan.*

*Anthon.*- Kantinan ez, baño sagardoteriyan alkar topatzen dute abek.

*Atraka.*- Mutill, ez zakala ori aitatu. baztar guztiyak zorrez betiak dakazkik eta.

*Pipax.*- Ire andriak aña ogi ez diagu bada zor, zubek beziñ lotsagabiak ez geralako.

*Atraka.*- Ogiya? Ire amak obe zikan ire tokiyan sei librako ogi aundi bat egin bazuben!

*Pipax.*- Ara bada emen gizon galanta. Kabituko ote da au iñun? Etxe-errenta pagatzeko bañon ortarako obia aiz.

*Atraka.*- Berriketa gutxi gero emen, e? Bestela emango diat begiondoko bat...

*Pipax.*- Gauza izan biar!

*Anthon.*- Ez gero emen okasiyorik jarri.

*Atraka.*- Ago ixilik, kintua!

*Pipax.*- I egongo aiz bobiskum!

*Atraka.*- Katillu, ez besteren katillu!

*Pipax.*- Astua!

*Atraka.*- Babua!

*Pipax.*- I bezelakua!

*Atraka.*- Emango diat! (*Eskuba altxatuta.*)

*Pipax.*- Artuko dek! (*Baita're pixka bat egongo dira alkarrri begira, eta bat-batian aixkiretzen dira.*)

*Atraka.*- Guazen eratera baso bana. (*Juaten dira barriken ondoren eta eskatzen dute.*)

*Anthon.*- Beti bezelako errematia aben erromeriyak: itsasuan asi eta sagardoteriyan bukatu.

*Atraka.*- Anthon, txukun-txukun utziko ukan patina?

*Anthon.*- Bai zera. Lenbiziko bizitzako atsua asi dek berriketa daiola, eta ez diat ezer egiñ. Katuba eta beste zikiñak bertan gelditu dituk. Goxua ziok iñor etortzen bada!

## ZORTZIGARREN IRUDIA

### VIII

ANTHON, PIPAX, ATRAKA, TANTI ETA PATXI (*gero*)

*(Eraten dutenian, botatzen dute kondua ate aldera; eta, nola orduban sartzen dan Tanti, bustitzen dute.)*

*Tanti.*- Bapo! Plei edin nazute.

*Pipax.*- Oi Tanti! Zer egin ditek?

*Atraka.*- Txantxetan ukan.

*Pipax.*- *Multa* eman akiyok... Anthoni.

*Anthon.*- Neri?

*Tanti.*- Bat edo bati bialko. Ez takitute zer pasa taitan.

*Pipax.*- Zer bada?

*Tanti.*- Badakik, Ataka, len izandu naitenian kolika nola atela naiten elejiolia ikutita, e?

*Atraka.*- Bai; emengo sagardo jabia.

*Anthon.*- Emen izandu dek.

*Tanti.*- Ateate'nak arren idesi, eta kabua bete ikian, alatañetan.

*Atraka.*- Orduban talto egin ukan.

*Tanti.*- Deitu eta daldetu ziat: "Zel zabilta sadaldo-teian?" Nik zer esan tatin ez, eta esan ziuat patiña ikusten nitala eta... zikiña daola.

*Anthon.*- Gezurra!

*Pipax.*- Anthon, txautu au.

*Anthon.*- Zikiñago dakak ik muturra.

*Pipax.*- Ikusi zak. (*Juaten asten da eta gelditzen du Atrakak eta atzetik Anhonek.*)

*Atraka.*- Eta guazen... Zer esan dik kaboak?

*Tanti.*- Bi peteta multa emateko, eta ona papela.

Aber oaiñ teñek ematen dikian bi petetak.

*Anthon.*- Nik ez biñipin!

*Tanti.*- Bialko! (*Juan nairik.*)

*Anthon.* - Ez txinixtu!

*Atraka.*- Pipaxek emango dizkik. (*Gelditubaz.*)

*Pipax.*- Ba bai, anak erantzi eta beriala emango dizkiat. Zertan nai dituk: urretan edo zillarretan?

*Tanti.*- Beliketa gutxi! Bat eo batek eman bialko titiak.

*Pipax.*- Mutill, papela *kanbiyatze*ko esaten nikan.

*Tanti.*- Papelik *tanbiyatu* bage fumatzen diat nik.

*Pipax.*- Nik, berriz, papelik bage. (*Pipa erakutsiyaz.*)

*Tanti.*- Enak ni emendik juango bi petetik bae, eta ba-ezpa're patina ikustea niak. (*Juan nairik.*)

*Anthon.*- Ez dek ikusiko; ik gezurra esana ez diat nik kulpik. (*Gelditubaz.*)

*Atraka.*- Garbiya ziok (baita're.)

*Pipax.*- Utzi zaiozute.

*Tanti.*- Utzi bialko!

*Atraka.*- Zertara juan biar dek, garbiya ziok eta?

*Tanti.*- Ori etekiat.

*Anthon.*- Zertako esan diyok bada zikiña dagola?

*Tanti.*- Bestela etzikan txinistaten eta. Tia, tia,  
ikustea niak.

*Anthon.*- *Anjela Maria!* Ez dek, ordia, ori kontuba.

*Pipax.*- Zer da bada: kantuba?

*Atraka.*- Ez; katuba...

*Anthon.*- Ago ixillik! (*Abua tapatubaz.*)

*Atraka.*- Ez uala; oraiñ garbitu dik.

*Tanti.*- Ez al natute utzi nai?

*Anthon.*- Ez!

*Atraka.*- Garbiya dagola ez al dek aitzen?

*Tanti.*- Nai ezpadetute utzi, edon; bañon enak ni  
juango bi petetik bae.

*Anthon.*- Nai dubenak emango dizkik; nik ez.

*Atraka.*- Gauza orren gañian itz egingo diagu.

*Pipax.*- Mutill, utzi zak kontu (b) ori... Naigabia  
pasatzeko eran zak baso bat; nik iri  
laguntziatik ustuko diat beste bat. (*Tantiri.*)

*Atraka.*- Guazen.

*Tanti.*- Ekatzak bada bato bat: bañon pagatu biako  
dek.

*Anthon.*- Ez txinixtu. (*Emanaz baso bana irurari.*)

*Pipax.*- (*Tantiri.*) Sagardu au oso sanua dek.

*Atraka.*- Sagardo eriyik ikusi al dek?

*Pipax.*- (*Tantiri.*) *Sainetian* ezagutzen dek. (*Eraten  
dute.*)

*Anthon.*- Onek egin digu ateraldiya.

*Atraka.*- Sarrera, sarrera egin dik onek.

*Tanti.*- Nik pagatuko itutala ute al dek baa?

*Anthon.*- Nork bada?

*Pipax.*- Utzi zaiozute tontokeri (y) orri! Nik emango dizkiat. To! (Boltsillubak miratubaz.) Ez dizkiat emen. Aste-egunetako erropetan utzi dizkiat!

*Atraka.*- Jaietakuak al dituk oiek?

*Pipax.*- Intzentsu egunetakuak.

*Anthon.*- (*Iruditegiyen aurrera juaten dira labak.*) Kanpana bueltakuak jotzen dituztenetakuak?

*Pipax.*- Bai!

*Patxi.*- (*Azaltzen da txistuka eta txanponakiñ botilla juaz.*) Txopin bat sagardo! (*Gelditzen da barriken aurrian.*)

*Anthon.*- Baniak beriala.

*Pipax.*- Tanti, ori dek gizon bortitza etorri aizena!

*Tanti.*- Beti betela.

*Atraka.*- Uste nikan jan biar gindubela.

*Anthon.*- Txatxu (b) oni begira!

*Pipax.*- Tira, tira, ez ortaz geiago itz egiñ.

*Atraka.*- Ori dek: umore onak bi pezeta bañon gei-ago baliyo dizkik.

*Anthon.*- Baita... (*Patxi asten da kanillatik eraten eta ikusten du Anhonek.*) Zer ari aiz?

*Patxi.*- (*Altxa eta botilla erakutsiyaz.*) Txopin bat sagardo.

*Anthon.*- Itxogon zak bada pixka bat. Berriz ikusten baat aziyu ori egiten, zatituko at.

*Atraka.*- Bi pezetak oni atera.

*Tanti.*- Oli!

*Pipax.*- Tanti, zubek gizon jakintsubak zeatela eta...

*Tanti.*- I bañon geiago.

*Atraka.* - Ez dek gaitz.

*Anthon.* - Anbat.

*Pipax.* - Orain ere jokatuko diat bada nik zein dan  
geiago bertsuetan.

*Atraka.* - Ia?

*Anthon.* - Ori, ori!

*Tanti.* - Zubek, oldia, batalitalak betela tantatzen  
detute.

*Atraka.* - Nola bada?

*Tanti.* - Neri dustatzen zat musikakiñ.

*Pipax.* - Zer musika?

*Anton.* - Thun-thunena?

*Tanti.* - Eliko musikak totze'itubenak. Opelak eta!

*Pipax.* - E! Orlako doñubetan ez ditek kantatzen  
bertsolariyak.

*Tanti.* - Basalitalak dialako.

*Atraka.* - Ia bada zein dan geiago, bakoitzak bere  
doñuban kantatubaz.

*Pipax.* - Baita ortara ere egingo diat.

*Tanti.* - Eztali txala zekat, oldia.

*Anthon.* - Orrenbesteañoeko kantubak egin biar al  
dituk?

*Atraka.* - Orrengatik asi zintezteke. bai. Tira, tira, asi.

*Pipax.* - Ni asiko nak.

*Anthon.* - Geran bada.

*Pipax.* - Tanti, zera zu gizon bikaña bi pezeta eska-  
tzeko. Baña izan du Anthonek maña, zuri  
gaur ez... iñundik iñola ere patina zikiña  
zeguelako eskatu dizkatzun dirubak paga-  
tutzeko.

*Irurak.* - Ja! Ja! Ja!

*Anthon.* - Nun zuben orrek azkeneko errematia?



*Tanti.* - Ori daizki!

*Atraka.* - Ja! Ja! Asnase batian kantatzeko naikua  
egin dik!

*Pipax.* - Orain Tantiren txanda.

*Atraka.* - Ia nola egiten dekan.

*Tanti.* - Neri ez zaat basalitalak bezela dustatzen.

*Anthon.* - Dakikan bezela bota zak.

*Pipax.* - Geran, geran, oztu bañon len.

*Atraka.* - Ala!

*Tanti.* - (*Bi eztultxo eqiñ eta pixka bat itxogonik.*)

Dure etxian baziot  
matina bat tatel,  
matina bat titel,  
titel titel ti-tel ti-tel.

## BEDERATZIGARREN IRUDIA

### IX

## LENGUAK ETA ON JEOLIMO

*(Azaltzen da On Jeolimo eta arrapatzen ditu labak  
aurrian parrez daudela, eta Patxi atzian kanillatik  
eraten ari dala, eta erasotzen diyo arri.)*

*On Jeolimo.* - Zer da modu (b) au? A likixkeriya ez  
bestereña!

*Tanti.* - Eletiolia!

*Anthon.* - Nagusiya!

*Pipax.* - On Jeolimo!

*On Jeolimo.* - Emango diat nik orain! (*Esku-makilla-  
kiñ juaz.*)

*Patxi.*- (Negarrez, botilla artu eta igesi.) Ai, ama! Ez det geiago egingo. (*Juaten da.*)  
*Tanti.*- (*Pipaxi.*) Bi peteta multa!  
*Anthon.*- Ai! Au tratuba!  
*On Jeolimo.*- Au al da moduba? (*Aurreratubaz.*)  
*Pipax.*- (*Tantiri*) Neri zer esaten nak?  
*Tanti.*- (*Bueltaka, uste ez dubela, On Jeolimo.*) Bi peteta multa!  
*On Jeolimo.*- E?  
*Tanti.*-- Ai, ez, barkutu. Oni. (*Anthoni.*) (Bi peteta multa!)  
*Anthon.*- Ua ortikan!  
*Tanti.*- (*Atrakari.*) Bi peteta multa!  
*Atraka.*- E?  
*Tanti.*- Patiña tikiña, bi peteta multa!  
*On Jeolimo.*- Orla uste al dezu konponduko gerala?  
*Anthon.*- Esango diyot, jauna,... (*Gelditzen dira: eskuitara Atraka eta Tanti erriyetan, erdi-yan On Jeolimo eta Anthon, eta beste ixkinan Pipax bakarrik.*)  
*Pipax.*- Oraiñ ere beliarena egiñ biarko! Kai-puntara guazen bost errial irabazitza. (*Juaten da.*)  
*Anthon.*- (*Ikusten dubenian.*) E! Pagatu gabe itzul egiten du.  
*Tanti.*- Oli, bai, oli! (*Atzetik korrika juaten, da.*) Bi peteta multa!  
*Anthon.*- Orrek ere bai. (*Atrakak segitzera bezela egiten du eta eltzen diyote biyak.*) Ez dek iges egingo, ez!  
*On Jeolimo.*- Geldi emen! (*Esku-makilla altxatubaz.*)  
*Atraka.*- Jaunak, ez nijuan iges egitera; nik neria pagatuko det. Ez naiz ni orlakua.

## AZKENEKO IRUDIA

### ANTHON, ATRAKA ETA ON JEOLIMO

*On Jeolimo.*- (Anthoni.) Onek zenbat zor dizu?

*Anthon.*- Onek...

*Atraka.*- Nik baso bat.

*Anthon.*- Besterik ez?

*On Jeolimo.*- Gizona, ori al da moduba? Denen artian karga erdien bat eran dute; aiek itzuli pagatu gabe; Onek, itzulik ez egiñagatik, igualtxu pagatzen du; eta orla nai dezu kontubak juxtu ateratzia?

*Atraka.*- Nik baso bat besterik ez det eran!

*On Jeolimo.*- Atoz gero upela ez dala ogei ta amar kargakua, eta zintakiñ ez dala ondo neur-tzen, eta... esatera... Berriz ere exkax aterako dira zure kontubak.

*Anthon.*- Zer nai du bada? Gauza abek alegiñak egiñagatik gertatzen dira.

*On Jeolimo.*- Nik ez det orrekiñ egitekorik; nik sagarduen diru juxtuba biar det, eta zuk atera zure kontubak.

*Anthon.*- Gu nola bizitzia nai du?

*On Jeolimo.*- Lana egiñda.

*Anton.*- Egiten degu, jauna.

*On Jeolimo.*- (*Denbora pixka baten buruban.*) Begira, Anthon: ni urrikitzen naiz zutzaz. Ezagutzen det alde batetik irabazi txikiya dagola eta bestetik alegiñak egiñagatik *pegatzen* dizutela, Bañan alabaindikan ere nik nerek eziñ emango dizut. Baña orain asmatu det modu bat biyak ondo aterako gerana.

*Anthon.*- Ia bada.

*On Jeolimo.*- Txiskatzen dizutenian baso bat, baso bat ur bota; bi egiten dizutenian, bi bota:

eta orla, zenbat sagardo txiskatu, ainbeste  
ur bota. Modu (b) onetan zuk ez dezu gal-  
duko eta nik ere ez.

*Atraka.*- Guk bai, ordia.

*On Jeolimo.*- Nik nere baimena ematen dizut.

*Anthon.*- Bai; beorrek ematen dit, bañan naiko al  
dute jaun oiek?

*On Jeolimo.*- Ori...

*Anthon.*- (*Jendiari.*) Jaunak, ematen al diote beon  
baimena ura botatzeko?

*Atraka.*- Ez! Ez!! Ez!!! Ez txinixtu!!!

*Anthon.*- Nik besterik ez nezake egin bada. (*Jendiari.*)

Uri nai ez badute  
sagarduarekiñ,  
konpondu litezteke  
nagusiyarekiñ.

*On Jeolimo.*-

Sagardotxu ontatik  
emango det anbat,  
pagatutzen badute  
txikiko... txalo bat.

*Atraka.*-

Asten badira, jaunak,  
txalo ematera,  
orduban bai egiaz:

*Irurak.*-

ATERAKO GERA!

BUKAERA

**T. ALZAGA**

# BIOZBERAK

EKITALDI BAKARREKO  
IRRI-ANTZERKIA

DONOSTIA'N  
Martin eta Mena'ren etxean  
San Marcial 23  
1929

## BIOZBERAK

### **Irudigilleak**

Andre Jaxinta  
Bebel (Isabel)  
Lolot (Dolores)  
Mariano jauna (sendagillea)  
Adolfo  
Izpitza

*Zestoa'ko uda-etxe apain bateko gela nagusia. Atzian, ezkerrera, gela-sarrerako ate Zabala. Atzera-go, etxe-sarrerako atea. Eskui aldian, leio aundi bat. Atzeko aldian, aulki luze bat, Ezker-eskuitan mai polit batzuek, gañian ixpilluak dituztela. Inguruetan aulkiak, eta aben gañak, eta baita ere maigañak, apainketako tresnaz betiak ageri dira.*

*Oiala jasotzean, Bebel ixpillu aurrian apaintzen dago.*

## I

### *Bebel ta Mariano jauna*

*Mar. j.- (Etxe-sarrerako atetik sartzen da.) Arratsalde on.*

*Bebel.- (Apainketak utzi ta Mariano jaunari agur egitera juanaz.) A! Mariano jauna, zer diyo?*

*Mar. j.- Ondo, ta zu?*

*Bebel.- Ederki. Exeri bedi.*

*Mar. j.- Eskerrik asko. (Atzeko alki luzean exertzen da.) Eta ama ta Lolot?*

*Bebel.- Jazten ari dira. Gure erritar sendi bat bart iritxi zan eta ikustaldi bat egitera guazkiye.*

*Mar. j.- Biar dan bezela.*

*Bebel.- Eta bedorri zer dabil alderdi abetatik? (Apain-ketari pixka bat jarraituaz, bañan era berian Mariano jaunari begiratuaz.)*

Mar. j.- Agerrepe -ko Mari-Antoni ikusten izan naiz,  
eta bidez etxe ontan sartu-atera bat egin  
gabe ez det jua nait izandu.

Bebel.- Eskerrik asko. Ta zer diyo Mari-Antoni  
gajuak?

Mar.j.- Zer izango du! Ondo nai ta ondo ezin izan.

Bebel.- Gaizki al dago?

Mar. j.- Ondo ez beintzat.

Bebel.- Eta zer du?

Mar.j.- Gaitzik okerrena: urtiak.

Bebel.- Asko izango ditu?

Mar. j.- Irurogei ta amarrera baño larogeira alderago.

Bebel.- Gajo! Ondo emakume gordiña izana da bada.

Mar. j.- Inguru abetan ezagutu dan emakumerik  
sendo ta mardulena. (*Une onetatik Bebel'ek  
bere buruaren apainketan jarraitzen du,  
Mariano jaunari jaramonik egin gabe.*) A!  
Bañan urteak, zuaitzik tantarrena onda-  
tzen duten bezela, osasunik bikañena gal-  
tzen dute. Gure izamenari iraun azitzen  
diona biotza da; ta urteak biotza nekatu,  
ondata, apurtu, txetzen dute. Izan ere, bizi  
geran bitartean beñere geldirik ez dago;  
gau ta egun, beti tik... tik... tik... tik...  
Gañerako beste gorputz atalak geldi -aldiak  
badituzte; biotzak beñere ez. Mingañak,  
bati-bat emakume-mingañak, egunak  
dituen ordu guztietan, eta zerbait geixiago  
ere bai, zorapen ikaragarrian zaramalkatu-  
ko dira, barrengo suak eragiten baliote  
bezela. A! Bañan noizbait ere ixil-aldia eto-  
rriko zaie eta mingaña geldituko da. Biotza  
ez, ordia; biotzak beti bezela jarraituko du:  
tik... tik... tik... tik... Begiak, begi eziñego-  
nak, ikusten dutena baño geiago ikusi nai-  
rik, zer nekeak darabizkiten, zer lanak, zer



zoramenak izaten dituzten! A! Bañan noiz-bait ere luak betazalak jetxi azitzen ditu, ta itzalpe atsegiñean atsedean gozoa arkitzen dute begiyak. Eta bitartean biyotza, betiko bere lanean, tik... tik... tik... tik... Eta berdin oñak, berdin besoak, esku, beatzak; gorputzaren alderdi guziak badituzte lan-aldiak, bañan geldi-aldiak ere bai; biotzak bakar-bakarrik ez beñere geldi-aldirik; biotza bere amai gabeko egitekoan, beti tik... tik... tik... tik...

## II

### *Lenguak eta Lolot*

*Lolot.* - (Eskutik sartuaz. *Asieratik Bebel ezkerreko izpilluaren aurrian egongo da.*) *Bebel,* emen al dezu... zera...? (*Mariano jauna ikusten du.*) A! Mariano jauna, noiz etorri da?

*Mar. j.* - Aistiyen, eta ementxen negon zure aizpatxo-arekin izketan. (*Bi aizpak Mariano jaunaren ondoan biltzen dira.*)

*Bebel.* - Ez dakizu: andre Mari-Antoni ez omen dago ondo.

*Lolot.* - Andre Mari-Antoni?

*Mar. j.* - Bai; Agerrepe'kua.

*Lolot.* - O! Ez nekien... Gajua! Ain maite genduen ta!

*Bebel.* - Ia! Udaro beti juaten giñan ikustera.

*Lolot.* - Ta arrek egiten zigun ongi-etorriya!

*Bebel.* - Ta arren gubanako onginaia!

*Lolot.* - Ain maitekorra izan da...

*Bebel.* - Ain maite atsegiña...

*Lolot.* - Gajua! Oso minberatu nau berri orrek.

*Bebel.* - Ni guztiz naigabetua utzi nau.

*Lolot.* - Izan ere, ez da gutxiyagotako. Ta zer du bada?

*Bebel.* - Mariano jaunak dionez, biotzetik izan biar du zerbait. (*Bebel juaten da lengo mai-aurrera ta ekiten du berriro bere buru-apainketan.*)

*Lolot.* - Biotzeko miña du beaz!

*Mar. j.* - Ala nai bada, biotzeko miña ez da: beste aje asko dauzka gorputzian; bañan aje oiek guziak, zarretan bati-bat, azkenerako biotzera jotzen dute.

*Bebel.* - Nik esan dizudana.

*Lolot.* - Ta zer derizkiyo bedorri?

*Mar. j.* - Zer nai dezu nik esatia? Gaitz abetan senda-gilleak ain gutxi egin lezake... Guzia gaxoa-ren gain dago. Ta, emen gertatzen dan bezela, gaxoak urteak eta gaitzak menperatua daukatenean, zer itxaropen izatia nai dezu!

*Lolot.* - (*Bebel maiera joan eta zerbait artuko du, eta bere arrekin ezkuiko maiera juango da, ta bere buru-apainketan asiko da, noizean bein Mariano jaunari begiratuaz.*) Beraz, beorrek oso gauza galdutzat dauka?

*Mar. j.* - Ez det nik orrelakorik esan. Iraun lezake, biotzak irauten dion bi tartean.

*Lolot.* - Orduan, oraindik sendatu liteke?

*Mar. j.* - Sendatu, ez; bizi, bai.

*Lolot.* - Bestiak ere ori egiten degu bada: il arte, bizi.

*Mar. j.* - Bai; baña zu bezelako gaztea osasun betean bizi da: Osasuna galdu duen gaixoak, berriz, egun negargarriak daramazki. Bizi dala ere ezin esan liteke.

*Lolot.* - Beraz. orrela dago andre Mari-Antoni gajua?  
*Mar. j.* - Kupigarria! (*Une onetatik bi aizpak beren buru-apainketan jarraitzen dute, Mariano jaunari jaramonik egin gabe.*) Zure aizpatxoari len esan diyodan bezela, zarrak biotza nekatua izaten dute, ta orretzek estutasun aundiak ematen dizkate. Izan ere, jaiotzetik eriyotzaraño, biotza ari da beti tik... tik... tik... tik... Gañerako gorputzaren alderdi guziak geldirik atsedean osoan dauden bitartean, biotza, gorputzaren zaindari bakarra balitz bezela, etxe utsetan etxea zaitzeko gelditzen diranen antzera, ariko da gelditu gabe tik... tik... tik... tik... Eta ori egunez, eta ori gabaz, orrela umetan, berdin gaztearoan eta, azkenik, zartasunera irixtean; ez da arritzeko gauza nekatua arkitzia beti, gelditu gabe, aritu dana tik... tik... tik... tik...

### III

#### Lenguak eta Andre Jaxinta

*A. Jax.* - (*Andre Jaxinta oso apaiña ta txapela jantziarekin atzetik sartzen da.*) Gertu al zerate?... (*Mariano jauna ikusten du.*) A! Mariano jauna! Emen zegonik ez didate esan. Zer diyo?

*Mar. j.* - Ondo, ta zu?

*Bebel.* - (*Bi aizpak Mariano jauna ta Andre Jaxintaren ondoan biltzen dira.*) Baleki, ama: Andre Mari-Antoni oso gaizki omen dago.

*A. Jax.* - E?

Lolot.- Bai, ama: Agerrepe'ko Andre Mari-Antoni,  
A. Jax.- Ez nekiyen ezer ere.  
Bebel.- Biotza omen dauka galdua...  
Lolot.- Ondatua...  
Bebel.- Oso, oso gaizki...  
Lolot.- Oso kupigarri.  
A. Jax.- Arrituta uzten nazute.  
Bebel.- Eta gu?  
Lolot.- Eta gu?  
Bebel.- Ni beintzat ezertarako gogorik gabe utzi nau  
berri orrek. (*Bebel juaten da lengo mai  
aurrera ta ekiten du berriro bere buru-  
apainketan*)  
Lolot.- Eta ni oso samindua. (*Lolot ere juaten da  
bere lengo mai aurrera ta ekiten du berriro  
bere apainketan.*)  
A. Jax.- (*Mariano jaunaren ondoan aulki baten exe-  
riaz.*) Baña noiztik dago gaxo?  
Mar. j.- Aspalditik, andrea, aspaldiegitik.  
A. Jax.- Aurten, egiya, asmua bagenduen, baña ez  
gera oraindik ikusten izan; bañan juan  
dan urtean oso emakume itxurakua utzi  
genuen.  
Mar. j.- Itxura bai; itxura bazeukan, bañan itxura  
besterik ez.  
A. Jax.- Noiztik, ordia, orrela galdu da?  
Mar. j.- A! Noiztik! Jaiotzetik izakia galtzen asten  
dala esan genezake. Tresna berri bat egiten  
dan egunetik ondatzen dijoan bezela, gure  
gorputza ere egunetik egunera aultzen,  
argaltzen juaten da: lenbizikoan pixkaba-  
naka, gaztearoan azkartxiago, ta zartutze-  
rakoan zarrapastaka ikaragarrian. Eta ori  
gorputzaren alderdi guziakin gertatzen

bada, biotzarekin zer esanik ez dago. Ordularia ikiñak erabilli azitzen duen bezela, gorputzaren atalak biotzak erabilli azitzen ditu, ta orretarako ari da gelditu gabe tik... tik... tik... tik... Gorputzaren aldarre txar guziak biotzak eraman bear izaten ditu; gaixotasun guziak biotzaren gain jauten dira, ta gorputzak izan lezazkiken arriskorik aundienetan, biotza ariko da zintzo ta sendo tik... tik... tik... tik...

*Bebel-* (Oso apainduta amarengana juanaz.) Orain-txen, juan biar badegu, garaia da bada.

*Lolot-* (Apainketak amaitu ta amarengana juanaz.)

Bai, ama; obe degu lenbailen juan.

*A. Jax-* Zaudezte pixka bat.

*Bebel-* Berandutu egingo zaigu.

*Lolot-* Ta onenian alde egindo gute.

*Bebel-* Goiz juango giñala gaztiatu genioten.

*Lolot-* Ta aspaldiyan gure zai egongo dira.

*A. Jax-* Bañan itxogon zazute Andre Mari Antoni'k zer duen jakin arte.

*Lolot-* Ori badakigu.

*Bebel-* Mariano jaunak esan ez digu bada?

*Lolot-* Andre Mari-Antoni'k duena zera da... zera...

*Bebel-* Bai bada; ainbeste aldiz aitatu digun tik, tik, tik edo dalako ori.

*A. Jax-* Oraindik astiya badegu.

*Bebel-* Ez, ama; oso berandu da.

*Lolot-* Zai daukazkigu.

*Bebel-* Eta badaki zeñen errex asarretzen diran.

*Lolot-* Nola mutturtuta gelditzen diran.

*Bebel-* Lenago're ia nola egon ziran ainbeste denboran erdi zapuztuta.

*Lolot.* - Aiekin jostaketik ez dago.  
*Bebel.* - Obe degu lenbailen juan.  
*Lolot.* - Bai, ama: ezin itxogon genezake.  
*Mar. j.* - Alaben agindua egin bearko dezu.  
*Bebel.* - Bai, bada; ala ere nekez iritxiko gera.  
*Lolot.* - Aspaldiyan an egon biar genduen.  
*A. Jax.* - Zuben zai egondu naiz.  
*Bebel.* - Ez dauka bada orain gure aitzakirik.  
*Lolot.* - Gertu gaude gu.  
*A. Jax.* - (*Altxiaz, Mariano jauna altxatzen da ondo-ren.*)  
Bai, bai; zubei buruan gauza bat jarri  
ezkero...  
*Lolot.* - Berandu degu ta.  
*Bebel.* - Zai daukazkigu.

*(Guztiak ate aldera juaten dira, ta une onetan etxe-sarrerako atia irikitzen da, ta agertzen da Adolfo.)*

#### IV

#### *Lenguak eta Adolfo*

*Adol.* - Arratsalde on.  
*Bebel.* - Oi, Adolfo!  
*Lolot.* - (*A. Jaxinta ta Mariano jaunak eskui aldera egiten dute. Bebel ta Lolot aurre aldera etortzen dira. Adolfo gelako sarrerara aurreratzten da, txapela eskuan duela.*)  
*Adol.* - Irtetera zinjoaztela ikusten det, eta neregatik gelditzerik ez nuke nai.  
*Bebel.* - Ez; aurrera, aurrera.

*Adol.*- Baña...

*Lolot.*- Irtetera ginjoazen, egiya da, baña gure irteera etzan bearrekoa.

*Bebel.*- Ara: agertu bat egitera ginjoazen, baña orain bertan jua bearrik ez daukagu.

*Lolot.*- Berdin jua gintezke emendik pixka batera.

*Bebel.*- Edo bigar...

*Lolot.*- Edo etzi...

*Bebel.*- Edo datorren astian...

*Mar. j.*- Edo datorren urtian.

*Bebel.*- Orrenbesteraño ez; bañan, ama, nik esan detana ez al da egiya?

*Lolot.*- Esan bezaio beorrek, ama.

*A. Jax.*- Zer nai dezute nik esatia, guzia zubek diozute ta?

*Bebel.*- (*Adolfo*'ri.) Bai, bai; sinistu zazu.

*Lolot.*- Esan bezaio, ama.

*A. Jax.*- (*Adolfo*'ri.) Zerorrek entzun diyezu: iñora juateko estutasunik ez degu. (*Alabai.*) Ez ta batere.

*Bebel.*- Ez ta batere.

*Lolot.*- Ez ta batere!

*Mar. j.*- Batere ez!

*A. Jax.*- Eta zurekin egotia atsegin bat izango degu.

*Adol.*- Orrela dala geldituko naiz, bañan asti txiki baterako bakarrik; eta gero neronek lagunduko dizutet,... ondo badeizkiyozute.

*Lolot.*- Oso ederki, Adolfo.

*Bebel.*- Adolfo, eskerrik asko.

*(Bebel eta Lolot aurreratzen dira, Bebel aurrian ezkerretera exertzen da itzaliki bere ondoan beste aulki bat. Lolot'ek berdin egiten du aurrian eskuitara. Andre Jaxinta ta Mariano jauna lengo aulki beretan)*

*exertzen dira. Bitartian. Adolfo'k ate-ondoan txapela uzten du, ta aurreratzen da gero, Andre Jaxinta esku emanaz agurtuaz.)*

*Adol.- Zer diozu, andre Jaxinta?*

*A. Jax.- Guztiz ederki; ta zu?*

*Adol.- Zorionez beterik zuen artean naizenean.*

*A. Jax.- Eskerrik asko.*

*Adol.- (Bebel'engana jua eta esku emanaz.) Bebel...*

*Bebel. - Adolfotxo...*

*Adol.- Lolot... (Lolot'i esku emanaz.)*

*Lolot.- Ongi etorriya.*

*Adol.- (Mariano jaunagana jua eta esku emanaz.)*

*Zer dio gure sendagille ospegarriak?*

*Mar. j.- Ementxen, zuk esan dezun bezela, etxe ontako zorionaz kutsututzen.*

*Lolot.- (Bere aldameneko aulkia eskeñiaz.) Exeri zaite, Adolfo.*

*Bebel.- (Bere ondoko aulkia erakutsiaz.) Adolfo, exeri zaite.*

*Adol.- (Mariano jaunaren aldarnenera aulki bat ekarri ta exeriaz.) Emen, Mariano jaunaren itzal atsegiñean.*

*A. Jax.- Nai dezun tokian.*

*Adol.- Eskerrik asko.*

*Bebel.- Atzo illunabarrean ikusi zindugun apaiz jaun batekin.*

*Adol.- A, bai; nere erritarra da.*

*Lolot.- Eta neskata oso egoki...*

*Bebel.- Oso apain batekin...*

*Adol.- Apaiz jaunaren arreba. Ezkondua da.*

*Bebel.- A!*

*Lolot.- Nik uste nuen...*



*Adol.* - Bai. Inguruko erri bateko alkatearen emaztia da.

*A. Jax.* - Orratx: orain ere zuek besterik uste zenuten.

*Mar. j.* - Gazteak izan!

*Lolot.* - Alaxen da bada.

*Bebel.* - Esan ere egin genduen: Adolfo'k orain ere jakin du begiya non jarri.

*A. Jax.* - Abek nexka matrakak!

*Adol.* - Ikusi dezute, ordia, nik baño len beste nor-baitek beria jarria zeukala.

*Lolot.* - Ala izango da...

*Adol.* - Ala da.

*Lolot.* - Bañan, emen bertan ere, begiya bat edo batean ondo jarriya daukazu.

*Bebel.* - Izpitzenean dagon neskatxa andaluza ori emen balego...

*A. Jax.* - Bebel!

*Adol.* - Neskatxa andaluza orri agur egiten diot. Uretxean arekin arkituta itzegin izan det. Bañan begiak, iñon jarri gabe, neronekin gorde izan ditut.

*Lolot.* - Ez dituzu, esan bezela, beti gordetzen.

*Bebel.* - Bat baño geiagotan jartzen dituzu.

*Adol.* - Ori ez! Nik begiya jartze ezkerro, batean baka-rrik izango bearko da: ta emakume ura nere emaztetzat naiko det.

*Lolot.* - Ori diozunian, aukeratua daukazu.

*Bebel.* - Andaluza izango da!

*A. Jax.* - Aben ateraldiak! (*Adolfo'ri.*) Ez zaiezu jaramonik egin!

*Mar. j.* - Oiek zerbait jakin nayian dabilta.

*A. Jax.* - Adolfo'k esan duena, biar bezelako gizon zintzo ta zuzen bati dagokiona da.

*Adol.*- Eskerrik asko.

*A. Jax.*- Ez gaurko egunian gazte askorekin gertatzen dana: ikusten dituzten gonadun guztien ondotik zoraturik ibilli, ta gero ñorekin gelditu ez. Biar bezelako gizonak, gogokua duen emakumea aukeratu ta gero bere emazte egin bear du.

*Mar. j.*- Guk orrela egin genduen.

*Adol.*- Orrela egingo det nik.

*Bebel.*- Bai; baña, emaztegia aukeratu arte, ez dute gizonak orrelako asmorik izaten.

*Lolot.*- Eta, Adolfo'k asmo aiek baditu, emaztegia aukeratua daukalako izango da noski.

*Adol.*- Urrutitxo juan zeratela iduritzen zait.

*A. Jax.*- Ain urruti!

*Mar. j.*- Nork daki ori!

*Bebel.*- Buruan zerbait dabilkizula ez diguzu ukatuko.

*Adol.*- Ori...

*Mar. j.*- Ez du noski burua utsik eukiko.

*A. Jax.*- Ori esan!

*Bebel.*- Badaki Adolfo'k zer esan nai diyotan.

*Lolot.*- Zerbait dabilkiela, azkeneko egun abetan ondo igarri diogu.

*Adol.*- Neri?

*Lolot.*- Bai, noski.

*A. Jax.*- Apaiz jaunaren arrebarena bezela izango da ori ere.

*Adol.*- Oraintxen esan dezu egi-egiya, andre Jaxinta.

*Lolot.*- Bai; apaiz jaunaren arreba ezkondua izango da, bañan besteren bat ezkontzeko kolokan egon liteke onenian.

*Mar. j.*- Bat baño geiago're bai.

A. Jax.- Bai, noski.

Adol.- Norekin, ordia?

Bebel.- Zurekin nor dan esaten diguzunian, beste  
ori esango dizugu.

Adol.- Nerekin oraindikakoan iñor ez.

Lolot.- Oraindikakoan ez; bañan laister bai.

Bebel.- Zerbait asmo dabilkizula, garbi agiri da;  
zerorrek aistiyen aitortu dezu...

Adol.- Baliteke...

Bebel.- Esan gaizkizu bada zer asmo diran oiek.

Adol.- Ori... gauza luzia izango litzake... ta nik, asti  
labur batean bakarrik egon naizela agindu  
dizutet... (*Altxiaz.*) Eta irtetzeko garaia dala  
uste det. (*Guztiak altxatzen dira.*)

A. Jax.- Ederki esan dezu.

Bebel.- Bai, bai, ez aitortziagatik.

Lolot.- Gauza, dana dan bezela ez esatiagatik.

Bebel.- Baña alperrik.

Lolot.- Orain guziya badakigu.

Adol.- Guziya badakizute, geiago jakin biarrik ez.

A. Jax.- Ez zazutela gizona zoratu.

*(Adolfo, txapela artzeko, atzera juaten da. Bi nexkak  
ondotik juaten zaizkio. Ondoren ate aldera egiten  
dute, lenbizi Andre Jaxinta'k eta atzelik Mariano  
jaunak.)*

Bebel.- Gordian euki nai zenituan ixilpekoak azaldu  
dira emen.

Lolot.- Alperrik itzul egingo dezu.

Bebel.- Aspalditik igarriyak geunden.

Lolot.- Ain aspalditik eze!

Adol.- (*Adolfo. A. Jaxinta'rengana etortzen da, bi  
nexkak ondotik dituela.*) Andre Jaxinta:

zure alabak asmaketan oso azkarrak izan  
bear dute. bañan ez diran gauzak asma-  
tzen dituzte.

*Bebel ta Lolot.* - A. bai!

*A. Jax.* - Ametsetan dabilta!

*Mar. j.* - Bai, baña oso ernai!

*(Adolfo ate aldera juaten da, ondotik bi nexkak  
dituela. A. Jaxinta ta Mariano jaunak ere ateruntz  
pixka bat egiten dute.)*

*Lolot.* - Ez dan gauzik ez dakigu asmatzen.

*Bebel.* - Diranak bai.

*Lolot.* - Eta zeronek aitortu ezkerok...

*Bebel.* - Asmatu bearrik ere ez.

*Adol.* - *(Etortzen da berriro A. Jaxinta'gana. bi nex-  
kak atzetik dituela.)* Nere aitorpenak guzti-  
yak entzun dituzute; abek diotena ere bai;  
alkarren antzik duten igarri orain.

*Bebel ta Lolot.* - A, ez!

*A. Jax.* - Oiekin bazabilta!

*Mar. J.* - Ez zabilta gaizki!

*(Adolfo ateraño juaten da, nexkak atzetik dituela.*

*Ondoren, A. Jaxinta ta Mariano jauna.)*

*Bebel.* - Len esandakoak damutu egin al zaizkizu?

*Lolot.* - Alperrik da bada orain!

## V

### *Lenguak eta Izpitza*

*Izp.* - *(Etxe-sarrerako atea irikitzen da, ta Izpitza  
agertzen da.)* Mariano jauna emen al da?

*Lolot.* - A, bai! Mariano jauna!

*Bebel.* - Mariano jauna!  
*A. Jax.* - Izpitza da!  
*Mar. j.* - Zer dek?  
*Izp.* - Beorren billa netorren.  
*A. Jax.* - Aurrera, aurrera! (*Mariano jaunari.*) Emen bertan itzegingo dute.  
*Mar. j.* - Eskerrik asko. (*Izpitza'ri*) Ator bada aurrera.  
*Adol.* - Agur, Mariano jauna.  
*Mar. j.* - Agur.  
*Bebel.* - Gero arte.  
*Lolot.* - Agur.  
*Mar. j.* - Ondo ibilli, amets geiegi egin gabe.  
*Lolot.* - Ez dago bildurrik.  
*Bebel.* - Oso erne guaz.  
*A. Jax.* - Etxeko jabe or gelditzen da.  
*Mar. j.* - Eskerrik asko. Ondo juan... Agur. (*Mariano jauna ta Izpitza ez bestiak sarrerako atetik juaten dira,*)

## VI

### *Mariano jauna ta Izpitza*

*Izp.* - Beriala juateko...  
*Mar. j.* - Nor dezute gaizki?  
*Izp.* - Lenago're askotan ikusi izan duen *señorita* andaluz ura.  
*Mar. j.* - Orduan, ator aurrera.  
*Izp.* - Oso larriturik bigaldu naute.  
*Mar. j.* - Exeri adi.  
*Izp.* - Bañan beriala juateko ta...

*Mar. j.* - Exeri adi. (*Biyak ezertzen dira.*) Zuen *señorita* orrek, eta orain irten diran beste oiek biyak, gaitz bera ditek: biozberak dituk; eta, gaitz orretan, sendagilleak zenbat eta nekezago iritxi, obe izaten dik.

*Izp.* - Bai; baña gaxo dagonak...

*Mar. j.* - Gaxo dagonak ere bai. Ik ez dakik neskatz oiek zer kasketaldiak izaten dituzten.

*Izp.* - Kasketaldiak? Gure andaluz orrek beñepin bai. Oraindik ez da egun asko, entzun nuen *ai!, ai!, ai!* marruaka ari zala. "Gure andreak gaizki egon bear dik" neregan egin nuen; lasterka biziyan bere gelara igo nitzan, eta... abestutzen ari zala erantzun zidan.

*Mar. j.* - A, bai! Beren erriko erara: "*ai!, ai!, ai!*"

*Izp.* - Aistin asi da ostera *ai!, ai!, ai!*, ta mirabei ere esan diotet: "Etzazutela jaramonik egin, abestutzen ari da ta". Bañan karraxika etorri zaizkit, oso gaizki dagola esanaz, eta beriala beorren billa etortzeko. Nork asmatzen du noiz dagon antsika ta noiz abestutzen!

*Mar. j.* - Zuen andere orren eta emengo bi gazteen gaitza...orain irten dan Adolfo ori dek.

*Izp.* - Eta, beste neskatz askorena ere bai.

*Mar. j.* - Urterokoa dek! Urak artzera etortzen diranen artean, urtero izaten dek gazteren bat edo bat, neskatz guztien buruak nastuzten dituana.

*Izp.* - A, bai! Urtero! Juan dan urtean ere, gogoratzten al da arako On Pepito ura? Neskatz guztiak zoraturik bere ondolik...

*Mar. j.* - Bai... ta iñork ezin arrapatu...

*Izp.* - Ta ori, ankamotza zalarik.

*Mar. j.* - Alaxen dek.

*Izp.*- Onenbesteko zurruma, *takoiekin*.

*Mar. j.*- Bai; baña beste ainbesteko kutxa, diruz  
ondo ornitua, bazikan, ordia.

*Izp.*- Aurtengo onek ere ez du esku-utsik izan bear.

*Mar. j.*- Ez; ondo dagona dek.

*Izp.*- Ala dira susmurrak.

*Mar. j.*- Bai; diruduna, azkarra ta zintzoa.

*Izp.*- Ala dirudi. Eta etxe ontako sendi au, beorrek  
aspalditik ezagutzen duena izan bear du?

*Mar. j.*- Ain aspalditik! Andre Jaxinta onen senarra-  
ren aita, sendagille oso azkarra ukan.  
Alkarrekin ikasten ibildu gindukan, eta  
nere lagunik maitiena izan ukan.

*Izp.*- Orra beaz...

*Mar. j.*- Arren semiarekin ezkondu zanian, au  
oraindik aur bat ukan; emezortzi urte bazi-  
tuben ere...

*Izp.*- Ondo gazterik...

*Mar. j.*- Bai. Beriala bi nexka abek izan zizkikan,  
senarra il zitzaiokan, eta ogei ta bat urte  
zituenerako alargun gelditu ukan. Geroz-  
tik, or zebillek alaben kiria dirudiyela.

*Izp.*- Iru aizpak deitzen diote emen askok.

*Mar. j.*- Etziok gaizki. Bañan oraindik ere, zarrena  
zalegarriagoa dek.

*Izp.*- Ala esango nuke neuk ere.

*Mar. j.*- Bi gazteak oso biozberak dituk. Edozein  
gauzarekin aidian jartzen diranak. Orain,  
dalako Adolfo ori sartu zaiotek buruan, eta  
beren orrekin oso txoraturik zioztik.

*Izp.*- Bai, noski.

*Mar. j.*- Zuen etxeko andaluz orri agur egiten ikus-  
ten badute, ikaragarritzko iskanbillak jar-  
tzen dizkitek...

*Izp.*- Eta gurea, berriz, Adolfo abekin ikusten duen bakoitzean, *ai!, ai!. ai!*, marruaz itotzeko zoriyan jartzen da.

*Mar. j.*- Ura ere biozbera dek eta.

*Izp.*- Ez nolanaikoa ere.

*Mar. j.*- Gero, oien buruan, txorakeriya, uskeriya, aizea besterik etziok. Beren buruan txukundu, leundu, apaindu... Aistian ikusi baitukan emen... Exkerra'k azkarrago pintatu zizkikan aldare nagusiko santu guziyak, oiek beren arpegiak baño. Ai, Izpitza! Orrelako emazte bat artu izan baukan, egun gorriyak ikusi biarko itukan.

*Izp.*- Ez da gezurra.

*Mar. j.*- Ire emaztea besterik dek.

*Izp.*- Zakarra da! (*Jeikiaz.*) Bañan langille amorratua, ta iñor bezin artakua. Nere emazteak gizonezkoa izan bear zuen!

*Mar. j.*- Ala dek.

*Izp.*- Eguna argitu baño len, aren abotsa entzungo da: oju emendik, deadar andik, neskame ta morroi guztiak jeiki azi ta lanean jarri arte.

*Mar. j.*- Esnatzalle egokiya.

*Izp.*- Bereala, egaztiak iltzia dala, sua piztu, mai-ontziak gertu jarri, gelak antolatu; bera beti lenengo, bera beti aurretik, bera guzien gain.

*Mar. j.*- Egiya dek.

*Izp.*- Gero, otorduak maniatu ta bakoitzari berea eman arazi, etxeko gora-bera guzien kontua eraman; egun guzian gelditu gabe, gabian ere berdin... Ollarrak kukurruku egingo du, ta oraindik nere emaztearen abotsa entzungo da gure etxean!

*Mar. j.*- Txinisten diat.



Izp.- Ori bai. Len esan detan bezela, zakarra da.  
Guztiak bere menpean egon bear...

Mar.j.- I're bai.

Izp.- Ala ari danean, ez du iñor ezagutzen: guztiak  
bere azpian euki bear ditu...

Mar. j. - I're bai.

Izp.- Ta gogor egitia alperrik da; bada, dana dala,  
azkenean bere oinpean jartzen du.

Mar. j.- I're bai.

Izp.- (*Zalantzan pixka bat egon ondoren.*) Bai: ni ere bai.

Mar. j.- Bai. noski.

Izp.- Bañan ala egiten da lana gure etxean. Lertze-  
raño! Bai, bada: guztiak ezin bizi sendagi-  
lleak bezela...

Mar. j.- Sendagilleak... (*Jeiki*az.) Orain lan asko egi-  
ten dezute, egiya dek; bañan igaroko dek  
uda, ta atsedeen, lasaitasun osoan gelditu-  
ko zerate. Sendagilleak, berriz, bere lanari  
jarraitu bear zioke. Uda ta negu, eguraldi on  
eta txar, gau eta egun, sendagillea beti  
bere arazoan. Gorputzean biotzak bezela,  
gizartearen sendagilleak gelditu gabe ari bear  
dik: tik... tik... tik... tik...

(*Zaldi-zintzarri otsa entzuten da.*)

Izp.- Gure mutillak izan bear du. (*Leiora juañ eta  
andik ojuka.*) Jexux! Ia oitu baño azkarrago  
ibiltzen aizen bañan zaldiak lertu azi gabe  
gero... Ta ordurako iritxi ara, ta emen gertu  
egon; badakik jaun batzuek eraman bear  
ditukala, ta beste emakume batzuek etor-  
tzeko dirala, ta betikoak uretxera eraman  
bear ditukala. Egunerokoa ez dedilla gerta-  
tu, ta juañ ta etorri ta ibilli azkar; zaldiai  
begiratu ondo. (*Izpitz*a izketan astian, zin-  
tzarri-otsa ixilduko da. Gero, *Izpitz*a'k "egu-

*nerokoa ez dedilla gertatu" esaten duenian. zintzarri-otsa asiko da berriro, ta urrutiratzen juango da. Izpitza leiotik Mariano jaunagana biurtzen da.)* Esanak esan, eta alperrik.

*Mar. j.*- Orain bezelako lardaskan esaten badizkark beintzat, bai.

*Izp.*- Arretik ez dute jartzen.

*Mar. j.*- Oraintxe joateko ordua diagu ba, onezkero zuen andaluzari igaroko zitzaiokan da...

*Izp.*- Makurrak dira sendagilleak. Gaitzak alde egin da a gero gaixoa ikustera juan. Orrela neu ere sendagille izango nitzake!

*Mar. j.*- Ori txantxetako gaitzetan. Egiyetakua danean, garaiz juan nai izaten diat. Ez, askotan bezela, sendagilleari ez deitziagatik, luza ta luza; ta azkenik, onenian ezer egin ez liteken garaian, itoka ta lasterka billa etorri. Senda-gillea ez dek asarretzen azkarregi deitu zaiolako, beranduegi deitzen dalako baizik.

*Izp.*- Ori ondo, Ori ondo.

*Mar. j.*- Bañan zuen andaluz orrekin, zer egitia nai dek? Orrek bear duen sendagaia zer dan bazekiagu: Adolfo.

*Izp.*- Orain esan du egiya! Neuk ere igarria neukan!

*Mar. j.*- Ta nola sendagai ori nere eskuan ez dagon; eta nola nere eskuan balego, ta orri emango banio, etxe ontan bertan bi iskanbil izango nituken. gaitz bera dutelako ta sendagai beraren zale diralako... orra zergatik len esandakua esan didatan.

*Izp.*- Bai, bai...

*Mar. j.*- Baña orain garaia diagu, ta guazemak.

*Izp.*- Ederki, ederki. (*Atzeko ateruntz egiten dute.*)

## VII

### *Lenguak. Bebel eta Lolot*

*Bebel ta Lolot.* - (*Bebel eta Lolot atariko atetik sar-tzen dira.*) A, Mariano jauna!

*Mar. j.* - Azkar zatozte!

*Bebel.* - Ikustatzera ginjoazen sendia etxetik irtena zan da.

*Lolot.* - Guk esan genduen.

*Mar. j.* - Ta ama, bidian galdu al da?

*Lolot.* - Atarian gelditu da.

*Bebel.* - Adolfo'ri zerbait esan biar omen zion ta.

*Mar. j.* - Eta zuek ez al zenioten ezer esan biar?

*Bebel ta Lolot.* - Ez ta ezertxo're!

*Mar. j.* - Ez dakit ba... Guazemak, Izpitza. Agur, gaztiak.

*Bebel.* - Agur, Mariano jauna.

*Lolot.* - Agur.

*(Mariano jauna ta Izpitza atariko atetik juaten dira.)*

## VIII

### Bebel eta Lolot

*Bebel.* - Gaur, Adolfo'k zerbait bazuela ezagun zuen.

*Lolot.* - Nik beriala igarri diot.

*Bebel.* - Ta ala, gurekin jua danian ezin zuben ezer asmatu.

*Lolot.* - Gauza hat zuzen etzuben esaten.

*Bebel.* - Gero begiratu batzubek egiten zizkidan...

*Lolot.* - Neri ere bai...

*Bebel.* - Bai, baña neri...

*Lolot.* - Zuri aña egin dit neri, geiago ez bada.

*Bebel.* - (*Asarre antzian.*) Bai; guziya zuri egin dizu.

*Lolot.* - Ez; zuri egingo zizun.

*Bebel.* - Zaude ixilik; zurekin ezin itzegin liteke.

*Lolot.* - Zu're goxoa jartzen zera.

*(Zaputz-aldi txiki baten ondoren berriro adiskidatzen dira.)*

*Bebel.* - Gero, atarira iritxi geranian, amari alderatu  
zaio ta itzegin biar diola esan dio.

*Lolot.* - "Andre Jaxinta itz bi esan nai nizkizuke".

*Bebel.* - Orrelaxe esan dio.

*Lolot.* - Ondo goguan artu det, bai.

*Bebel.* - Eta gorri-gorri jarri da.

*Lolot.* - Anpolaiia bezela.

*Bebel.* - Orduan begiratu bat egin dit...

*Lolot.* - Neri ere bai...

*Bebel.* - Eta, esku emateakoan, estu-aldi bat egin  
dit...

*Lolot.* - Neri ere bai.

*Bebel.* - Neri, ordia, lenbizi...

*Lolot.* - Alderago zeundelako.

*Bebel.* - (*Erdi asarre.*) Guztirako badezu maratilla.

*Lolot.* - Bai biar ere zure ametsak banatzeko.

*Bebel.* - Ametsak, e! Ama etortzen danian jakingo  
degu.

*Lolot.* - Bai, egiya: jardun au amak argituko du.

## I X

*Lenguak eta Andre Jaxinta.  
Gero, Mariano jauna. Azkenean Izpitza.*

*(Andre Jaxinta atariko atean azaltzen da.)*

*Bebel.* - Ara bera!

*Lolot.* - Egिया!

*A. Jax.* (*Andre Jaxinta par-irriya egiñaz aurreratzen da. Alabak ere par-irri egiten dute: ta, par-irriyakin alkar aditu nai balute bezela, une batian egoten dira.*) Alabak, gertaketa berriak ditugu.

*Bebel.* - Banekiyen!

*Lolot.* - Ezagutu det!

*A. Jax.* - (*Nola esan ezin asmatu balu bezela.*) Ikusi dezute nola Adolfo, zerbait esan biar dirala-ta, nerekin gelditu dan...

*Lolot.* - Bai, ama.

*Bebel.* - Ikusi degu.

*A. Jax.* - (*Geroago ta zailtasun geiagorekin.*) Baña... ezkondu egin nai duela esan dit...

*Lolot.* - Igarri niyon!

*Bebel.* - Banekiyen!

*A. Jax.* - Eta biar bezela eskapena egin dit.

*Bebel.* - (*Bi aizpak pozez itzik ezin asmatu balute bezela.*) A!...

*Lolot.* - Orra!...

*A. Jax.* - Erantzupenik ez diot eman izan nai... zuei esan gabe.

*Bebel.* - Guria bazekiyen...

*Lolot.* - Beorri ondo iduritu ezkeru...

*A. Jax.* - Ez, ez, Zubei zer deizkiozuten jakin gabe,  
ez det nik ezer egingo.

*Lolot.* - Neria badaiki bada.

*Bebel.* - (*Erdi asarre.*) Zuria jakin ezkeru, ez du ezer  
geiagoren biarrikan.

*Lolot.* - Baliteke zurien biarrik ez izatia.

*Bebel.* - Edo zurienik.

*Lolot.* - Ori laister jakingo degu.

*Bebel.* - Jakingo degun bezela.

*A. Jax.* - Bañan, alabak...

*Bebel.* - Noren iritziya jakin biar du?

*A. Jax.* - Biyena.

*Bebel ta Lolot.* - Biyena?

*A. Jax.* - Biyena. bai. Ez det nik alabetan ezberdin-  
ketik egiten.

*Lolot.* - Bañan Adolfo'k...

*Bebel.* - Adolfo'k norekin ezkondu nai du?

*A. Jax.* - Nerekin.

*Bebel.* - (*Oso arriturik.*) E?

*Lolot.* - Ama!

*A. Jax.* - Ez al zaizute ondo iduritzen?

*Bebel.* - (*Ezin itzik egiñik,... totelka.*) Ama,... nik...  
(*Gaitz egitera balijoakio bezela.*)

*A. Jax.* - (*Bebel'gana juanaz.*) *Bebel,*... Zer dezu?  
Izutzen nazu! (*Alki batian exertzen lagun-  
tzen dio.*)

*Lolot.* - (*Lolot, gaitz egitera balijoakio bezela, atzera-  
tuko da: ta gero, karraxi batzuek egin ondo-  
ren, korderik gabe aulkian ereriko da.*) Ai,  
ai, ai!...

*A. Jax.* - (*Bebel utzi ta Lolot'gana lasterka juanaz.*)  
Biyotza! Zer dezu, ordia! Lolot!

*Bebel.*- (*Bebel, karraxi batzuen ondoren, korderik gabe gelditzen da.*) Ai, ai, ai!..

*A. Jax.*- (*Lolot utzi ta Bebel'gana juanaz.*) Bebel! Nere izarra! Zer dezu! (*Zer egin ez dakiela, alde guzietara begira.*) Zer egin biar det nik orain! Lolot! Bebel! Au zoritxarra! Zer, ordia!... (*Leiora juan da begiratuaz.*) A! Mariano jauna! Azkar, bizi, betor Jaungoikoaren izenian! (*Lolot'gana etorriaz.*) Nere alaba kutuna! Lolot maitia! Zure amaren puxka ederra! Lolot neria!

*Mar. j.*- (*Atariko atetik sartzen da Mariano jauna las-terka ta oso larriturik. Illiak ere larriyakin zut-zutik dauzka. Sartu ta beriala, txapela ta esku-makilla jarleku gañera botatzen ditu. ta zuzen-zuzen Lolot'gana junten da.*) Zer da? Zer da?

*A. Jax.*- Ai, Mariano jauna! Betor laister!

*Mar. j.*- Ez larritu! Emen naiz!

*A. Jax.*- Ai, nere alaba zoragarriyak! Zer ikusi biar det nik emen!

*Mar. j.*- Emen ezer ez. Au ez da ezer, au ez da ezer.

*A. Jax.*- (*Mariano jaunak Lolot ikusten duen bitartean, A. Jaxinta Bebel'gana juaten da.*) Bebel! Ai, au ez dago ondo! Mariano jauna, betor aguro onera, Mariano jauna!

*Mar. j.*- E! Zer du? (*Lolot utzi ta Mariano jauna Bebel'gana juanaz.*)

*A. Jax.*- Gaizki dago au! Mariano jauna, begiratu bezaio ondo.

*Mar. j.*- Ez da ezer, ez da ezer. Beriala igaroko zaio.

*A. Jax.*- (*Lolot'gana juanda.*) Lolot! Au nere alabaren itxura! Galdubak gera! Mariano jauna, betor azkar!

*(Mariano jauna, Bebel ikusi ondoren, sakeletik sendagai bat ateratzen du. Bebel'i usai egin azitzeko; bañan, A. Jaxinta'ren karraxiak entzutian, bere sendagaiarekin Lolot'engana juaten da.)*

Mar. j.- Zer da bada, zer? *(Lolot ikusi ondorian.)*

Emakumia, ez da ezer. Ez zazula orrelako karraxirik egin.

A. Jax.- *(Ixiltxiago.)* Ai, Mariano jauna!

Mar. j.- *(Sendagaia Lolot'i sudurrera usaitzera emanaz.)* Beriala igaroko zaio. Ara...

A. Jax.- *(Bebel-gana juanaz.)* Ai, Bebel! Nere izarra! Au oso gaizki dago! Au badijua!

Mar. j.- Badator... Badator...

A. Jax.- Mariano jauna. betor beriala!

Mar. j.- Zaude... Zaude pixka bat...

Lolot.- *(Lolot'ek begiak zabaltzen ditu.)* A!

A. Jax.- Mariano jauna!

Izp.- *(Atariko atetik sartuaz.)* Mariano jauna!

Lolot.- *(Lolot berera etortzen da ta musu-zapiarekin begiak igortzitzen ditu.)* A!

Mar. j.- Oni igaro zaio.

A. Jax.- Mariano jauna, betor!

Izp.- Mariano jauna, hetor!

Mar. j.- *(Mariano jauna sendagaiarekin Bebel'gana dijua ta Izpitz'a'k zamarretik eltzen dio.)*  
Utzi nazak!

Izp.- Marruaka dago!

Mar. j.- Abestutzen ariko dek. *(Bebel'engana juan eta oneri ere sendagaia sudurrera jartzen dio, ta pixkatbanaka bere onera etortzen da.)* Oni ere beriala igaroko zaio.

A. Jax.- Ai, nere alaba kutuna!



Mar. j.- Ara: igaro zaio... Igaro zaio...

A. Jax.- Jaungoikoari eskerrak! Lolot! Nere izarra!  
(A. Jaxinta Lolot'gana juan eta musuka ekiten dio. Bitartean, Mariano jauna Izpitza'ri alderatzen zaio.)

Mar. j.- Beriala juango gaituk.

Izp.- Badaki: beste ura abekin ikusi du ta...

Mar.j.- Jakiña zio!

A. Jax.- (Bebel'engana etorri ta musu emanaz.)

Behel! Nere biyotza!... Bañan nere nexkak zer izan dute?

Mar. j.- Zure nexkak, andre Jaxinta, biozberak dira, ta naigaberik txikienak, edozer gauzak, beren onetatik ateratzen ditu. Aben biotzak, tik... tik... tik... tik... egin bearrian, tik-tik... tik-tik... tik-tik... tik... egiten dute.

A. Jax.- Ta zer bear da?...

Mar. j.- Oiek bear dutena da: beren aldamenean gizaseme gazte gogoko bana: aben biotzak tik... tik... tik... tik... egiten dutenean, tak... tak... tak... tak erantzungo diena. Orrela ederki izango dira. Orrela, ordularia, erlojua bezela: tik-tak... tik-tak... tik-tak...

(Mariano jaunak buruarekin zintzilikaiak bezela egiten du Gero, gañerako guziak ere bai.)

*Oiala jetxi bezate.*

# Arkibidea

|  |     |
|--|-----|
| Toribio Alzaga Anabitarte (1861-1941)..... | 7   |
| Neskazar .....                             | 15  |
| Amantxi .....                              | 95  |
| Aterako gera! .....                        | 145 |
| Biozberak .....                            | 173 |

## DONOSTIAKO HERRI LITERATURA

Toribio Alzaga: *Neskazar, Arnarntxi. Aterako gera, Biozberak.*

\* \* \*

Aurki atera bearrak:

Ramon Artola: *Ipuiak edo Kontutxoak.*

Antonio Arzak: *Poemak eta abar.*

Segundo Kalonje: *Bertso-bilduma.*

---

Donostiako Euskararen Udal Patronatuaren  
laguntzarekin egindako argitalpenak.